

BIHOTZ HANDIEGIA

EIDER RODRIGUEZ



EIDER RODRIGUEZ

Bihotz handiegia



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.eus/ebook>

© 2017 Eider Rodriguez

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2017ko azaroa

Edizio hau: 2017ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Bihotz handiegia

Bien isiltasunen arteko talka entzuten zen hozkailua ixtean, edalontziak mahai gainean ipintzean, sardexkek platera jotzean.

- Badakizu zer esan behar dizudan, ezta? -galdetu zion Madalenek amari.

- Drogekin arazoak dituzula?

Gutxitan urduritzen zen, baina urduritzen zenean pentsatzen zituenik ere ez zekien gauzak esaten zituen.

- Ihesean ari zara.

- Arrastorik ez daukat.

- Aitari buruzkoa da.

- A... gizon hori. Okerrera egin al du?

- Egunetik egunera.

Ixabelek mingaina klaskatu zuen, solasaldia bukatutzat joz. Baina Madalenek ez zuen etsi:

- Orain badakizu zer esan behar dizudan.

- Ezta okurritu ere. Benetan ari naiz. Ezta okurritu ere! -Ixabelek eskuak altxatu zituen istripua ikustera inguratutako kuxkuxeroak uxatu nahi dituen poliziak bezala.

- Ez dago beste erremediorik. Egongo balitz, ongi dakizu ez nizukeela eskatuko.

Madalenek sobera gelditutako tortilla zatia eramateko baimena eskatu zion amari. Morez margoturik zeramatzan azkazalak, ertzak pitzatuta gazteei bakarrik xarmangarri geratzen zaien moduan, azala belztuta zuen. Bizitza osoan ez zion deus eskatu, areago, ez zuen deus eskatu ez izana bere aldeko argudio gisa erabili sekula.

Madalenek bi urte zituenean bereizi ziren Ixabel eta Ramon, eta handik urtebetera Ixabelen nobio berria haiekin bizitzera aldatu zen Hendaiara. Ordutik banakako etxe txuri-urdin batean bizi ziren, 50eko hamarkadan eraikitakoa, soro eder bat zuena atzealdean eta etxe aurrean Ixabel kolpetik irabazi zuen "Ene kabia" izena. Ramon Donostiara joan zen, han antolatzeko bizimodua. Madalenek hamabost egunean behineko *larunbaitak* (hala esan izan zien nerabezarora arte) eta bizimodu arruntaren arteko txandakatzea espanturik gabe hartu zituen, muga administratiboa muga emozional bilakatuz.

- Astelehenetik ostegunera izango da. Astelehen honetatik hasita. Ostiraletan Bordeletik bueltatutakotan nik hartuko nizuke lekukoa, igandera arte.

Ixabelek kiroletako arroparekin jantzita irudikatu zuen bere burua, kopetan felpazko zinta, tren gelto- kian alabak emandako lekukoa tente eramateko zail- tasunekin.

- Ez naiz kapaz sentitzen.

- Ez dut uste Gabonetara iritsiko denik. Benetan.

Ixabelek Gabonetara bitarteko hilabeteak zenbatu zituen bere kabutan: hiru eta erdi.

- Iñakirekin hitz egin behar dut.

- Badaki.

- A, ederki! -esan zuen Ixabelek.

Iñaki zein neurritaraino zen giza-ezkutu susmatu ote zuen inoiz galdetu zion bere buruari Ixabelek, zein neurritaraino maite zuten horregatik.

- Eta zure aita ere konforme al dago?

- Ez dauka beste irtenbiderik. Oraindik ez diot ezer aipatu... Zurekin hitz egin nahi nuen lehenik.

Ilea motots mardul batean jasota zeraman Mada- lenek, behinola Ixabelek ere eramán izan zuen mo- duan.

- Zer da hau, segada bat?

- Iñaki prest dago laguntzeko.

Iñakiren leialtasun muturreko hark zoratu egingo zuen Ixabel. Baina zer espero zitekeen okindegitik

etxerako bidean ogiari muturra inoiz kendu gabeko gizon batengandik. Okerrera zen egia zela, benetan egongo zela prest, Madalenek eskatutako galburu trentza egin ahal izateko interneteko tutorialetara jo zuenean bezala.

- Eta ez eraman bananak, Iñakirentzat dira, lasterka egitetik datorrenerako -esan zion alabari, azpimarratzeko etxe hura norena zen eta norenak ziren bertan zeuden gauzak-. Eta udareak ere ez.

Inork inori aitortu gabe, uda osoa zeramaten behar baino fruta gehiago etxera ekartzen, Madaleni lana erraztearren. Madalenek poltsatik atera zuen mailatuta zegoen fruta. Ixabel lotsatu egin zen hala zegoela ohartzean, eta eskuak likatsu utzi zizkion udareak zuritu eta jan egin zuen, aurpegia zikinduz, horrelako irristaden ostean garrantzitsu baitzeritzon bere buruaren alde traukilen bat agerian uzteari.

- Ez dakit ulertzen duzun: ez naiz aitari laguntzeko eskatzen ari, niri laguntzeko eskatzen ari naiz -ekin zion berriz alabak.

Aitaren tinkotasunaren eta aita-ordearen aldarre onaren arteko konbinazioa zen Madalen, eta Ixabeli kosta egiten zitzaion fisikotik aparteko bere aztarnarik aurkitzea alabarengan. Uda osoa zeramaten Ramonen

otordu, mediku-bisita eta irudikatu ezin zituen beste-lako zaintza lanez arduratzen, baina Ixabelek ez zion marmar txikiena ere aditu; joan-etorri haien berri zekiten apurrek mirespenez begiratzen zioten arren, berak kezka zuen menperatua izateari plazera hartzen ari ote zitzaien.

- Oso nahasita nago -esan zion alabari.

Madalenek besarkada bat eman baino gehiago besarkada bat eskatu zion. Urteak ziren heldu usaina zuela, eta hala ere Ixabelek harriduraz musukatu zuen behinola kolonia lurrin kaltegabea izandako buru hura.

Luzaketa batzuk egin eta gero, ohean etzan zen Iñaki. Ixabeli aldiro egiten zitzaien apur bat txokantea jantzi hain koloretsu eta estuekin ikustea egunerokotan arropa diskretutara ohituta zeukan gizona, eta gus-tatzen zitzaien.

Eskuarekin pistola itxuratuz lepoan ipini zituen bi hatz.

- Badirudi astelehenetik aurrera bizimodua aldatu-ko zaigula, ezta? -bota zion Ixabelek.

- Dagoeneko esan dizu? -esan zuen Iñakik, agondu eta izerdiaren arrastoa edredoi gainean utzita-. Konponduko gara, ezta?

Ixabelek bere erabakimenetik gaindi zegokeen debeku bat, erregu bat, mehatxu bat, edozer desio zuen, baina gizon ekibokatuarekin zegoen horretarako. Zaila zen Iñakirekin haserretzea eta are zailagoa hura haserre ikustea. Ixabelek ez zuen berehala pentsatuko Ramon basatiaren ondoren halako gizon bat maitatu ahal izango zuenik, izan ere dibortzioaren ostean berarengana hurbildu bazen homosexuala zela uste zuelako izan zen, yoga klasean zeuden gainontzeko gizonak bezala. Erraza izan zen.

Elkarrekin bizitzera joan eta gutxira haur bat egiteko tentaldia izan zuten, baina egoskortu gabe, Iñakik hasieratik eman baitzion abisua: umetan izandako paperek antzutu egin zutela sinetsita zegoen. Garai hartan sexu harremanek zentzua galdu bazuten ere, haurraren aukerarekin ahaztutakoan zentzu berria irabazi zuten.

Ixabel aldamenean etzan zenean baztertu egin zen Iñaki:

- Usain txarra daukat.
- Ez duzu usain txarrik, ehiztari usaina duzu.

- Jogurt zaharinduarena -esan zuen elastikoaren paparra sudurrera hurreratuz.

- Ez naiz zuek bezain pertsona ona.

- Baina badituzu zure gauza onak -erantzun zion Iñakik-. Zure aldean hobekak dirudigu!

- Gaur aldatu dut edredoa. Horrelako gauzak pentsatzen ditut etengabe. Gaur aldatu dut edredoa. Gaur aldatu dut edredoa!

- Batzuetan ez dago beste irtenbiderik.

- Zergatik dibortziatu ginen? Ez dut oroitzen.

- Ez zenidan inoiz esan, ez behintzat zehazki. Ez dugu gai horri buruz sarritan hitz egin, ezta?

Dibortziatu zirenetik bizpahiru aldiz baino ez zuten topo egin Ixabelek eta Ramonek, eta ia hamar urte baziren azkeneko aldiz elkar ikusi zutenetik Príncipe zinemako eskailburuan: Ixabel *Zodiac* ikustera joan zen Iñakirekin, Ramon *Ratatouille* ikustera Madalenekin. Filmaren erdian senar-emazte ohiek aldi berean sentitu zuten txizagura, eta hala, komunetik irtenda-koan egin zuten topo: amerikana eta zapata garestiak zeramatzala jabetzeko bizitasuna izan zuen Ixabelek. "Ez dakit ezer zutaz" esan zion Ramoni, salaketa baino promesa eginez, "Ongi bizi zara?"; eta hark "Nik ere ezer gutxi dakit zure bizitzaz" erantzun zion taba-

koak horitutako hortzekin. “Beti bezala zaude”, esan zion. Ez zen egia. Hura esanda, eskaileratan gora egin zuten sute-simulakro batean baleude bezala, zaintzeko eskatuz batak besteari, biei sinesgarria iruditu zitzaaien moduan; eta nor bere pelikula ikustera itzuli zen, izandako enkontruaren berri eman gabe, ilunpetan arto-krispetak kentzen aldamenean zutenari.

Alabak bederatzi urte betetzerako bakarrik egiten zuen asteburutako Hendaiatik Donostiarako joan-etorria topoan, eta aurretik ere Ixabel moldatu zen aitalabak elkar zitezen bera tartean egon gabe, izan Iñaki lanzadera gisa erabilia edota dibortziatutako ama gazteek dibortziazera ausartu ez diren aita-amen artean pizten duten elkartasun bulkada aprobeztatuta, “Asteburu honetan aitarekin tokatzen zaio baina ni lanean egongo naiz bila datorrenean, ardura zintezkete zuek?”. Hori eta urte haietan guztietan Ramonen aipamenik egin ez izanari esker ez zen gaizto-tu harremana, disolbatu baizik; hain zen horrela, bartzuetan kosta egiten baitzizaion elkarrekin ume bat egin zutenik sinestea. Neurri profilaktiko erantsi gisa, guraso, anaia eta lagunei Ramonekiko harremanak eteteko eskatu zien, “Ez dizuet inoiz ezer eskatu eta mesedez” formula erabilia. Iñakik ez zuen behin ere

zeharkatu galdetzea komeni ez zenaren hesia, eta hala, urtetik urtera, gero eta birtualagoa bilakatu zen Madalenen logelako argazki konstelazio gisa soilik biziraun zuen haren existentzia: Ramon zazpi bat urterekin zahato batetik edaten, Ramon hamar bat urterekin bere aitak lan egiten zuen Café Concorde parean, Ramon nerabea lagunez inguratuta eskopetarekin tiro egiteko zain, Madalen txikia Ramon orrazten Ixabelek hartua behar zuen argazkian, Ramon eta Madalen nerabea Habanan John Lennoneren eskulturaren aldamean eserita.

Gaztetan tipo segaila izan zen Ramon, eta hartaz jakitun ez izateak are eta guapoagoa bilakatzen zuen. Beste hainbat gauza ere izan zen: argala, gizona, kaskarra, suharra, etsitua, taberna-mutila, enpresa gizona, ezindu iraunkorra, etorkinen *working class* semea, *middle class* alabaren aita, etxegabetua eta segidan umezurtz gelditzearen ordainetan inguratutako oinordetzak erreskatatua, ezkerrekoa, ezker-zentrokoa, ezker-eskuinekoa, ezkondua, dibortziatua, emakumezko mordoxka bat biblikoki ezagututakoa, bizpahiru emakumezkorekin agnostikoki egondakoa, miretsia, baztertua, irabazlea eta galtzailea. Ixabelek ezagutu zuenean Toulousetik iritsi berria zen Euskal Herrira,

gerra garaian Pasaiatik ihes egindako gurasoak Frantzia lurperatuta eta bizimodu berri baten bila. Beste janzkera bat, beste orrazkera bat, beste hitz egiteko modu bat, beste mundu ikuskera bat, beste heziera bat zituen. Ixabelengan lilura gehien barazkiak gordini jaten ikustea eta frantsesetik gaztelaniara harri pauso batetik bestera bezala ibiltzeak sortzen zuen, eta batzuetan, larrituta pentsatzen zuen, afaltzeko errefautxoak eta erre haiek ez ote ziren izan harekin hain urrutira iristearen arrazoia.

Orain *beste* guztiak agortuta zituen gizon gaixo bat zen, eta hura izango zen, seguru aski, izango zen azkenaurreko gauza.

Ixabelek orbainik ere ez zuen gertatu zenaren bila hastaka hasteko. Gogoan zituen elkarri esandako batzuk (“Noiz arte egongo zara uzki mutur horrekin?”, “Kendu paretik edo auto istripu bat izango duzu”, “Terrorista! Zeu zara terrorista puta bat!”, “Burua kakaz betea duzu”), baina ez du oroitzen zerk eraginda esan ziren esaldiok, eta egun lanak ditu berak halakoak bota zituela onartzeko. Ginkana bat zela harreman hura, hurkoak utzitako arrastoak aurkitu, interpretatu eta aurrera egin behar zela txokolatezko saria eguzkipean urtzen zen bitartean, horrelako zerbaiten oroi-

tzapena dauka. Haur baten jaiotzak dakarren kaosa konpentsatu aldera-edo etorri ohi den konfort esparrua zabaltzeko premiarekin auto-handiagoa-etxe-garbiagoa-bizi-ohitura-osasuntsuagoak errenkadan sartuko litzatekeen gizon-neurritsuagoa konbinaketak ere izango zuen zerikusirik agian, gogoratzen ahalegintzen da. Ramon aberastu eta alferrikalduko zuen paper silikonatua egiteko enpresa martxan jartzen ari zen garaian egunak eman zitzakeen ausente haragiz zein gogoz, eta zegoen bakanetan Ixabelek berarekin estropezu egiten zuen harengandik hitzen bat atera asmoz, ez zegoenean egongo balitz erabiliko ez lukeen gozotasunarekin hitz egiten zion, bainutik egongelara ("Eskerrak iritsi zaren, *amore*, egun osoa onomatopeien bidez hitz egiten eman dut, zoratu egingo nintzela uste nuen"), sukaldetik logelara ("Gggamon!"). Bakarrik sentitzen zela, Administrazioa eta Finantzak ikasketak berrartu zituela, haurraren zaintzarekin txandakatzen zituela estudiante orduak. Eta deus ez gehiago.

Madalenek Ramonen zaintzarekin laguntzeko eskatu zionetik, Ixabel autoko giltzak galtzen zituenean bezala hasi zen ezkontza hartatik atera izanaren arrazoia bilatu egindako bidea desibiliz, baina denbora

gehiegi joana zen eta non ez bilatu jakiteko baino ez zen gai: komodan ez, erreziboen kutxatxoan ere ez, komuneko xaboiontzia-aren atzean ezta ere... posta bulegoan akaso? Ez. Autoa etxe parean zuenez: giltza etxe barruan zegoen derrigor. Detritus emozionala zen.

Igande hartan tren geltokian utzi arte ez zion Madaleni erabakiaren berri eman:

- Astearte eta ostegunetan joango naiz eta bost egunetarako jatekoa eramango diot. Mediku-bisitena ordutegiaren arabera. Noiz du hurrena eta ze ordutan?

Madalenen begirada ebitatzeko agenda atera zuen, ez baitzen alabaren poza eta arindua jasotzeko bezain ondradu sentitzen.

- Hemendik hamar bat egun barru, ordua ez dakit, goiz samar. Berari galdetu beharko diozu. Baina egunero joan beharra dago txakurra ateratzera.

- Egunero? Erotu egin al gara?

- Iñakik lagunduko dizu.

Unibertsitateko lagunak batu zitzaizkien geltokian, eta Ixabel tokiz kanpo geratu zen, serieko ama bat izatera pasatuz txilio, jauzi, itxuraz munta handikoak

ziren baina sakonean candidiasis eskutada batera laburbildu zitezkeen nesken sekretu artera. Parodia haren erdian Madalenek luzatutako oharra irakurri zuen: Ramonen etxeko telefono zenbakia, helbidea, botiken zerrenda eta dosia, "Mila esker!" handi bat, bihotz bat. Autora abiatu zen, norekin haserretu asmatzen ez zuelako haserre.

AUZO on bateko etxe zahar batean bizi zen, laugarren solairuan. Gerora jakingo zuen urrutiko izeba batek utzi ziola oinordetzan, eta jaso ahala bitan zaitu zuela, beste erdia bizilagunei salduz zorrak kitzatze-ko. Alabak utzitako giltzatakoa poltsatik atera orduko zaunkak entzun zituen atearen bestaldean. Kopiak egin beharko zituela pentsatu zuen. Atea zabaltzean zakur erraldoi baten muturra agertu zen, atzetik gizon baten oihuak isilik egoteko eskatzen. Zakurrak janariz betetako poltsa usaintzen zuen bitartean sartu zen Ixabel etxera. Gortinak zabalik egonagatik ere ez zen argirik sartzen, baina ez zegoen esperotako garraztasunik giroan.

- Egun on! -esan zuen-. Hozkailuan sartuko ditut gauzak.

Sukaldea eta egongela bat eginda zeuden: telebis-ta txiki bat, birentzako sofa eta besaulkia, Chagallena izan zitekeen lamina bat, Zumetaren Gernika, inguruan hiru aulki zituen mahai karratu bat, barra amerikarra botika kutxa ugarirekin ganean, hozkailuko atean mediku errezetak eta alabaren ohar eta bihotzak: “Ahaleginduz gero huts egingo duzu. Ahalegindu berriro. Huts egizu berriro. Huts egizu hobeto”, “Carpe diem”, “Ozpina entsaladarako”.

Hozkailua zabaltzerakoan zakurra zaunka egiten hasi zen, eta logelatik zetorren Ramonen ahotsa entzun zuen bigarren aldiz. “Oraindik hitz egiteko gai da behintzat” pentsatu zuen Ixabelek adoretuta, aurkituko zuenaren puzzle pieza apurrak ahal bezain azkar armatuz. Hasitako kafe pakete bat eta limoi erdi bat besterik ez zegoen bertan.

“Gosetuta egongo da, harraska azpian!” ulertu zuen azkenean. Harraska gaineko armairuan haiek ere etxean zuten eta dirua ateratzeko zen egutegia: Madalen psikomotrizitateko ikaskideekin tximinokeriak egiten.

Zakurraren azpila hutsik zegoen eta putzutxo bat ageri zen ur goporraren aldamenean. Ez zeukan ihesbiderik.

Harraskaren azpian beraiek zuten garbikari kopuruaren hamarren bat zegoen: kristalak garbitzekoa, lurrak garbitzekoa eta arropa garbitzekoa. Bazter batean zakur kroketa zaku bat. Ixabelek zailtasunak izan zituen kroketarik bota gabe goporra betetzeko, zakurrak muturrarekin egiten baitzion bultza. Ur potea ere istant batean hustu zuen. Ondoren korridorean barna abiatu zen, isatsa batera eta bestera dantzatzen.

Zakurra joan zen bidetik joan zen bera ere.

Buruki zurietan zurkaiztuta aurkitu zuen Ramon. Hatz-koskorrekin atea jo zuen, ebidentearen zena are ebidenteagoa bilakatu nahian.

- Ez zara toki txarrean bizi.

- Ez, ez da toki txarra.

Izan zen haurra ikus zitekeen Ramonen aurpegian, handiegi gelditu zitzaion bisaian sobrante zeukana kendu eta hantxe zegoen begirada zorrotzeko ume argala.

Zakurra usnaka hasi zitzaion, muturrarekin hankartean bultza eginez.

- Oso! -egin zion oihu Ramonek, Ixabeli deigarri egin zitzaion giharrarekin-. Mekaguendios! Zabaldu pertsianak, mesedez.

Karranka eginez zabaldu zituen Ixabelek egurrezko pertsiana orriak, eta zakurra balkoira irten zen aurreko zangoak barandan jarri eta mingaina ahoaren albo batetik zintzilik arnasestuka.

- Atera beharra dauka, bestela hor botako du pastela -esan zuen Ramonek. Argi berriarekin aurpegi eta lepoko azalaren hauskortasuna nabarmendu zitzaion.

- Gosaria prestatuko dizut lehendabizi? Kafe hutsa, ezta?

- Ez, aurrenekoa zakurra da, okerragoa izango da bestela. Hemen aldamenean parke txiki bat dago, eraman ezazu hara, bera konponduko da, ongi ikasita dago. Sarrerako zintzilikailuan daude uhala eta mokordoak jasotzeko poltsak -jendeak kasu egitera ohituta zegoen norbaitek bezala hitz egiten zuen-. Iristen zarenean berehala askatu, bestela lurrera botako zaitu.

- Hartz baten antza du, egia esan.

- Izenarena ez da horregatik.

Ixabel jarraipenaren zain geratu zen, baina ez zen jarraipenik egon. Eskuak maindirepetik ateratzeko lanak izan zituen Ramonek, gero leihorantz jiratu zuen burua, argia bilatzen duen landarearen gisara.

Kanporatu gabeko hirak masailak eta belarriak gorritu zizkion Ixabeli, eta kalean, esku ahurra aurpegian

jarriz saiatu zen berotasuna jaisten. Beste eskuan uhala zeraman korapilatuta, Osok ematen zizkion tiraldiei aurre egiteko. Belarra ikusi bezain pronto lasterka hasi zen, eta Ixabelek, mosketoia askatzeko indarka aritu eta gero, uhala zintzilik utzi zuen joaten. Eskumuturra urratuta zuen. Ez zen animalia zalea, bere iritziz animalia zalea zen jendea ez zen jende zalea eta animaliekiko afektua haien espeziekideekiko gorrotoa kudeatzeko modua zen, ez besterik. Eta orain hantxe zegoen zakur hari begira parkean: urtzen ari zen kandela zirudien aurpegiera, mingaina kanpoan, kaka eginean.

Oso harrapatzeko zer egin pentsatzen zuen bitartean, eskua paperezko poltsan sartuta belardira sartu zen gorotz bila: hantxe zegoen, loretxoen artean heze eta ketsu. Jaso eta paketetxo bat eginda zakarrontzi bila abiatu zen; gerora epifania gisa ulertuko zuen une hura. Oso lerdea zeriola ari zen belardiaren perimetroa inguratzen. Zakurra etxeratzeko jasan beharko zuen umiliazioa aurreikusita, momentua gehiago ez luzatzea erabaki zuen, eta belaunen gainean esku zartak joz dei egin zion, gero eta ozenago, alferrik. Ixabel atzetik joan zen bere izena xuxurlatuz, eta gertu izan zuenean, salto batez uhala zanpatu zuen bera ere ha-

rrituta utzi zuen iaiotasunez. Madalenen irudia inbokatu behar izan zuen etxerainoko bidean, han egotearen arrazoia bera zela eta ez beste inor, ez beste inor, ez beste inor.

- Ongi? -logelatik oihu egin zion Ramonek, eta kolpetik familiarregia egin zitzaion dena Ixabeli.

Korridorea zeharkatzen ari zenean paperaren junturak ez zetozeela guztiz bat ohartu zen, pare bat milimetrotako dekalajea zegoela, eta distortsio hark adoretu izan balu bezala, pentsatu gabe bota zion:

- Hendaiara eramango dut zakurra. Etxearen atzealdean belardia dugu eta Iñakik gustura nekatuko du hondartzan. Nik ezin dut goizero etorri. Ezin dut, lana daukat. Asteburuetan Madalenek ekar diezazuke bisitan.

Madalenek urte eta erdi zuenean lo egin zuen lehenengo aldiz etxetik kanpo, aitona-amonen etxean. Ixabeli urtero deitzen zioten Corkera nerabetan berekin batera *au-pair* joandakoek sanferminetara joateko, eta urtero asmatzen zuen ez joateko aitzakiaren bat, animaliak baino gehiago gustatu arren bera ere ez baitzen oso jendezalea. Orduko hartan ordea baietz esan zuen, hartara Ramon eta biek zerbait egingo zuten elkarrekin. Hura izan zen azken iskanbila, zuri-

gorriz jantzita, alabaren poltsaren prestaketan denbora gehiegi eman zuela leporatu zion Ramonek eta Ixabelek berak gutxiegi eman zuela erantzun, autobusa galduz gero errua norena izango zen argudiatuz eta kontra-argudiatuz. Eta hala ere Iruñera eramango zituen autobusera garaiz iritsi eta aldamenean eseri ziren nor baino nor isiltasunean gotortuago. Iristerako eguerdia zen. Autobusetik jaitsitakoan kontrako norabideetan irten ziren. Ixabel lagunekin elkartu zen eta ordu txikietara arte ez zuen Ramon gehiago ikusi. Argi urdinak zituen taberna luze batean izan zen, lastozko kapela zeraman eta zuri izandako arropak ardoz zikinduta zeuzkan. Jendezko korridore bat zeharkatzen ari ziren, Ramon irteerarantz, Ixabel barrurantz, eta topo egin zutenean elkarri begiratu gabe jarraitu zuten aurrera. Handik aste gutxitara dibortziatu ziren, isiltasun botoari eutsita.

- Zure Iñaki hori ere jubilatuta egin dute, ala?

- Irakaslea da, goiz irteten da lanetik. Kafea azukre askorekin edo gutxirekin?

Fotosintesia egiteari utzi gabe, Ramonek putz txiki bat egin zuen sudurrearekin.

- Badirudi ez dagoela beste erremediorik.

- Ez dago beste erremediorik.

- Oso gizajoa.

Ixabelek koilarakada bat bota zion, azukrerik gabe hartzen zuela gogoan izan arren. Ez zion esango behin Iñakik hanka bat eta begi bat falta zuen arratoi-txakurra ekarri zuela etxera, handik gutxira hil eta negar egin zuela zotin eta guzti. Ez zion esango Oso etxera eramatearen alde ona ospatuko zuela eskuak igurtziz.

Paisley estanpatua zuen pijama granate polita zerraman Ramonek. Hankak ohetik atera ahal izateko ohe-buruko hesolei heldu behar izan zien, Ixabel ezustean harrapatu zuen indar erakustaldi bat eginez. Ohe gainean eserita gelditu ahal zedin, eskuak luzatu zizkion Ixabelek, baina Ramonek ezikusiarena egin zuen. Agure baten gorputza zuen, orkatilak puztuta eta azal gardena, baina begietan garra zuen oraindik. Irakiten ez balego bezala edan zuen kafea, eta piluletako bakoitzak zintzur-sagarra dantzan jarri zion.

- Zerak jartzen lagundu behar didazu.

Belkrozko bi tira zabal eta kautxuzko zola potoloa zuten oinetako urdin-ilunak ziren, ortopediaren batean erositakoak.

- Hauek ere moztu beharko dira, ala? -ostruka batenak ziruditen azkazalak ikusi zizkion.

- Orain ez.

- Dilistak eta zerba albardatuak ekarri dizkizut bi egunetarako adina, hozkailuan daude; afaltzeko pistoa eta pasta entsalada; postrerako gazta. Nahi duzun ordenan jateko dira, jakina.

- Zuk prestatu al dituzu?

- Pistoia lñakik, etxeko erregalia. Gainontzekoa nik.

- Sukaldari ona zinen...

- Gustatu egin behar.

Ixabelek barre pirrinta bat ikusi uste izan zuen Ramonengan. Oinak zoruan bermatu eta zutik jartzea lortu zuenerako arnasestuka ari zen. Ixabelek ukondotik oratu zionean, ate aldamenetik eszena barrandatzan ziharduen Oso marmarka hasi zen eta Ramonek besoa astindu zuen aska ziezaion. Eskiak jantzita balitu bezala egin zuen egongelarainoko bidea, han, telebista pareko besaulki etzangarrian eseri zen, burusi eskoziar bat magalean jarrita. Zakurra oinetan etzan zitzaion, mingaina ahotik kanpo utzita. Ramonen aldamenean hark ere hil hurren zirudien.

- Hartu zuk ere kafea.

- Ez, banoa. Lanera joan beharra daukat.

Ixabelek ez zion galdetu zer egingo zuen berak. Ez zuen erantzuna aditu nahi.

- Aldizkariren bat edo ekarriko dizut gero? Liburu-
ren bat? Lehen gustatzen zitzaizkizun.

- Ez daukat horretarako aldarterik -eta gorputza
bihurritzen hasi zen, besaulkiaren zirrikitutik agintea
hartu nahian-. Infusioak ere badaude, Madalenenak
dira. Nik ez dut horrelakorik hartzen, baina neska
hau...

Ramonek Ixabelek ezetz esan aurretik piztu zuen
telebista, bisitaren amaierari aurrea hartuz. Ixabelek
Osoren zizpurua entzun zuen atea itxi aurretik.

Intimitate erauntsi haren lorratzak gainetik kendu
ezinda egon zen Ixabel lan egiten zuen enpresan, eta
maitalearen etxetik familia politikoaren etxera bazkal-
tzera joan izan balitz bezala, nominak prestatzen zi-
tuen bitartean elastikoa edo esku gaina aztertu zituen
usain debekatuen bila.

Etixeratu zenean Iñaki ez egotea eskertu zuen. Zu-
zenean dutxan sartu eta baineran eseri zen, aspaldiko
partez. Maite zuen bainera bete gabe portzelanaren
gainean eserita egonda ur txorrotada sentitzea. Hala
zegoela iritsi zen Iñaki eta, garrasika, zer moduz joan
ote zen galdetu zionean kontatu zion zakurrarena.

- Zein arrazatakoa da?

- Oligofrenikoa! Eta handia.

Bainuko atearen bestaldean zegoen, eta ez zuten elkar ongi entzuten. Zutitu egin zen, badaezpada.

- Zer? Handi-handia? San Bernardo bat? Dogo bat? Edo ur-txakur estilokoa?

- Ez dakidala!

- Iletsua? Nirekin lasterka egitera eraman nezake forman badago, zergatik ez! Bukatzen duzunean pasako gara jasotzera. Ideia ona izan duzu, egia esan. Etxola bat ere jarri beharko diogu, ala?

- Zer?

Ixabelek eskularru exfoliantearekin besoak garbitzen zituen bitartean bere burua *maritxu*, *marika*, *marikoi*, *marikona* bezalako hitzez bete zen. Atearen bestaldean gelditu baino azulejuen kontra estu errendituko zuen gorputz gogoa zuen, min pixka bat emango ziona, behar zuen min apur hori, ez gehiago.

- Etxola bat edo!

- Ongi! *-uzkilari, lerdo, tuntun.*

Buruan takateko on bat jasotzeko desira ere piztu zitzaion, burua estalita zuen eta ezerezetik ateratako norbaitek bate batekin emango ziona, ospitalean esnaraziko zuena handik astebetara, errukiz eta maita-

sunez baina baita erasotzailearekiko mendeku gosez begiratuko zion jende desenfokatuz inguratuta. Tramak harrapatzen zuenean ikusita izan ez balu bezalako ilusioarekin ikustea lortzen zuen pelikula zen bere bizitza: momentu gorenetan tramatik askatu, distantzia hartu, eta nola jarraitzen zuen gogoratzen zelako zapuzten zen aldiro.

Arratsean iritsi ziren Ramonen etxera, Leroy Merliren zakurrarentzako *ezinbestekoak* erosi eta gero. Ixabelek behin eta berriz errepikatu zion hitz hori Iñakiri, kuxin handi batekin edota xanpu bote batekin hurreratzen zitzaion bakoitzean. Ramonek besaulkian jarraitzen zuen eta Osok bere oinetan, lehiakideek haien izena bularrean idatzita daramaten telebista saio bati begira zegoen, eta goizean baino itxura kaxkarragoa zuela iruditu zitzaion Ixabeli. Bizarragatik akaso, beti izan zen bizar sarrikoa, hurrengoan moztu egin behar-ko ziola pasa zitzaion burutik, baina buruarekin ezetz eginez ukatu nahi izan zuen pentsamendua.

Besaulki ondoko mahaitxoan botika blisterrak, edalontzi bat, tupper huts bat eta sardexka.

Gustu txarrekoa iruditu zitzaionez zer moduz zegoen galdetzea, zakurra eramatera etorri zirela esan zion zuzenean.

- Gaur?

- Goizean aipatu dizut gero etorriko nintzela.

- Baina ez didazu esan gaur etorriko zinenik, pasako zinela esan didazu, baina ez noiz.

- Esan dizut, agian ez duzu erregistratu nahi izan, baina esan egin dizut.

Ahoan txikitu ezin balu bezala trabatu zitzaion Ixabelek esandakoa Ramoni.

- Iñaki arduratuko da honetaz, hori ere esan dizudala uste dut.

Bi gizonek bostekoa eman zioten elkarri.

- Gutziaren bat badu? Jatekoa edo lotarakoa edo? -galdetu zion Iñakik-. Hasierako egunetan eta gurera ohitu arte pixka bat goxatzeko, diot.

- Emaiozu kartilla, Ixabel, hozkailu ondoko tiraderan dago; hor ez, txikian.

Ramonek eskua eragin zuen eta Oso zutitu egin zen. Kolpe batzuk eman zizkion buru gainean eta zakurrak besaulkiko beso gainean jarri zituen zangoak txera gehiagoren zain.

- Nire oinetan egiten du lo beti. Eta york urdaiaz-pikoa. Ona, ez edozein. Xerratu berria behar du, ikusi-ko duzu nola jartzen den, paretik kendu beharko duzu lurrera bota ez zaitzan. Eta azpizuna. Tarteka erosten diot, mokofina da jabea bezala -Ramonek kontu batzuk esan zizkion belarrira eta zakurrak mainak egin zituen-. Eta hondartzara joatea. Zuek hondartza ona duzue han, on-ona, aditzen Oso?

Ramonenganako errukia sentitzea ez zen erraza Ixabelentzat, eta sentimendu hark harrapatu bezain azkar patetismoaren xendratik bideratzen zuen, go-bernagarriagoa zen. Ixabelek uhala lotu zion Osori eta Iñakiri luzatu heldulekua.

- Eraman sukaldeko arasan dauden botilak, batzuk onak dira; nik dagoeneko ezingo ditut aprobetxatu. Eta joan hemendik. Mesedez.

Handik bi egunetara mikatzagoa zen usaina. Egon-gelatik igarotzean besaulki inguruan bi makarroi eta ogi papurrak ikusi zituen, harraskan plastikozko ontziak eta katiluak gailentzen ziren, eta Osoren gopor ondoko putzuan ileak zeuden. Ramonek ohetik deitu zion: "Isabelle!", Ixabel astindu zuen "Izabellll" gisako

bat. Hasieran uste baino gauza gehiago hartu behar-ko zituen kontuan etxe hura lehenengo egunean beza-la topatzeko, eta baita bere burua babesteko ere.

- Nor dabil hor?

- Otsoa! -erantzun zion, esan orduko damututa, ez baitzion barre eginarazi nahi.

- Zu ote zinen jakin nahi nuen.

Hitzetik hitzera degradatu egiten zitzaion bolumena.

Ixabelek hozkailuan gorde zituen jatekoak. Eskuz garbitu zituen ontziak eta martxan ipini zuen kafegailua. Sukalde gaina garbitu zuen, mikrouhin labeko tomate zipriztinak kendu zituen. Armairuak behar baino zarata handiagoarekin ireki eta itxi zituen, erratzaren bila. Lurra azkar batean garbitu, burusia tolestu eta besaulkiko kuxina harrotu zuen. Alfonbran zeuden hondarrak biltzeko aspiradora beharko zuela pentsatu zuen, eta etxeko kontuetan narratsa zen Madalen lan horiek egiten irudikatzeak gaiztotu egin zuen.

- Aspiradorarik ba al dago etxe honetan?

Ez zion aurpegia ikusi nahi, ez zuen beregandik gertu egon nahi, ez zuen berarekin hitz egin nahi.

- Etorri! -oihu egin zion Ramonek eztul artean.

Ez zuen ukitu nahi, ez zuen entzun nahi, ez zuen usaindu nahi.

- Non dago aspiradora?

Ez zuen garbitu nahi, ez zuen lagundu nahi, ez zuen elikatu nahi.

- Hemen, armairuan.

Ohe gainean aurkitu zuen, bizkarrez, ukabildutako eskuekin lastairan indarra eginez zutik jartzeko ahaleginetan. Ixabelek gortinak korritu eta leihoa zabaldu zuen. Pijama berria zeukan, aurreko egunean zuenaren bertsio urdina. Mozkor bizarra egin zitzaion; edade horrekin egunero dutxatu beharra dago, egunero kendu behar da bizarra, pentsatu zuen Ixabelek.

- Isabela, bela, bela -esan zion aurpegira begiratu gabe-. Arroparen armairuan dago.

Luzeraren eta motaren arabera antolatuta zituen arropak, logelako atea seinalatzen zuen gezi bat osatuz, berokietatik hasi eta gerrikoetara. Gehiago jantzi-ko ez zituen gustu oneko arropak ziruditen gehienek, eta Ramon irudikatu zuen jaken salneurriari begira, dendari bat hurbiltzen zitzaionean prezioaren etiketa askatuz.

Aspiradorarekin irten zen logelatik eta bueltan itzuli zen hamar minutu geroago, bi katilukada kaferekin.

Ez zuen berarekin pentsatu nahi, ez zuen bere iragana irudikatu nahi, ez zuen berarekin kafea hartu nahi.

- Bero dago, erne.

Ixabel ezustean harrapatu zuten hurrupa iskanbilatsuak egin zituen.

Ez zuen sentitu nahi, ez zuen gorrotatu nahi, ez zuen maitatu nahi.

Oinetakoak lotu zizkion. Lehertu beharrean zituen oinak.

- Joan beharra daukat, hozkailuan duzu jatekoa. Etzi Madalen etorriko da, beraz hurrengo astera arte. Nire zenbakia utziko dizut, zerbait behar izanez gero.

- Zer moduz dago zakurra?

- Ez dizut gezurrik esango, negarrez eman ditu bi gauak. Lo gutxi egin dut, egin dugu, egia esan, aldamenekoak ez kexatzea espero dugu. Goizean Iñakik itzuli bat egitera eraman du lanera joan aurretik. Ni ez naiz zakurzalea.

- Zertan egiten duzu lan?

Ixabelek ezin zuen sinetsi urte haietan guztietan Ramonek galdera hori inori egin ez izana, baina sobe-
ra kapaza ikusten zuen, kapazagoa horretarako elka-
rrietzeta abiatzeko trikimailu gisa erabiltzeko baino.

- Logistika eta garraio enpresa batean, Irunen.

Ez zen maitatzen utzi nahi, ez zen gorrotatzen utzi
nahi.

- Pijama pare bat daude bainuan, nahi baduzu
-esan zion Ramonek.

- Nahi badut?

- Ahaztu. Konponduko naiz -kafe zurrustada bat
erori zitzaion aho ertzetik, eta kokotsa dantzan ipini zi-
tzaion une batez.

Kafeak kolkotik behera egin zuen bere bidea, eta
Ixabelek begirada laketu zuen erreka ilunari begira,
kolpetik ohartuz harreman zintzo bat ezar lezaketela,
zintzoa zentzu filosofikoan.

Komunean ere usain txarra zegoen. Pijamak eta
hiruzpalau galtzontzilo zeuden zumitzezko kuboan.
Hatzak pintza moduan jarrita atera eta poltsa batean
sartu zituen. Esku-oihala eta gorputzekoa ere bertan
jarri zituen.

- Joan beharra daukat. Datorren astera arte. Be-
randu nabil.

Ixabeli iruditu zitzaion aurrekoan baino arinago eta artezago zebilela, eta poztu egin zen, nahi gabe. Egongelara iristean besaulkiaren bizkarrari heldu zion. Zutik itxura hobea zuen. Ilea atondu zuen bi eskuekin.

- Astelehen goizean ospitalera joan behar nuke -esan zion Ramonek.

- Taxian konponduko zara? -poltsa zabaldu zuen eta diru-zorrotik hogeiko billetea atera eta telebista-ren aldamenean jarri zuen-. Errebisioren bat?

- Bai. Hartu zeure dirua, ez naiz hain miserablea, hartu edo haserretu egingo naiz.

Ixabelek billetea jaso zuen, etxea txukun samarrik utzi zuela baieztatu ondoren, eta lasterka abiatu zen autorantz. Zabor poltsari korapiloa egin zion eta atzeko eserlekura jaurti zuen. Maitasuna sentitu zuen, maitasuna sentitu zuen Madalenekiko, Iñakirekiko eta hirurek osatzen zuten familiarekiko, eta leihoak zabalik eta presarik gabe egin zuen lantokirako bidea, hogei urteko puntualtasun erakustaldiaren ostean, aste hartan bigarrenez lanera berandu iristek eman zion pozarekin. Lehenengo semaforoan ordea maskaldu egin zitzaion aldartea. Azeleragailua barruraino sakatu eta horma baten kontra lehertzeko gogoia sentitu zuen.

Madalen zen nahaste hartatik atera zezakeen bakararra, eta itxaropen harekin itxaron zuen probokatu beharrik gabe etorriko zen asteburuko eztabaida.

Hala izan zen. Osok askatutako ileak egongelako sofa eta alfonbretatik xurgatzeari ekin zion Iñakik sesioak iraun bitartean.

- Zu joaten ez bazara Iñakiri eskatuko diot, argi ibili.

- Iñaki aipatu ere ez. Ez daukazu lotsarik.

- Frakaso bat zara. Erabatekoa gainera. Ez bakarrik ama bezala, pertsona bezala ere frakaso totala zara.

- Kontuz zer esaten duzun, gero damutu egiten zara eta! Heldu arduratsuaren plantak egiten dituen ume-moko kapritxosoa, zer jakingo duzu zuk bizitzaz! Liburuetan jartzen duenaz aparte ez dakizu ezer!

- Karrera uzteko prest nago. Laguntzen ez badidazu karrera utziko dut. Hilabetean behin izango da, asko jota bitan! Hilabetean behin norbaitengatik zerbait egiteko gai ere ez zara!

Ixabelek txankleta bat erantzi eta sukaldeko hormaren kontra bota zuen. Madalenek, etxe parean

aparkatuta zegoen Iñakiren autoko giltzak hartu zituen eta gidariaren eserlekuan jarri zen, ateak barrutik itxita.

Ixabelek bere buruari galdetu zion, haserreak gezurrak asmatzera garamatzen edo soilik haserre ez gaudenean pentsatzen ditugun egiak askatzera. Edonola ere, ez zuen bere buruaz gehiago espero, bere bizitzaren inguruan zituen igurikimen moralen oso gaitetik zebilen eta kiroltasunez onartu zuen alabak esandakoa, izan ere, zapi artean gordeko zuen, ahuldade uneetan muturra han sartu eta nor zen ongi gogoratzeko.

- Zergatik ez diozu ospitalera lagundu nahi? -galdetu zion Iñakik granada bat aletzen zuen bitartean, hatz txikerrak fruituaren alde banatan tentetuta, Ixabel bere onetik aterarazten zuen keinuarekin.

- Nahita ari zara.

- Zer?

- Hatzaz ari naiz, baina baita besteaz ere. Nor da tipo hori? Nor da tipo hori, esan!

- Zure alabaren aita.

- Eta zuk uste duzu, beraz, zorretan nagoela berarekin, duela hogeit hamar urte harremanik ez dudan baina inoiz berarekin fluxuak partekatzeagatik nigana betiko

lotu duzuen, bai zuek, gizon horrekin; eta bai, zutaz ari naiz, azken batean, uste baituzu ni baino hobea zarela, eta zu nire egoeran bazeunde, astelehenean dena utziko zenukeela inoiz harekin fluxuak konpartitu zenituen eta orain hil hurren dagoen andre burusoildu baratxuri usainekoaren gurpildun aulkia bultzatzeko ospitaleko korridoreetan barna...

Iñakik ahoko kremaiera itxi zuen eta atzeraka ibiltzen atera zen sukaldetik.

- Eta ez ezazu zakurra etxera sartu, esana dizut.

Iñaki Osorekin irten zen eta autoko leihatilan jo zuen giltzarekin. Ixabelek leihotik behatu zituen, harrotasunez, nolabait ere berak eragindako harremana baitzen hura. Madalenek kristala bajatu zuen eta Iñaki pikotxean jarri zen berarekin hitz egin ahal izateko. Osok muturra sartu zuen Madalenen fereken bila. Hip-hop doinu gozo bat irteten zen auto barrutik, Iñakik Madalenen musika eramatea maite baitzuen, eta baita entzutea ere, eta Ixabeli, egunaren arabera, xamurra edo fazatia iruditzen zitzaion keinua, egunaren arabera xarmangarria edo negargarria iruditzen zitzaion bezala Iñaki letrak kantaxkatzen entzutea. Nolanahi den, Madalenen hanka luze biluziak erritmoa jarraitzen ikustea seinale ona iruditu zitzaion, baita Iña-

kiren beso erdia auto barruan jarraitzeak ere. Haietarikoa edonoren zain geratu zen, denboraren joana errazteko baratzetik belar txarrak erauzten aritu bitartean, baina ez ziren etorri. Ramonen pijamak haien arrokekin batera esekita ikusi zituenean barre batek irten zion.

Iñaki garagardo usainarekin oheratu zenean ondo-rioztatu zuen Ixabelek Ramonengana eraman zituela Madalen eta zakurra, eta posible ikusi zuen aita-alabak zakurrarekin parkean zeuden bitartean Iñaki Ramonentzat kozinatzen gelditu izana, baina baita txofer lanak egin eta bila joateko deia jaso arte desagertu izana ere. Batzuetan desagertu egiten zen, eta Ixabe-
li plazera ematen zion, agian eta tarteka, Iñakik bizi-tza-zati ez hain gardena izan zezakeela sentitzeak. Oheratu zenean haren kontra estutu zen, eta Ramone-
kiko amorrus eta Iñakirekiko eztakitzez jo zuen lar-
rua.

Igande arratsaldeak hurrengo bizpahiru egunetara-
ko otorduak kozinatzen ematen zituzten, aurretik
behin ere egin gabeko platerak entseatzen: bokartak
ozpinetan, artatxikizko hanburgesak, marmitakoa,

garbantzu entsalada... Ramonentzat ez ezik Madalene-
nek ere Bordelera eraman zitzaizkien prestakuntza zituzten,
eta gero ontzitan gorde. Sukaldean ari ziren bitartean,
lñakik bere gogoko musika jartzen eta iruzkintzen
zuen, hainbeste urteren buruan lñakik zaletzeko itxa-
ropena oraindik galdu gabe.

Asteartean atea zabaldu zuenean ez zuen Ramo-
nen agurra jaso. Jatekoak hozkailuan sartu zituen,
ontzi zikinak garbitu eta egongela txukundu zituen, bi-
tartean bizi seinaleren bat jasoko zuen itzaropenez.
Ramonen arropa garbiak ezkontza pastel bat bailiran
eskuetan hartuta zeharkatu zuen korridorea. Bainuko
atea zabalik zegoen, toallak lurrean eta belkrodun oi-
netakoak konketa parean txukun lerrokatuta. Aurreko-
etan ez bezala logelako atea itxita zegoen, eta zabal-
du bezain pronto ohartu zen ez zegoela inor. Leihoak
zabaldu zituen, eta egun argiz ispiluan begiratzen de-
nari pikortak bezala azalarazi zitzaizkion akatsak: me-
sanotxe gaineko zigarro erredurak, sabai pitzatua,
bere tokitik irtendako entxufea, horitutako maindi-
reak. Ospitalera deitu zuen, nahasita. Zaintzen ari zen
gizonak miokardiopatia hipertrofikoa zuela esan zion
telefonoa hartu zion andreari, jatekoa ekartzera etor-
tzen zela hark-ezin-baitzuen-bere-kabuz-gauza-asko-

rik-egin-eta-ez-zuela-etxean-topatu-gizon-hori-bere-alabaren-aita-zela-eta-bizitzaren-txirikordak-zer-diren-hogei-urtez-elkarri-hitzik-egin-gabe-egon-ondoren-hara-non-orain-eguneko-menua-prestatzen-zion-aste-lehenetik-ostiralera-eta-catering-zerbitzuarekin-zer-egin-jakiteko deitzen zuela batez ere. Andreak deia desbideratu zuen eta telefonoa hartu zionarekin "Ramon Lasa Perez hor ospitaleratua dagoen jakin nahi nuke, mesedez", "Noren partetik?", "Zaintzaillea", "Bai, kardiologian dago, 213. gelan" elkarrizketa izan ondoren, lehenagoko buruberoa bera ote zen zalantza egin zuen lipar batez. Telefono deia pasatzeko eskatu zuen, baina ez zuen inork erantzun. Lantokira deitu zuen jarraian, eta nagusiarekin jartzeko eskatu:

- Gaur ez naiz lanera joango. Nire lehenengo senarra ospitalean da -etxean zenaren alderantziz proportzionala zen lanean otzantasunari zegokionez, eta gozaturia hartu zuen nagusia zezelka hasi zenean-. Aste arraroak izango direla aurreikusten dut; sentitzen dut, gauzak konpondu artean ezingo naiz azaldu. Nire idazmahai gaineko erretilu berdean curriculum sorta bat duzu laguntza behar izanez gero.

Konpondu, agian hori zen hitza. Konponketa bat.

Hartutako erabakiarekin indarberriturik, maindi-reak garbitzera bota zituen, ziklo motz batean, hartara ospitalera joan aurretik zabaltzeko denbora eman-go zion. Ez zion koltxoari erreparatu nahi izan, eta armairuan bilatu zituen ohe-jantzi garbiak. Perkalezkoak hautatu zituen. Burko-azal zuria bilatzen ari zenean, haien inzialak brodatuak zituen bat aurkitu zuen, perkalezkoa hura ere, Ramonen Donostiako izebak oparitutakoa. Barregarria iruditu zitzaionez huraxe jarri zuen. Garbigailua gelditu arte txukunketak egin eta mesanotxeko tiraderak zabaldu zituen morborik gabe: itxura hegoamerikarreko bikote baten ezkontza gonbidapena, errege pasteleko miniaturak (Madalenek harekin ospatzen zuen urtero, eskolan kale eginez), lehortutako marihuana buruak karrete pote batean, Cohiba puru bat metalezko estutxe batean, Dupont supizteko bat, Toulouseko famili argazki zaharrak gutun-azal batean eta hasitako preserbatibo kutxa bat aurkitu zituen.

Maskaratxoa jarrita aurkitu zuen, eskuak maindi-reen gainean, gorputzaren alde banatan, biko gela batean. Beste ohean agure bat, bi andre gazteago alda-

menean zituela, hirurak telebistari begira. Ramonek burua apenas jiratu gabe begiratu zion eta maskaratxoa kentzeko keinua egin zuen. Ixabelek geldiarazi egin zuen, eskua Ramonen eskumuturraren gainean samurki pausatuz; horrela ukitzen zuen lehen aldia zen, eta bitan pentsatu gabe gizon hura laztantzeko gogoia izateko baimena eman zion bere buruari.

- Medikua ikusten izan naiz, lasai egon; hiruzpalau eguneko kontua izango da, itolarria apaltzen zaizunean etxera bidaliko zaituzte.

Maskaratxoa kendu gabe hitz egiten saiatu zen. Egoeraren absurduaz jabetzean, indarrez apartatu zuen aurpegitik:

- Ez ezer aipatu Madaleni, asteburuan etxean izango banaiz.

Ahurra gora begira utziz itzuli zuen eskua, gero bezaladak jaitsi zituen, lotsatuta, eta hatzak mugitu zituen sotilki. Ixabelek ameto eman eta berea bertan ipini zuen. Begiradak elkartu gabe egon ziren, libre gelditutako hatz potoloekin eskugainak laztantzen hasieran, elkarri eskua fuerte hertsatuz eta askatuz ondoren, hertsatuz eta askatuz, zerbait ponpatuz bezala. Intimitaterik gabeko espazio hartan askeago sentitu zen. Ramon hiltzen ikusi nahi zuela ohartu zen, ez

ziola sufrimendurik opa. Kopetako ileak atondu eta be-
kainak laztandu zizkion, begira ziezaion.

Ramonen begiak azkar mugitzen ziren, baina biri-
kei kosta egiten zitzaien gora eta behera egitea.

- Zaude lasai -xuxurlatu zion Ixabelek.

Ospitalean eman zituen egun guztietan joan zen
Ixabel. Ospitaleko kioskoan berak ohitura zuen *Berria*
eta Ramonen etxean ikusitako *Gara* erosi zituen egu-
nero, eta ahots ozenean irakurri zizkion albiste deiga-
rriak. Goiz eta arratsalde, beti poltsan zeraman Nivea-
rekin masajea eman zion oin eta orkatiletan, hura Iña-
kiren eta Madalenen bizkar egiten ari zela pentsa-
tzeak sortzen zion ongizatea erdizka baino ez zekien
ranchera bilakatuta. Bigarren egunean ohetik jaiki eta
kafe-makinaraino joatea lortu zuen Ramonek, apenas
hitzik egin gabe, itolarria etortzen baitzitzaion. Hiruga-
rren egunean korridorean atzera eta aurrera ibili ziren,
oxigenoaren makila erdian zeramatela.

Ixabelek korridorean ezagututako gaixo eta seni-
deekin erorialdiak eta aitzinamenduak konpartitu zi-
tuen, kolpetik bere bizitza hura balitz bezala, kolpetik
bizitza berrian pozik. Ramoni ahotsa etorri zitzaion,

eta hala jakin zuen hamabost urtetik gora eman zituela jatetxe eta tabernatan jaten etxean otordu bakarra ere egin gabe, txakolina esportatzeko enpresa bat sortu zuela, bere lagun min Genaro auto istripuan hil zenean hiru egun mozkortuta eman zituela, goizeko kafea hartzen zuen tabernako andrearekin bizitzen egon zela Madalenek bospasei urte zituenean (“Eta Madalenek ez zekien ezer?”, “Nik ez diot behin ere ezer ezkutatu”), zakurra zuenetik beteago sentitzen zela eta hortik zetorkiola izena, garai batean Venezia euskaldunek arrantzatutako bale gantzarekin argiztatzeko zela, lan-bidaia batean ezagututako mexikar batekin ezkontzekotan egon zela “arazoarekin” hasi aurretik (“Mexikarra?”, “Oaxacar eder-eder bat”).

Trukean, Ixabelek lauagoa zen bizitzako pasarte deigarrienekin sartu-irten batzuk egin zituen, baina Ramonek ez zien tira egin: bakartiek izan ohi duten nartzisismo bristadak zituen, bere buruaz aparte maitatzeko beste ezer eskura ez zeukatelako akaso.

- Aspertu behintzat ez zara egin. Gauzak egin dituzu. Dibertitu zara. Jendeari lana eman diozu. Alaba zoragarri bat ekarri duzu mundura -Madaleni buruzko ezer ez zuen ia inoiz aipatzen, Ixabelen harridurarako.

- Dugu. Bera bai ona, ez gu bezala.

Barre nekatu bat egin zuten, eta bertan kabitu zen bien erru partea eta barka-eskea, edo hori uste izan zuten Ixabelek une hartan. Isilune luze baten ostean, Ramonek gaineratu zuen:

- Honezkero ezin dut gogoratu zer desio nuen.

Etixeratze-agiria eman zion medikua berriketa gutxikoa zen: hoditeria buxatuta zeukan, bihotzak ezin zuten gauza handirik egin. Perlazko belarritakoari helduta azkenean esan zuen:

- Aprobetxatu udaren luzapen arraro hau.

Ramonek zirkinik egin gabe entzun zuen, eta amaieran oroitzapen on batek bahitu izan balu bezalako barrea egin zuen.

Duina bezain basatia zen, eta Ixabelek bazekien halakoa behar zela izan bere aldamenean irauteko, beraz hark ere ez zion galderarik egin ez medikuari ezta Ramoni ere.

Aulkian eserita, ospitaleko mantala erantzita, kaleko arropak jartzen laguntzen ari zitzaiola, gerritik heldu zuen Ramonek. Hasieran Ixabeli iruditu zitzaion ohetik jaikitzen laguntzeko egin zuela, baina altxatzen laguntzeko keinua egin zionean, berarengana erakarri zuen eta bere bular mardulei beha gelditu zitzaion. Ixabelek fuerte hartu zuen arnasa eta garondoan jarri

zizkion eskuak Ramoni, gorputza batera eta bestera suabe dantzatzuz, eta mugimendu bakoitzarekin Ramonen sudurra bularrekin ukituz.

Ramonek, begiak itxita, ezpainak zabaldu eta itxi zituen.

Aldamenekoek telebista katea aldatu zutenean gelditu ziren. Alkandora lotzen eta belkrodun oineta-koak ixten lagundu zion Ixabelek. Loradendan erosten den landarearen moduan ordea, harro eta bizkor zegoena berehala apaldu eta erori zen etxera aldatutakotan.

Ixabelek han igarotzen zuen lanaldia. Botila hutsak eta ihartutako landareak kendu zituen balkoitik, limoiondoa ureztatu zuen eta egongelako mahai txikia eta bi aulki tolesgarri sartu zituen bertan, eguzkia ateratzen zenerako. Han goitik hiriak abaraska zirudien, harlauza hexagonal eta guzti. Etxe osoko kristalak garbitu zituen. Bientzako kozinatzen zuen elkarrekin adostutako gaixo menua. Bueltan ekarri zituen Ramonen etxetik eramandako ardo botila onenak, baina bakarra zabaldu zuten. Ura galtzen zuen konketa konpondu zuen.

- Nork esan behar zidan -esan zuen Ixabelek, giltza ingelesa eskuetan zuela logelara sartzean.

Ramonek ez zion begirada itzuli; sarritan egiten zuen, eta ohituta egonagatik ere Ixabel inarrosi egiten zen aldiro, lortua zuten oreka larri hura zein hauskorra zen jabetuta.

Ramon ohean egoten zen eguerdira arte, irratia entzuten. Ixabelek xaxatu behar izaten zuen altxa zedin. Egunetik egunera nekosoagoa zitzaion logelatik egongelarainoko bidea. Zenbat eta gehiago Ixabelen beharra, orduan eta esker txarrekoago bilakatu zen, baina Ixabel mespretxua jasateko bezain gaintetik sentitzen zen. Egongelako besaulkiraino laguntzen zion, telebista pizten zuen; elkarren ondoan bazkaltzen zuten. Batzuetan, tarte horretan, Madalenek mezuak idazten zizkion aitari buruz galdetuz eta bere egunerokoaren berri emanez. Ixabelek parte pasatzen zion Ramoni, eta hiruko elkarrizketaren bat bultzatzen saiatzen zen:

- Madalenek galdetzen du ea zer moduz esnatu zaren gaur; esan diot, ongi; berak hagineko minez jarraitzen duela, txanda hartuko diot dentistarenean. Ea *Saber y ganar* ikusten ari zaren galdetzen dit. Igan-dean partidua ikusiko duzuela, akordatzen ote zaren.

Ramonek telebistari begira jarraitu zuen, galderak Ixabelek berak erantzungo zituen lasaitasunarekin. Aste haietan guztietan ez zitzaion esateko ezer bururatu. Inoiz ez.

Morfinaren eraginez botagura sentitzen zuen maiz. Horrelakoetan hotsak ateratzen zituen eztarriarekin, zurbildu egiten zen, eskuak gogortzen zituen. Ixabelek eskua kopetan jarri ohi zion eta Ramonek eskertu egiten zuen. Ahoko lehorra arintzeko limoizko makilatxoak ematen zizkion, Ramonek tarte batez miazkatu ondoren, tu eginez lurrera jaurtitzen zituenak eta Ixabelek espanturik gabe jasoko zituenak.

Goizean Iñaki gabe esnatzera ohitu zen Ixabel. Gosaritan itzuli ohi zen zakurra paseatzetik, eta ordura arte elkarrekin egiten zuten hura bakarrik egiten hasi ziren. Gatz eta gantzik gabe jaten hasi ziren, txahalaren eta oilaskoaren partez indioilarra eta untxia, hartara hirurentzako adina prestatu eta Ixabelek biharamuneko afaria eginda eramaten zion Ramoni.

- Gaur ez du apenas mokadurik jan. Edozein egunetan atea zabaldu eta seko aurkituko dut. Beldurra ematen dit.

Supermerkatuko orgatila erdia zakurrarentzako pentsu eta gutiziek betetzen zuten. Hondartzara pasatzera joaten zirenean Oso zuten gidari, eta bere barrabaskeriak konpontzera ohitu ziren, izan beste zakurren batekin lardaskan hasten zelako edo autoko eserlekuen betegarria ateratzearen plazera deskubritu zuelako. Egunean zehar etxera sartzen ez zen arren, gauean etxe barrura sartzen uzten zioten, eta lñakiren oinetan egoten zen, sofan. Laster, haien ohearen oinetan lo egiten hasi zen. Tarteka Ixabel esnatu egiten zen Osoren arnasa sarkorrarekin, eta halakoetan Madalenen ohera joaten zen gaua amaitzera. Zakurra haiekin bizitzera eramán zutenetik, asteburuan zinemara joan ordez mendira joaten hasi ziren, aspaldiko ohitura berrituta.

Egunetik egunera azkarrago hiltzen hasi zen Ramon. Appetitua galdu zuen lehenik. Ondoren ohetik jaikitzeo indarra. Ixabelek dutxatzera behartzen zuen odol-zirkulazioari on egiten ziola argudiatuz, eta Ramon dutxatik ateratzen zenerako Ixabel oihala zabaldua egoten zen. Tarteka bere buruarekin hunkitzen zen halako gauzak egiteko gai zelako, ez zuen be-

rehala usteko, baina Ramon zainduz bere burua maitatzen ikasten zuen. Hezur eta azal izanagatik ere, gorpuzkera ederra sumatzen zitzaion oraindik, gaixotasunak guztiz garaitzea lortu ez zuen planta, neurriko zakila eta ile-mataza hanpatua guztiaren epizentro.

Behin, dutxatik irtetean, Ixabelek banketan eserarazi zuen, eta lehendabizi azkazalak eta ondoren ilea moztu zion. Berrogeita hamar urteak gorabehera, ez zuen apenas urdindutako ilerik, baina ez zegoen gazetako adats beltz distiratsuen arrastorik ere. Ordurako hitz egiteari utzia zion, egunean bizpahiru hitz baino ez zituen esaten, eta petralkeriak guztiak. Egun horretan aldiz, Ixabelek juxtu ile-lehorgailua piztu zue-
nean esaldi luze bat esan zuen, entzuteko itzali zue-
nean bukatzen harrapatu zuena. “Milesker” bat erreskatatu uste izan zuen, baina berriz galdetzeko tentazioari eutsi zion, zakarkeria bat etor zekiokkeen-eta bueltan; lehorgailua piztu zuen atzera, ustezko esker on adierazpenak bakea emanda.

Berriz ospitaleratu zuten egunean bertan hil zen. Ixabelek anbulantzia bat eskatu zuen eta eskutik emanda egin zuten bidea. Agur esateko garaiz iritsi

zen Madalen Bordeletik. Hogeï urte eta gero hirurak elkarrekin gela batean zeuden berriro ere, haietariko bat gorpu. Madalenek, negar intzirika, mantalaren lepo azpitik sartu zizkion eskuak zilbor pareraino eta bere gainean erdi etzanda gelditu zen Ixabelek ilea laztantzen zion bitartean:

- Aita -esan zuen Madalenek-. Aita -jarraitu zuen, behin eta berriz, hiztegitik ezabatu beharko zuen hitza zela jakitun, hura azkenekoz dastatuz.

Gizon hura bizitzara eustearren jarritako ingeniari-tza hura zaratarik atera gabe eraman zuten erizainek. Metal, tutu eta orratzez biluztu zutenean Ixabelek azkeneko aldiz begiratu zion: bando oneko norbait ziru-dien, gerrak gazteegi hildako norbait. Kopetako ileak txukundu zizkion eta bular parean tolestu zion maindi-rea.

Korridorean Iñaki zeukaten zain. Madalen besarka-tzen ari zen bitartean inguratu zitzaïen medikua:

- Borrokan aritu da azkenera arte -esan zuen-. Baina ez zuen konponbiderik. Bere azken hatsera arte zaindu duzue, eta primeran gainera. Ezin da gehiago eskatu.

Itsasoan zabaldu zituzten errautsak udazkeneko goiz eguzkitsu batean. Haiak hirurak, Oso eta Ramonen hiru lankide ohiren artean egin zuten. Lankide batek eskerrak eman zizkion bere bizitzako unerik makurrenean, dena galdutzat jo zuenean, denek galdutzat jo zutenean, babesa eman ziolako. Beste batek bere alproja izaera eta eskuzabaltasuna gorai patu zituen, “Gizon on bat izan zara” esanez bukaeran. Madalenek irakurri zuen testuan eskerrak eman zizkion: “Konturatu gabe, izan zitekeen aitarik onena eta ausartena” izan zelako, “Helburutzat hartu gabe, ikas zitezkeen gauzarik garrantzitsuenak” irakatsi zizkiolako.

Kotxera bidean Ixabelek kontu eske hasteko gogoia izan zuen; aldiz, eskutik heldu zion eta hala egin zuten gorako bidea, ote zuri eta txilar artean, Madalenek burumakur eta Ixabel natura erauntsi hura begietsiz.

Gau hartan Iñaki luze egon zen Madalenekin hizketan, bere logelan.

- Ongi dago? -galdetuko zion Ixabelek gero.
- Egon daitekeen bezain ongi eta are pixka bat hobeto -lasaitu zuen Iñakik.

Segidan itzuli zen bizitza arrunta tanke baten moduan bere ordutegi, betebeharrak, urtaro eta fakturekin. Ixabel lanera itzuli zen eta bere hutsunea bete zuen

neska gazteari finikitoa eginez hasi zuen ekinaldi berria. Madalen gelakide batekin Port-au-Princera joan zen Gobernu Kanpoko Erakunde baten proiektuan hiru hilabetez lagundu eta gero Haiti eta Dominikar Errepublika korritzera. Iñakik zakurra paseatzera eramaten jarraitu zuen, eta berak hala nahita, asteburuetan mendira joatearen ohiturari eutsi zioten, tarteka gaua aterpetxeren batean emanek. Zinema zaletasuna etxean ikusten zituzten filmekin asetzen zuela esaten zion Ixabeli, honek Donostiara, “zibilizaziora”, arratsalde pasa, “opio bila” joateko proposamena egiten zionean. Aste Santuan, Iñaki Bachimaña ertzetik paisaia jauresten ari zela, Ixabel, Eguberritan oparitan jasotako mendiko botei begira, ohartu zen betiko bera izatera itzuli zela. Badira norbera aldarazten duten bidaiak, baina badira kontrakoa lortzen dutenak ere, pentsatu zuen.

Maiatzean Iñaki institutuko ikasleekin Saloura joan zen astebete pasatzera. Ixabeli ez zitzaion gustatzen etxe hartan gauak bakarrik ematea, inoiz entzun gabeko animalia hotsak entzuten hasten zen eta ohi baino beranduagora arte egoten zen sofan telebista-

ren aurrean, lohasman. Oso bere oinetan jartzen tematu zen eta bere arnasak esnatu egin zuen gauaren erdian. Zakurrak logelaraino jarraitu zion, eta han, etzan egin zen lurrean, ohi zuen gisan. Ixabelek loa galdua zuen, eta Madalenen logelara joan zen zakurra atzetik zuela. Sukaldean itxi zuen, baina atea harrazkatzen hasi zen, uluka. Goizaldeko hirurak izanagatik ere Iñakiri deitu zion zer egin jakiteko, baina itzalita zuen sakelakoa. Azkenean bere logelara itzuli zen, loak garaitu arte irakurri zuen, eta goizean zakurra aldamenean zuela esnatu zen. Aldameneko biribilguneraino eraman zuen kaka egitera, eta etxera ekarri zuen bueltan, paseorik gabe, argi gera zedin bera ez zela Iñaki.

Ramonen herentzia harekin petralduta igaro zituen egunak. Lanetik bueltan, kooperatiban tomate landareak erosi eta baratzean emango zituen ordu batzuk. Lurrak sosegatu egiten zuen. Autoa etxe parean aparkatu bezain pronto entzun zituen zaunkak. Oso biribilguneraino eraman zuen eta etxerako buelta bide luzeago batetik egin zuen, pixka bat ibil zedin. Ramonen etxetik ekarritako limoiondoarekin akordatu zen orduan. Etxola ondoko bazter batean abandonatuta, konturatzerako ernamuindu egin zen. Lorontzitik atera

eta lurrean landatuko zuen hori ere. Etxera iritsitakoan arropa zaharrak jantzi zituen. Bi tomate ilara aldatu zituen aurrena. Hogeita hamar zentimetroko diametroko eta beste hainbesteko sakonerako zuloa egin beharko zuen gutxienez limoiondoarentzat. Oso Ixabeli itsatsita zegoen, mingaina kanpoan. Aitzur txikiarekin ekin zion, baina berehala aitzur txikia lurrera bota eta handiaren bila joan zen etxolara, zakurra atzetik zuela. Eskularruak jantzi zituen. Zulora itzuli zenean Oso lurrarekin aztarrika ari zen, hatsanka. Lehenengo Ixabel aitzurkatzen ari izan zen zuloan eta gero aldatu berri zituen tomateen inguruan. Aitzurraren puntarekin bultzatu zuen fuerte eta zaunka egiten hasi zen. Ixabelek orduan pilota bat ekarri zuen etxe barrutik, eta ahalik eta urrutien botatzen hasi zitzaion bakean utz zezan, baina aldiro etortzen zen pilota zulo ertzean uztera, maitemindu begiradarekin. Uhala jarri zion eta terrazako barandara lotuta utzi zuen. Negar mehea egiten zuenez Ixabelek lur azpitik ateratako harri kozkorrak jaurti zizkion isil zedin:

- Ergela! Ergel alaena!

Aitzurra eskas gelditu zitzaionean etxolara itzuli zen puntadun palaren bila. Izerdi, zaunka eta negar artean, bera kabitzeko moduko zuloa egin zuen.

Belar moztu berria

Lanean nintzela deitu zidan Arantzak, bizilagunak, galdetzearren joan ote nintekeen haren etxera. Aitagi-narrebak hots egin omen zion, esanez zorabiatu egin zela Amets zaintzen ziharduen bitartean. Baina kontatzen ari zitzaidana gorabehera, Arantzak ez zirudien larriturik.

- Orain okupatuta nago -esan nion-, baina ordu eta erdi barru irits naiteke horra.

- Lasai. Ez da premiazkoa.

- Ordu eta erdi barru iritsiko naiz -errepikatu nion-, oraintxe bisita gidatu bat egin beharra daukat.

- Ez, ez etorri. Moldatuko naiz. Zer esan behar nizun, a bai: beste momentu batean emango dizkizut zuretzat gordeta ditudan aldaxkak.

Bixente bidaian zegoenetan Saran bizi zen Arantzaren aitaginarreba arduratzen zen haien semea haurtzaindegitik jaso eta etxera eramateaz. Larritu egin nintzen, edozer gerta zekioken. Behin zerbait eskatuko eta nik ezin eman. Behingoz ni izan Arantzari laguntza eman ziezaiokeena eta aukera hura alferrikaltzen utzi. Arratsaldero ordukako gida-lanak egiten

nituen museoan, eta egun hartan irakasle talde bat egokitu zitzaidan. Arantzak harridura erakusten zuen lanean ari nintzela esaten nion aldiro, hori ez zitzaidan gustatzen. Irakasleak deskontua egin niezaien txartelak erakusten ari zitzaizkidan, lankideari erregutu nionean txanda aldatzeko; larrialdi bat zen, behar izanez gero ni konponduko nintzen zuzendariarekin. Autoa hartu nuen. Ordu laurdenean iritsiko nintzen Arantzaren etxera, aipatutakoa baino ordu eta laurden lehenago, bizitza osoa baldintza zezaketen hirurogeita hamabost minutu. Bidean nintzela esateko deitu nion, baina ez zidan telefonoa hartu. Aitagarreba irudikatu nuen lurrian aho zabalik, Ametsen eskutxoak aitorenaren betaurrekoekin jolasean edo putzuan plisti-plastaka, horrelakoetan pixa egin ohi baitute gainean.

Ez nuen aitagarrebarekin sekula hitzik trukatu, barnealdeko gizona zen eta biotako inori ez zitzaigun besteari esateko ezer bururatu, nahiz eta maiz pasatzen zen bilobarekin gure etxe paretik, eta nik Ametsi beti kasu egin. Norbaitek aurkezpen ofiziala egin arte hitz egiteko zain egoten den horietakoa dirudi eta nik ez dut izaten arazorik gisa horretako arauetara plegatzeko. Kalparrez beteriko ile zuri trinkoa du, gorputz gihartsua; etxeko barazkiz beteriko kaxekin ateratzen

ikusi izan dut Arantza eta Bixenteren etxeko pasabidean aparkatu ohi duen furgonetatik. Behin haren gezeziak ekarri zizkigun Arantzak, baita intxaurrak ere, oraindik hor nonbait daudenak, guk ez daukagu-eta egonarri nahikorik gauza hain txikiak zuritzeko. Baina hitzak trukatu, inoiz ez. Gizon atsegina dirudien arren. Bixentek hildako amaren antza izan behar du ezinbestean, soila eta guria baita.

Azeleragailuari sakatu nion, baina ilara luzeak zedula adierazten zuten panelek, hondartzazaleen gorputzez eta eguzkitakoen hagatxo egindako tapoia. Hondartzak berdindu egiten gaitu, hara iristeko moduak bereizten, esan ohi zuen Igorrek juramentuka hasi aurretik.

Berriro hots egin nion Arantzari, baina ez zuen erantzun. Aldaxkekin akordatu nintzen, zerenak ote ziren. Ez zuen asko inporta, baina urduritzen hasia nintzen. Bizilagunak ginenetik berrogeita hamarretik gora eman zizkidan, eta ez nuen lortu bakar batek bizirauterik. Diruaren landaretik sorta bat eman zidanean bezala, barruko landareetan dagoen eta gogorrenetariko bat. Igorrek eta biok lana topatu ezinik boladatxo generamanez, amuleto gisa, hala esan zidan. Barrez hastean karaka egiten zuen Arantzak, polita

zen. Baina aldi hartan ez dakit zergatik egin zuen barre, kutunaren txorakeriak lotsatuta edo kutunarekin edo gabe txorakeria zelako gutako inork lana aurkituko zuela pentsatzea. Oso txiki sentitzen nintzen bere parean.

Hiru kilometroko auto ilara. Amets aitonaren lepo gainean jesarrita, zaharraren azken arnasak trabatzen. Izerditan nituen eskuak.

Arantzak deitu zidanetik ordubete pasata iritsi nintzen, egoeraren kargu hartzeko itxaropen txiki batekin oraindik. Atea jo nuen, baina inork ez zuen zabaldu. Sartu egin nintzen. Arantza eta Bixenteren etxea beti zegoen jasota eta usain oneko. Hain diferentea zen haienean sartzea edo gurean sartzea. Gurean lapurrak egon zirela zirudien batzuetan. Haienean neurritsua zen dena, baita ordena bera ere. Hala zegoen egun hartan, nahiz eta telebista ohi baino ozenago entzuten zen, marrazki bizidunak frantsesez. Kaixo!, egin nuen garrasi korridorea pauso zuhurrekin zeharkatuz, arratsalde on!

Egongelan aurkitu nuen Amets txikia, musika triangelu batekin telebista kolpatzen. Non dago aita-txi?, galdetu nion, eta hark hortz bakarreko hortzoi bustiak erakutsi zizkidan begiak ñarrotuz. Non dago

aitatxi?, baina umetxoak irri egin zidan aho-puzker bartzuk oparitzuz eta telebista grina handiagorekin joz. Izutu egiten ninduen ate itxien atzean aurki nezakeenak. Buruz korritu nuen etxea eta sukaldean egon behar zuela deduzitu nuen, jendeak ura edaten du ondoezik sentitzen denean. Pote baten barruan sartuta zegoen batidoraren aldamenean, banana eta sagar azalek sukalde zuri eta aratzari alaitasuna eransten zioten. Supituan oroitu nintzen lorategian ganbarahuste batean erosi eta zahar-berritutako banku bat zegoela, Arantzak aldiro esaten zidan arren izena oroitu ezin nuen zuhaitzen atzean, eta harantz abiatu nintzen aurki nezakeena irudikatuz: bankutik erorita egon zitekeen lurrean ahuspez, edo hantxe segi zezakeen eserita lepoa zintzilik eta ahoa zabalik, tonurik gabe muskuluetan. Baina han ere ez zegoen zahar alu hura: banku gainean pare bat dekorazio aldizkari eskuz pintatutako harri baten azpian.

Etxe barnera itzuli nintzenean Ametsen gelara jo nuen zuzenean. Han ere arrastorik ez: eguzkiak argitutako zimurrik gabeko ohean peluxeazko hartz urdin handi bat.

Aldameneko gela Arantza eta Bixenterena zen. Ez nintzen behin ere sartu eta ikusmin handia nuen.

Atean jo nuen, bi eta hiru aldiz. Isiltasuna. Zabaldu eta iluntasuna kontrako eztarritik joan zitzaidan: leihoak eta leiho-ateak itxita zeuden, usaina ez zen lehengo bera, bazuen zaharmindutik, egurastu gabekotik, hezetik. Hasieran desengainu txiki bat izan zen, baina ez zen hor bukatu. Norbait zegoen han. Ohean. Haragi kolpea sentitu nuen. Arnasa hartzen zuen. Erregulariki. Hurbildu eta zaharra ikusi nuen desegindako ohearen gainean larrugorritan. Bere azalak iluntasuna argitzen zuen. Ez nuen hain gertutik inoiz ikusi edade hartako gorputz bat biluzik: bularralde zabala, sabelalde puztua, ile gabeko azala, emakume gorputz bat zakilarengatik ez balitz. Leuna, garbia, distiratsua.

Usainari gustua hartzen ari nintzaion, beti gertatzen zitzaidan. Arnasak suabe mugiarazten zion gorputza eta gauza oso bereziak sentitu nituen hari begira. Une hartan ez nuen premiarik sentitu ezer egiteko, ezta ikusten ari nintzena ulertzeko ere, han egon, begira, begira jarraitzea zen kontua. Lurrean zeuden arropak zapaltzen ari nintzela ohartu nintzen trabatuta nituela oinak, eta anabasa konpontzeko makurtu nintzenean, enkajea ukitu nuen, kotoi trauskilezko galzontziloarekin eta tergalezko alkandorarekin nahasita zegoen bularretakoa.

Handik alde egiteko presa sartu zitzaidan. Nahigabeen ostiko bat eman nion galtzari eta gerrikoaren berriak zarata atera zuen. Zaharrari arnasaren erritmoa aldatu zitzaion, baina ez zen esnatu. Atea itxi nuen zaratarik egin gabe. Amets telebistako marrazkiekin hizketan ari zen. Orduan entzun nuen hoditeriaren kirrinka. Etxearen soinua kolpetik aldatu zen, kirrinka hark mugarria jarri zuen. Lehen, nik entzuten ez nuen arren, dutxa hotsa zegoen; ondoren, dutxa hotsa falta zen. Entzuteari utzi nionean soilik entzutea lortu nuen hotsa zen.

Korridorea zeharkatzea falta zitzaidan, egurra aieneka hasten zen pauso bakoitzeko. Bainuko ateak itxita jarraitzen zuen, paretik pasa nintzen, eta kristalezko apal gainean uztean poteek ateratzen zuten zarata entzun nuen. Oso apaina zen Arantza. Edozein unetan irten zitekeen. Egongelatik igarotzean Amets kontu kontari hasi zitzaidan, mahaia marakarekin kolpatuz festara batzeko eskatzen zidan. Muxuak bidali nizkion eta sarrerako atea karrankarik gabe ixtea lortu nuen. Lursaila zeharkatu nuen eta korrika batean joan nintzen nire etxera. Ohean etzan nintzen, dardarka. Ezin nuen gorputz hura gainetik kendu.

Biharamunean hots egin zidan:

- Oraintxe ikusi ditut atzoko dei galduak, sustoarekin dendan ahaztu nuen telefonoa eta gaur berreskuratu dut.

Nik inoiz erosiko ez nituzkeen arropak saltzen zituena denda batean lan egiten zuen. Bezperako ahots bera zuen, arina eta argia.

- Zer moduz dago zure aitaginarreba? -galdetu beste erremediorik ez nuen.

- Aitatxi? Zezena baino indartsuago. Gaur arratsaldean zuen etxetik pasako naiz aldaxkekin, ongi iruditzen bazaizu.

Aspaldi gainditutako kontua balitz bezala bideratu zuen gaia. Niri etxea txukuntzeko aitzakia eman zidan, eta horretan eman nituen hurrengo orduak, baina hesia zabaltzen entzun bezain pronto garbitu gabeko zoko guztiez akordatu nintzen. Zuri nuklearrez jantzita etorri zen Arantza, Amets besotan eta aldaxka sorta paperezko poltsa batean. Bero zegoen eta edateko zerbait nahi ote zuen galdetu nion, garagardoak gogotan.

- Gasdun urik ba al daukazu? -galdetu zidan, mesede handi bat eskatzen duenaren larridurarekin,

nahiz eta guk ez genuen halakorik edaten, jakin behar luke-. Eskaner bat egingo diote badaezpada, baina ez omen dago arduratzeko motiborik. Gainera, ondoezik sentituz gero, Bixenteren arreba aitaren aldamenean bizi da, neskazarra da.

- Bero handia zegoen atzo, agian hori besterik ez zen izan.

- Bai, baliteke. Dena den Bixenteri ez diogu deus esango Nantesetik itzuli arte, aitaz abusatzearen sentipena du, ezagutzen duzu. Nahiz eta bera poz-pezik etortzen den Amets zaintzera, andrea hil zenetik biloba eta baratzea, hori da bere bizitza!

Iturriko ura eskatu zidan, izotzarekin. Ezin nituen ahaztu zakilaren distira eta bularretakoaren enkajea. Azkenean garagardo bat hartzera ausartu nintzen, erdia basora isuriz eta beste erdia hozkailuan utziz, kozinatzeko, esan nion.

Amets mahai gainean jesarrita zegoen eta begiak biltzen zituen begiratzen nionean, besoak gora eta behera astintzen, algaratxoak egiten. Kosta egin zitzaidan kar berarekin erantzutea. Arantzak lurrera jaitsi zuen haurra, aldaxkena azaltzen zidan bitartean, eta katuka eginez desagertu zen sukaldetik.

- Ba al daukazu bihurkin luzeren bat? -galdetu zidan Arantzak.

Igorrek erremintak gordetzen zituen arasara joan nintzen, anabasa handia zegoen eta ez nuen hura ikusterik nahi. Arantza nire atzetik etorri zen jarraibideak ematen:

- Hortentsiarenak dira, landare gogorra da eta oso ongi egiten da hemen. Orduan, aldaxkak uretan mantendu landatu arte, hostoak erditik moztu, bihurkinarekin zulo bat egin lurrean eta aldaxka sartu, batetik bestera hogeita hamar zentimetro utzi -hitz egiten zuen bitartean lepokoa hatz erakuslean kiribiltzeko ohitura zuen Arantzak-. Oso erraza da, benetan. Urte pare bat barru hortentsiazko korridore eder bat zeharkatu beharko duzue etxera sartzeko.

Gustatu egin zitzaidan etorkizun hura irudikatzea.

Konturatu nintzenerako urez beteriko lorontzi batean sartzeko presa emana zidan. Aurkituko ez nuela jakinda, bilatzen ari nintzen itxurak egin nituen eta azkenean plastikozko botila bat moztu nuen aldaxkak bertan sartzeko. Mahaiaren erdian ipini nituen. Arantzak konforme zirudien.

- Eta Igor non dabil? Aspaldian ez dut ikusi? Ongi al dabil? -galdetu zidan, erantzunari adi.

- Lanean. Orain kamerari dabil. Eta asteburu bazuetan lagun baten tabernan, zerbitzari. Ordu asko eta diru gutxi, badakizu nola den hori. Goizean goiz alde egin eta iluntzera arte ez da itzultzen.

Ez nion esan maiz lana bukatu eta askoz beranduago itzultzen zela.

- Agian ez dira zuen bizitzako lanak, baina gaur egun bada zerbait. Pozik egongo zarete. Kapritxoren bat eman behar zenioke zure buruari, merezi duzu -hurbilagotik errepikatu zuen-: Merezi duzu.

Inarrosi egin nintzen. Ez dakit zer ikusi ote zuen oker nigan horrelakorik esateko.

Arantza etxetik joan zedin gogo bizia sentitu nuen orduan, dena zikinago ikusten nuen bera hemen zegoenean, nahiz eta berarekin hitz egiteak mesede egiten zidan, lasaitu egiten ninduen, gauzak nola egin eta nola hartu ikasten nuen berari entzunez eta begiratu.

Amets katuka heldu zen gure oinetara. Aulkiari helduta tente jarri zen. Arantzak arropak astindu zizkion eta besotxo gizona mugiarazi zion agur egin zezan. Joan bezain pronto hasi nintzen lurra garbitzen.

Biharamunean Igorrek sukaldeko mahai gainean utzitako aldaxkengatik galdetu zidan gosaltzen genuen bitartean, lore zentro dotorea osatzen zutela Coca-Cola botilaren barruan. Barre egin genuen. Goizetan zen ongien konpontzen ginen garaia, elkarrengan gehien sinesten genuen garaia. Mahai gainean zegoena baino bihurkin luzeago bat ekarri zidan.

- Gaur lehenago etorriko bazina hondartzan afal genezake -eskatu nion.

- Ahaleginduko naiz.

- Oilasko ogitartekoak egingo ditut?

Gero larrutan egin genuen sofan.

Biharamunera arte ez nuen ikusiko, banekien.

Behin baino gehiagotan tentatuta egon nintzen arren, ez nion zaharraren istorioaren berri eman, indartsu sentiarazten ninduen eta niretzat bakarrik gorde nahi nuen birjina, animalia kume bat eskuen artean edukitzea bezalako zen: hura babestuz babes-tuta sentitzen nintzen.

Goiz hartan aldaxkak landatzera egin nuen, Arantzak esan bezala. Gure etxera sartzeko bospasei metroko hartxintzarrezko bidexka dago, eta alboetan bellarra. Atearen aldamenean kristala, papera eta plastikoa birziklatzeko kaxa bana, eskuarki gainezka. Agian

hura izan zitekeen hurrengo egitasmoa: txoko hura txukundu, hiru kutxak bizilagunena bezalako egurrezko handiago batean sartu eta bide batez auzoen esamesak saihestu. Edo mahaia eta bankuak lixatu eta bernizatu, eguzkitako bat erosi, jardinera hutsak berriro bete.

Hartxintzarrezko bidetik hogeitazentimetrora aldatu nituen, belar haziaren artean. Bihurkina erraz sartzen zen lurrean, eta baita landarea ere.

On egiten zidan belarretan oinutsik ibiltzeak eta eskuak lokazteak. Garaztailuaren ahoa armiarma sareek josita zeukaten, kolorea eguzkiak janda zegoen. Iturrian garbitu nuen, antzinako berdea bizitu zitzaion, eta bi aldaxka ilarak ureztatu nituen. Ordu erdian amaituta zegoen lana. Fruta arbolen bat ere landa genezakeen, behar bezalako sarbide bat izan behingoz. Uda hura ezberdina izan zitekeen, inoiz baino eskurago zegoen.

Lehen begiratuan ez zirudien deus egin nuenik, baina neuk ezagutzen nuen egindakoaren munta: bihiru urteren buruan zein koloretakoak izango ziren galdetzea ahaztu zitzaidan hortentsia erraldoien arte-tik igaro beharko genuen gure etxera sartzeko, sinestezina zirudien.

Noiznahi birsortzen nuen egun arraro hura, biziotsu batek nola. Zirrara sortzen zidan aldiro ikuskari hura gogoratzeak, bizirik sentiarazten ninduen eta horregatik iraurarazi behar nuen. Lanean, bisiten artean egiten hasi nintzen, baina baita erosketak egiten nituen bitartean ere, eta nire unerik maiteenean, gaueko azken zigarroa erretzen leihotik begira nengoela: usainaren ñabardura guztiak birsortu, biluztasun hura, biluztasun arraro eta eder hura, parpailaren ukia eta ondorengo dutxa hotsa, higuina eta lilura. Batzuetan kosta egiten zitzaidan han egon nintzela sinestea, eta halakoetan eguna goitik behera berregiten laketzen nintzen, poliki, Arantzaren etxera sartu nintzen uneak ezustean harrapa nintzan beste behin ere, kitzikapena berrituz: gorputz hura, bien arropen ebidentzia, ur hotsa. Konpainia handia egiten zidan sekretua zen.

Aste haietan behin baino gehiagotan ikusi nuen Arantzaren aitaginarreba Ametsekin paseatzen. Uniformea jantzita museora nindoan batean, etxe parean aurkitu nituen, Amets gure etxeko hesiari helduta zegoen. Lipar batez aurrez aurre begiratzeko kuraia bildu nuen. Bizarra ongi egina zeraman, kalpar haiek

bihurri itxura ematen zioten, ohartu gabea nintzen begi urdinak zituena eta hirurogeitaka urte izanagatik ere, hortzeria ona. Erdi xuxurlan hitz egiten zion Ametsi, muturra estutuz irriak irten bezain agudo. Zerbait esan nahi nion baina ez nekien zer. Aldi hartan, lane-ra bidean, egun hura gogora ekartzen ahalegindu nintzen, pisuzko arrazoi bat behar nuen-eta aurrera jarraitzeko, baina geroz eta maiztuago zetorkidan, usain mordoilo bat, distirarik gabeko gorputza, eta ordurako ezustean harrapatzen ez ninduen hoditeria eta burdin hotsa. Gero eta maiztuago, irudikapen hark nigan ezer pizten ez zuten egunak etorri ziren.

Sanjuan egun bezperan Arantza eta Bixente etorri zitzaizkidan, aterpean genuen egurra sutarako balia ote zezaketen galdezka. Urtebete igaroa zen atea eta altzari zaharrak etxetik atera genituenetik, baina denbora harta guztian ez genuen haiek hondakindegira eramateko beste indar bildu. Mesedea egiten ari zitzaigula bazekien arren, mesede eske bezala egin zidan eskaera Arantzak. Bixentek etxera sartu zuen furgoneta eta hiruron artean kargatu genuen. Sua egingo zuten etxean. Udaren etorrera ospatuko zuten.

Urte hartako txar guztia erreko zuten. Txandaka hartzen zuten hitza egingo zutena esateko. Harro zeuden, dutxatu berri, udatiar. Nik ere txandaka egin nien irribarre. Kosta egiten zitzaidan begirada apartatzea Arantzaren kamisetak estaltzen ez zuen sujetadore zatitik. Kafea eskaini nien eta etxe atarian hartu genuen, zutik; Igor lo zegoen oraindik. Iluntzean etxetik pasatzeko gonbita egin zidan Bixentek, joateko Igor eta biok; baina luzamendutan ibili nintzen.

Altzariak soilgunea utzi zuten egondako tokian, kukurutxez beteriko lauki-zuzen bat.

Igorrek trastez galdetu zidanean, bizilagunek eraman zituztela esan nion, gonbidapenarena aipatu ere egin gabe. Aurreko udatik belarra moztu gabe zegoen, eta banbuek berez handik ikus zitezkeen egun-senti eta iluntzeak hondatzen zituzten. Belarra mozteko eskatu nion Igorri eta ideia harrigarriki ona iruditu zitzaion. Igorrekin ez zen inoiz jakiten noiz ari zen ironiatik eta noiz ez, eta larrituta, zain gelditu nintzen, baterako zein besterako prest. Etxolatik arropa zaharrak eta belarra mozteko betaurrekoak jantzita atera zenean lasaitu egin nintzen. Egun berezia zela eta gauean itsasoan bainatzera joan beharko genukeela esan nion, barrutik garbitzera. Zergatik ez, erantzun

zidan etsita, eta makina piztu zuen jarraian. Zaratak ongi sentiarazten ninduen, baita Igor, mahukarik gabeko elastikoarekin, gure etxearen alde lanean ikus-teak ere.

Leihotik begira gelditu nintzaion, halako betetasun bat bularraldean. Hamaiketakoa prestatu nuen, ogia, txorizo frijitua eta gazta. Leihotik hots egin nion, baina ez zidan entzun. Orduan jabetu nintzen ez zela aldax-kekin gogoratuko, belar luzearen artean galtzen ziren eta ez zituen ikusiko. Baina ez nion deiadar egin eta ez nintzen joan, begiratu ere ez nuen egin.

Hozkailutik bi garagardo lata atera eta erretiluan jarri nituen. Igorrengana hurbildu nintzenerako sarras-kituta zeuden hortentsiak. Besotik oratu behar izan nuen han nengoela kontura zedin. Arantzari zer esan pentsatu beharko nuen. Buruarekin mahai gaineko erretilua seinalatu nion. Pozik jarri zen. Itxura ona zuen uda hark.

Urtebetetze festa

Izadik kirolen bat egin behar lukeela esan zidan irakasleak kurtso amaierako bileran, “barruan duen indarra ezagutu”, “beste jende mota batekin egon”, “harr eman berriak egin”, “autonomia”. Horrelakoak eta gehiago esan zituen irakasleak, urtero legez. Harritu plantak egin nituen, baina banekien. Bere gainean egoteko ohitura neukan, onena hori zela uste nuen, edo beharbada ez nekien, ez nengoen seguru. Hainbeste desio izan nuen umeaz ahalik eta gehien gozatzeari. Aurretik ez nuen ez ezer ez inor luzaz zaindu, eta ematen zuena baino konplikatua zen, maitatzea baino askoz zailagoa. Asteburuak, oporrak, gure egunak... unitate didaktikoen segida bat balitz bezala antolatzen ohitura nengoen, azken urtean ordea nekaz nengoen, eta, agian horregatik, gure arteko harremana okertzen hasi zen.

Uda hartan, piragua ikastaro batean apuntatu nuen bere borondatearen kontra.

Klub atariraino laguntzen nuen eta bukatzean itzultzen nintzen bila. Bi ordu haietan egin nahi behar nituzkeen gauza guztietan pentsatzeak itolarria sor-

tzen zidan. Askatasuna beharrean, tristura eta ezinegonak sentitzen nituen. Izadi han utzi, aparkatu eta Santiago auzoko kafetegi batera joaten hasi nintzen. Han, egunkaria irakurriko nuen aspaldiko partez, edo besterik gabe te bat hartuko nuen eguzkipean. Baina ezin izaten nion eutsi, eta ibaira itzultzen nintzen. Banku batean eserita egoten nintzen uretara begira, piraguetan zeuden hamarnaka haurren artean nirekin bila: beti zegoen taldetik aparte, salbuespenik gabe, nahiz eta ez nekien benetan hala zen edo nire irudipena zen.

Besteetan bidegorrira joan eta, gehiegi urrutiratzeko beldurrez, atzera-aurrera ibiltzen nintzen. Ordu-ra arte ez nuen bazter hura ezagutzen. Ezkerrean etxe txuri-gorri txikiak, parean fabrikak eta eskuinean Irungo etxe orratzak. Baina ingurua bakean utzi eta erre-kari bakarrik erreparatuz gero, leku basati bat da aurrean daukazuna, behin eta berriz joan eta behin eta berriz gauzak sentitzeko moduko leku bat. Nonbait entzuna nuen, antzina, mugimenduan zegoen urari begira jartzeko gomendatzen zirela triste zeuden emakumei, mugimendu hark barruko sentipen txarrak askatuko zizkielakoan. Nolanahi den ere, espero gabeko

ñabardurak aurkitu nizkion errekarri: padura usaina eta lupetzaren misterioa deskubritu nituen.

Azken egunean Izadik gutun-azal bat erakutsi zidan, bila joan nintzaionean.

- Claudiak bere urtebetetze festara gonbidatu nau. Bihar.

Izurde bat ageri zen gonbidapen txartelean; atzealdean eskuz egindako mapa bat, puntu gorri batekin, kalearen izena eta eguna, "ekarri bainujantzia", espainolez idatzita.

- Nor da Claudia?

- Lagun bat.

Leioa jaitsi eta deiadar egin zuen:

- Claudia!

Bisera zeraman neskatila batek besoa altxatu zuen urrunean. Izadi baino altuagoa eta gizenagoa zen.

- Utzi dit! -oihu egin zuen Izadik.

Urtebetetzeari esker agian beste bizpahiru ordu marruska nitzakeen.

- Orban bat dauka aurpegian -esan zidan-, horregatik eraman behar du bisera belarridun hori.

- Ez nengoen ohartuta -eta neskatoari begiratu nion ongi erreparatzeko, baina ordurako joana zen.

- Ez zarelako inoiz ni ikustera etorri.

Tirabira txiki bat izan genuen. Kontu handiz azaldu nion niretzako astia behar nuela eta berak ere ni gabe egoten ikasi behar zuela. Ez nion kontatu urrutitik beha egoten nintzela. Izadi isilik gelditu zen. Zegoen tokitik alde egiteko erabiltzen zuen. Isiltasunaren erresuma, esaten nion, noiz itzuli behar duzu isiltasunaren erresumatik?

- Nolakoa da, granatea? -galdetu nion gehiago jakiteko gogoz-. Granatea al da? Hitz egiten ari naiz. Nolakoa da, morexka?

Kasik gure etxe parean egon arte ez zidan erantzun.

- Marroia. Bizkarretik azal puska bat kendu zioten eta aurpegian jarri. Uste dut besteei nazka ematen diela, baina niri ez.

- Ongi -esan nion-. Hori oso ongi dago.

Atzerako ispilutik begiratu nion poza erakusteko, baina aurrera begira zegoen serio. Begi politak ditu. Jende askok esan izan dit. Hazia eman zuen tipoa ere polita ote zen galdetzen diot tarteka nire buruari. Jende ederrak horrelako gauzak egiten ote dituen, jende ederra baino gehiago jende berezia ez ote den horrelako gauzak egiten dituen. Berezia, onerako

zein txarrerako. Izan al zaitezke berezia onerako zein txarrerako izan gabe?

Pentsakizun horietan hasten nintzenean urrunegi joaten nintzen, eta gero kostatzen zitzaidan bueltatzea.

Izadik ez zion etxean egindako zerbait bakarrik oparitu nahi. Nire irizpideen kontra, *Soy Luna*-ren egunerokoa erosiko genion, elkarrekin bizkotxo bat prestatzearen truke.

- Ongi iruditzen al zaizu?
- Berdin zait -esan zidan Izadik.

Baina nik egin egin nahi nuen. Biok batera sortutako zerbait. Politak iruditzen zitzaidan horrelako aukerak aprobetxatzea. Izadik tratua onartu zuen. Aztoratuta zegoen. Besteen etxeak ikustea maite zuen gehien, eta Claudiarena nolakoa ote zen espekulatzen aritu zen:

- Aberatsak direla uste dut. Piszina dutela esan dit. Eta jolasteko gela bat dauka, jostailuz betea.
- Gela asko izateak esan nahi du, lan asko egin behar dela horiek ordaintzeko. Eta lan asko egin behar

izateak esan nahi du, elkarrekin egoteko denbora gutxi dutela.

- Ezin al diogu irin normala bota?

- Integrala da normala.

- Zaharrentzako da.

- Zuri gustatzen zaizu ba.

- Besteei ez.

- Goxoa aterako da, zaude lasai.

- Gu izan al gaitzke aberatsak?

- Bagara -behin eta berriro hitz egiten genuen gai honen inguruan, baina Izadi ez zegoen amore emateko prest-. Bi logelako etxea dugu biontzat. Hozkailua beteta. Gutariko bakoitzak armairu propio bat dauka. Balkoi handi bat daukagu, marrubiz betea. Lau aitona-amona dituzu. Lagunak. Furgoneta bat. Zapata pare piloak. Ez dugu inoiz goserik pasatu. Ez gaude gaixorik. Udan oporretan joaten gara.

- Bai, ja!

Arrautzak irabiatzeari utz ziezaion keinua egin nion.

- Nik amaituko dut. Zoaz. Mesedez.

Ez nion begiratu. Nik ere banekien isiltasuna behar bezala kudeatzen.

Izadik, egongelan zegoen ficusaren hostoak garbitu zituen banan-banan, kotoi eta urarekin, ume-umetatik egiten erakutsi nion bezala, lasaitu beharra zekanean. Bukatu zuenean besarkatzera hurbildu nintzen, baina alde egin zidan. Gauza eder bat egin nahi eta haserre bukatu. Urrea zabor bilakatzen genuen alkimistak ginen.

- Etorri sukaldera, hau gustatuko zaizu!

Lasaiago zegoen eta egiten utzi nion. Bihotz formako moldean sartu genuen labera. Ateratakoan algarrobo krema ipini genion barnean eta, sari gisa, glas azukrearekin hautsezta zezan utzi nion. Gero apain-apain jarri zen. Pekatxoak zituen sudurrean, eguzkia-rengatik.

Berehala iritsi ginen planoari jarraituta. Bi globo gorri zeuden kanpoko hesian.

- Erre egin zen -esan zidan kotxetik irten aurretik-. Horregatik du mantxa hori -ispiluan begira jarri zen eta masaila atximurkatu zuen, keinu itsusi bat egin ez-. Bizkarretik azal puska bat kendu zioten eta aurpegian jarri, baina hala ere nabaritu egiten zaio.

Euskal estiloko etxe zahar baina txukun bat zen, huntzak eta bugainbilea batek estaltzen zuten fatxada erdia, landaredia sarrerako hesiaren kontra hazten

eta metatzen zen. Izadi aurretik joan zen opariarekin. Kolorezko globoek etxearen atzealdera eraman gintuzten, lorategira. Claudia berehala etorri zen Izadiren bila. Uste baino handiagoa zen, azal eta haragizko arabeskoek masailaren erdia baino gehiago hartzen zioten, eta buruko larruazal pixkatxo bat ere bai. Horregatik ez balitz ume ederra zatekeen, begi beltzak eta ezpain mardulak. Begira gelditu nintzaion irribarrez. Mahai baten bueltan bi emakume zeuden, zigarro bana erretzen. Haietako batek, gu ikusitakoan, lo-reontzi baten kontra zanpatu zuen eta nigana etorri zen.

- Nieves naiz, Claudiaren ama, eta zu bere laguntxo berriaren ama izango zara, ezta?

- Izadirena, bai.

Rita Hayworthen orrazkera zeraman, ongi pentsatutakoa. Berak ere desitxuratuta zuen aurpegi erdia, eta adats ilun izurkara ur-jauzian erortzen zitzaion saraskitutako zatiaren gainean, estali asmoz.

Mahaira eserita zegoen beste andrea bankutik altxatu zen, poltsa hartuta.

- Pare bat ordu barru etorriko naiz -pizina puzgarrian zeuden haurrengana joan zen-. Neskak! Jator

ibili, gero azalduko naiz zuen bila -eta guregana jiratu zen-. Nieves, ekarri musu bat.

Lotsa eman zidan nik ere alde egin behar nuela esateak.

- Bizkotxo hau egin dugu Izadik eta biok -esan nion beste andrea desagertu zenean.

- Eskerrik asko! Hor ipiniko dut.

Walt Disneyren pertsonaiekin apainduriko zamaua eta platerak zeuden terrazako mahaian, plastikozko ontziak arto-krispetaz gainezka, sandwichak, ozpin-kiak, litro eta erdiko freskagarriak.

- Bihotz formakoa, bai polita! -haurrengana zuzendu zuen begirada, profilez ez zitzaion deus nabaritzen-. Claudia, ikusi zer ekarri dizun zure laguntxoak!

Izadiz eta Claudiaz gain beste bi neskatila zeuden han, hamar-hamaika urtekoak denak.

- Kafetxo bat nahi? -eskaini zidan.

Irri egiten zuenean ahoa desitxuratzen zitzaion, goma batek ezpain batetik tiratuko balio bezala.

- Ez dut kaferik hartzen, mila esker.

- Agian mandaturen bat egiteko aprobetxatu nahi duzu, lasai hartu, konponduko naiz. Urteak udan bete-tzeak hori dauka, kurtsoan zehar baino jende gutxiago etortzen da festara, zer egingo diogu. Claudia ohitu

da, nonbait. Baina hasieran, ez dakizu zer izan zen hura! Orain alaba arduratzen da hemen nor egongo den jakiteaz eta gonbidapenak egiteaz. Lautik hiru etorri dira -ahotsa apaldu zuen-. Eta ni pozik, jakina.

- Gelditu egingo naiz, inporta ez bazaizu. Ongi egoten da hemen.

Egurrezko bankuan eseri nintzen, bere aldame-
nean. Mahatsondo baten azpian zegoen, gerizpean.

- Etorri ginenean landatu genuen hori, duela zortzi urte, eta begira nola dagoen.

Gora begira gelditu ginen biak. Nievesek begiak itxi zituen. Narrasti bat zirudien horrela jarrita. Erredu-
ra bat zen. Lepotik behera jarraitzen zuen. Begiak itxi nituen nik ere. Eta hala egon ginen Nievesek hasperen egin zuen arte:

- Senarra tematu zen. Berak egin zuen egitura hori lau hesolarekin. Logroñoeko herri txiki batekoa da, umetan Bilbora joandakoa, eta etxeko patioan horrela-
ko bat omen zeukaten. Bilbotik hona etorri ginenean jarri zuen, eta begira urte gutxitan nolakoa egin den -esan zuen, dilinda egiten zuten mahats mulkoei begira-. Arrazoi duzu, ongi egoten da hemen.

- Nik ez daukat eskurik. Landare-dendan gogorre-
nak erosten ditut beti, itxurari apenas begiratu gabe.

- Nik ere ez pentsa... Arreta eskatzen dute, fedea eta konfiantza. Batzuk bakean utzi behar dira, zenbat eta kasu gutxiago orduan eta ederrago -azkazal luzeen artean tipulin bat hartu eta ahoratu egin zuen.

Gora begira gelditu ginen berriro ere. Mahatsondoaren adarrak gorriak ziren eta odola garraiatzen zutela zirudien. Enbor eskas eta ezpaldu hartatik hainbeste bizitza atera zitekeenik...

- Ederki pasatzen ari dira -esan nion piszinarantz jiraturik.

- Haurrak hurrekin ondoen. Zurea ere alaba bakarra al da?

- Bai.

- Orduan jakingo duzu zertaz ari naizen.

Eta begiak itxi genituen.

Haurrak toaletan bilduta eseri ziren mahaira. Izadi, hezur eta azal, dardarka ari zen, ezpainak ubelduta. Arto-krispetak erakutsi zizkidan eta jateko baimena eman nion, okasio berezi bat zen. Ahalegin handia egin behar izan nuen eskutada bakoitzak gordetzen zuen pozoia ez neurtzeko. Bi ahizpek paperezko poltsa bat atera zuten aulki baten azpitik eta Claudiari eman

zioten: tutu arrosazko gona zuen pijama bat. Claudiak berehala jantzi zuen.

- Ooo... Bai polita! -esan zuen Nievesek.

Claudiak gonatxo atondu zuen, eta besoak altxatu zituen balleteko figura bat itxuratuz eta bere ardatzaren inguruan jiratzuz. Groteskoa iruditu zitzaidan. Erantzi zuenean, masail bilakatutako bizkar txatala ikusi uste izan nion.

Izadik ere bere oparia eman zion. Zabaldu zuenean besarkada batean estutu zuen Claudiak:

- Soy Luna!

Izadi gorritu egin zen. Bere besoak Claudiaren bizkarretik gora igotzen ikusi nituen, guztiz pausatu gabe. Claudiak Izadiren ama zirudien, nahiz eta hilabete batzuk zaharragoa soilik izan.

- Crema eman. Ez dirudi, baina eguzki honek erre egiten du -esan zien Nievesek hurrei crema pote bat jaurtiz.

Eta lasterka alde egin aurretik, Claudiari heldu zion. Nievesek txorrotada bat jarri zion eskuetan, eta honek gorputz osoan zabaldu zuen. Amaitu zuenean, Nievesek aurpegian zabaldu zion hatz txikerraz, leunki, erreduraren gainean bi geruza jarritz. Claudiak begiratu egin zidan ni ere begira nengoen jakiteko. Irriba-

re egin nion... dena ongi dago, mundua perfektua da, zu perfektua zara adierazi nahian. Arnasa bota zuen.

Gortina moduan erabiltzen zuen ile xerloa belarri atzean ipini eta krema ipini zuen Nievesek, geruza lodiago bat jarriz erreta zuen aurpegiaren erdian. Orduan ere ez nuen egiten ari zenetik begirada apartatu, ez nuen nahi gaizki senti zedin. Bukatutakoan, ilea belarri atzetik askatu eta estilo handiarekin bota zuen aurpegi gainera. Irribarre egin zidan. Beheko hortzoia ikusten zitzaion irribarre egitean. Sobera gelditu zitzaion krema belaunburuetan zabaldu eta zigarro bat piztu zuen.

- Kontuz ibili behar dugu ditxosozko azal honekin, demonio -esan zuen.

- Nongoak zarete? -galdetu nion.

- Dagoeneko ez dakit!

- Hendaia ez da toki txarra berriro hasteko -esan nion.

- Hala esaten dute -esan zuen berak, neu halakorik behin ere entzun gabe nengoen arren- Gu ongi gaude, askoz hobeto.

- Jende asko dago berriro hastera etortzen dena -esan nuen, bion arteko espazioa hitzek bete zezaten-. Beste bizimodu bat, beste klima bat, beste ohi-

tura batzuk, beste hizkuntza bat... Batzuetan ongi dago besteez esaten dutena ez ulertzea, ez duzu uste? Eta hori dena salto batera.

- Salto batera, bai. Eta zuek zer egiten duzue hemen? Zuek ere ez zarete eta hemengoak...

- Gu higiezin erbesterratuak gara, edo hori esaten dut galdetzen didatenean. Baina parte batean, zero kilometroaren bila etorri nintzen, badakizu haur bat izatea zer den...

- Bum! -egin zuen ozen-. Bonba bat zure egunero-kotasunaren erdian, baina zuk bakarrik entzun duzu leherketa, ezta?

- Beste inork ez.

- Istripua eta gero aldaketa bat behar genuen.

- Istripu bat izan zenuten?

Erretzen ari zen zigarroa seinalatu zuen.

- Gaizki itzalitako zigarrokin bat... Eta etxeak su hartu zuen lo geundela.

- Aspaldi?

- Uda honetan bederatzi urte. Bilbon bizi ginen orduan. Auzoan ezagunegiak ginen eta ez zen erraza jendearekin... egotea. Lanetik etxera itzultzen ginen ahalik eta jende gutxienarekin gurutzatzeko, eta asteburuetan Logroñora joaten hasi ginen, inork ezagutu-

ko ez gintuen inguru baten bila. Azkenean, aseguru etxea portatu egin zen, udaletxeak ere dirutxo bat eman behar izan zigun. Eta begira. Clementeri bururatu zitzaion hona etortzea. Decathlonen lan egiten du, bulegoetan, eta trasladoa eskatu zuen Irunera, eskatu eta eman. Ez gara gauzei hamaika buelta ematen dizkioten horietakoak. Oso apasionatuak gara. Eta hemen gaude. Dibortziatuta? -galdetu zidan, asmakizunaren erantzuna etorri izan balitzaio bezala.

- Ez, ez... Izadi eta biok bakarrik gara.

- Hori ere ongi dago.

- Bai, dena bezala.

- Zerbait hartu nahi al duzu? Ni egarriak nago, garagardo bat hartuko dut, beste bat nahi? Moscatoa ere badugu. Ardotan hori bakarrik gustatzen zait niri.

- Garagardo bat hartuko dut nik ere, mila esker.

Joan zenean hurrei begira gelditu nintzen. Ez nion esan ez nuela tantarik edaten, gustu txarrekoa iruditu zitzaidan, ez dakit ongi zergatik. Belarretan eserita zeuden. Claudiak hitz egiten zuen, ahizpak adi-adi zituena, baina Izadi bizkarka zegoen, lurrean zegoen zerbaiti begira. Hara joan eta aurrera begira eser zedin eskatzeko gogoari eutsi nion.

- Eta okerrena ba al dakizu zer den? -esan zuen Nievesek etxe barrutik itzuli zenean-. Aurten berriz hasi naizela erretzen! Ez daukat erremediorik. Azkenean nire enpresa propioa martxan jartzen hasi naiz eta estresa, badakizu. Behintzat inork ez dit errietarik egiten, zailagoa izan behar du hogeit urterekin hasten direnentzat, ezta? Zuk zertan lan egiten duzu, gehiegi galdetzea ez bada?

- Anbulatorioan, administrazioan. Ez da niri gustatzen zaidana, baina gauza onak baditu, buruan ez dit toki gehiegi hartzen. Udan oporrak batzeko aukera ematen dit, Izadirekin lasai egoteko, geure kasara.

- Denbora! Hori ongi dago. Neska horiei deituko diet, tarta jatera etor daitezten ama bila etorri aurretik.

Tragoa eman ondoren, aho ertzetik ihes egiten zion garagardoa lehortu behar zuela ohartu nintzen.

Nievesek kandelak piztu zituenean *Zorionak zuri* kantatu genion denon artean Claudiari. Izadik ezpainak mugitzen zituen baina hotsik atera gabe, sabeliztuna falta balitzaio bezala. Claudiak arnasa hartu zuen eta, masailak puztuta, su txiki haien parean jarrita itxaron zuen abestia amaitu arte. Sugarrek egiten zi-

tuzten figuren antzekoak zituen azalean estanpaturik, eta zegoen bezala, suaren atzean makurtuta, orbanak mugimendua zuela zirudien.

Txalo jo genuen itzali zituenean. Claudia kabitu ezinda zegoen. Hunkiberegia zela ikusten zen eta hori ere ez zen ona. Eskuak aurpegiaren alde banatan jarrita zituen, begiak beteta.

Donutsekin egindako tarta banatu zuenean zati bat eskaini zidan Nievesek:

- Urtean behin ez du kalterik egiten.

Ezetz esan nion. Gure bizkotxoak ukitu gabe zegoen. Trukean luzokertxo bat hartu nuen esker ona erakutsi nahian, nahiz eta baziren gutxienez hamar urte ez nuela halakorik jaten.

- Hara! -esan zuen Nievesek bozina hotsa entzun zuenean-. Zuen ama heldu da, jantzi egin beharko duzue!

Gominolak eskuetan alde egin zuten neskek, Nieves eta Claudia etxe atariraino joan ziren agurtzera. Izadirengana hurbildu nintzen. Aulki tolesgarri batean eserita zegoen, Claudiak erdizka utzi zion trentza hel-tzen.

- Ongi pasatzen ari al zara?

- Bai.

- Bai? Ez dirudi. Laster joan egingo gara.

- Oraindik ez -eskatu zidan.

- Oraindik ez, laster.

Claudia eta Nieves gerritik helduta etorri ziren, irribarrez, sekretu bat gordetzen ari balira bezala. Alde berean zuten erredura, baina urrunetik ez zitzaien deus igartzen.

- Claudiak ideia bat izan du -bota zidan, alabari hitza emanez.

- Gelditu zaitezke afaltzen? Ilusio handia egiten dit. Gelditu, mesedez -esan zuen Claudiak, lurrean be-launiko eskuak otoitz egiteko maneran emanda.

- Clemente berehala etorriko da janari txinatarrarekin, beti erosten du gehiegi eta bi egunez jan behar izaten dugu -lagundu zion Nievesek-. Denetarik jaten duzue? Entsalada bat ere egin dezaket bestela, edo tortillatxo bat, edo biak.

Izadiri begiratu nion. Zaila egin zitzaidan desio zuena antzematea.

- Mesedez! -esan zuen Claudiak-. Nire urteak dira! Masail tarratatuari begiratu nion.

- Zergatik ez -erantzun nuen bion izenean.

Izadi gure bizkotxoaren parean jarri zen, begira-begira.

- Nahi al duzu pusketa bat? -galdetu zion Nievesek-. Ez izan lotsarik, neska -gure bizkotxotik hiruki bat moztu zuen eta eman egin zion.

Izadik gogotik jan zuen. Hunkitu egin nintzen. Nievesek ere zati bat hartu zuen eta koska txikiak egin zizkion, eskua aho parean jarrita papurrei irteten ez uzteko.

- Mundiala dago. Errezeta eman behar didazu -esan zidan-. Txaketa bat nahi? Edo barrura joango gara? Freskatu egin du.

Jasotzen lagundu nion eta etxera sartu ginen. Haurrak goiko pisura joan ziren lasterka. Nievesek sukaldera egin zuen ontziekin, ni egongelan bakarrik utzita. Gauzez beteta zegoen. Altzari klasiko ilunak zumitzez-koekin nahastuta, koloretako kuxinak, landareak. Behin-behinekoa zirudien ordena arraro bat zen, baina txukun eta garbi zegoen. Mahaitxoaren gainean lau mando zeuden tapete baten gainean. Traste elektronikoko ugarien argitxo gorriak ikus zitezkeen nonahi. Ele itxurako sofa batek hartzen zuen espazio gehien, hormari itsatsitako telebista erraldoi baten parean jarrita. Beheko suaren zuloan panpinak. Gainean, marmolezko hegian, nonbaiteko souvenirra zen maskorrekin egindako sagu bat eta ondoan oinak kiskalita zituen

metalezko kristo gurutziltzatu bat. Egongelara itzuli zenean baztertu egin nuen begirada.

- Nork daki jotzen? -galdetu nion, sofa atzean zegoen Yamaha teklatua seinalatuz.

- Claudiak eta biok pixka bat -esan zuen Nievesek-. Baina benetako artista Clemente da. Lehen -eskuarekin iragan urrun bat irudikatu zuen, sutearen aurretikoa, ulertu uste izan nuenez- talde batean jotzen zuen. Oso ongi kantatzen du, baina orain etxekoentzat bakarrik egiten du, pena da.

Sofan eseri ginen. Sandaliak kendu zituen eta eroso eseri zen. Nik ere gauza bera egin nuen. Goiko pisuan batetik bestera zebiltzan haurren urratsak entzuten ziren. Lasaigarria zen. Dena aldatuko duen unea, pentsatu nuen, zu ez zauden eta zure alaba zuk nahi zenukeen hura bilakatzen den unea. Orduan, kristalezko mahaitxoaren gainean beraien argazki bat zegoela ikusi nuen, hirurena. Zaila zen ez begiratzea. Ezeroso sentitu nintzen, nahiz eta Nievesek ohituta egon behar zuen. Areago, agian plan baten baitakoa zen guztia.

Eskuetan hartu, eta niri erakutsi aurretik, kristal gainean putz egin eta soineko muturrarekin garbitu zuen.

- Hau da gelditzen zaigun argazki bakarrenetakoa.

Estudioko argazkia zen. Lurrean eserita zeuden, oinutsik eta zuriz jantzita. Nievesek soineko udatiarra zeraman, begizta bat eskotean, garaiezina zirudien irribarrea. Mediterraneotar edertasuna zuen, haragitsua, erraza. Gizona ez nuen horrelakoa irudikatzen: eguzkiak beltzarandutako azala zuen, kopeta zabala, gainerik soiltzen hasitako ilea konpentsatzeko bezala melenatxo duin bat, alkandoraren hiruzpalau botoi zabalik, galtza barrenak tolesetan jasoak. Handia zirudien, besoaren gainaldean eskorpioi baten tatuaiak zuen, larruzko eskumuturreko batzuk. Claudia zen serio zegoen bakarra, urte eta erdi inguru izango zuen.

Azal eta oihal haiek guztiak sutan irudikatu nituen tabernetako aho-zapien moduan.

- Bai familia ederra -esan nuen.

- Bai, ezta? -beregana jiratu zuen argazkia eta begira gelditu zitzaion-. Horrelakoak ginen. Pelikula bat ikusten ari ginen senarra eta biok, eta loak hartu gintuen sofan. Mirari bat izan zen bizirik irtetea. Eta Claudia... Berea bai miraria, fondoko gelan egiten zuen lo! Nire senarrak atera zuen... -ilezko errezelari eragin zion koket-. Nik ikusi nuen sugarren artean pasatzen

eta bueltan etortzen, manta batean bilduta zuela umea, sutan biak... Ñabardurak niretzat gordeko ditut, sinets iezadazu, hobeto horrela.

- Claudia behintzat ez da ezertaz gogoratuko...

- Zorionez ez... Dena galdu genuen. Etxea, arropak, argazkiak, oroitzapenak, Clementek eta biok elkarri idatzitako gutunak... Asko idatzi izan diogu elkarri, soldaduska garaitik hasita, pentsa, soldaduskatik etorri zenean Ingalaterrara joan zen ingelesa ikastera... Orain edozein ume-mokok egiten du hori, baina garai hartan ez. Hamazazpi urtetatik elkarrekin, pentsa. Dena galduta. Ez dakizu zer den hori... Dena galtzea... Dena!

- Eta begira orain -esan nion, zer zen oso ongi ez nekien zerbait adierazi nahian.

- Begira orain -baieztatu zuen berak, konforme-. Oraindik amesgaiztoak izaten ditut egongelan geneuzkan gazazko gortinekin... Haizeak harrotzen ditu eta etxe barrurantz sartzen dira, han daude flotatzen, fantasmak dirudite nire buru gainean ni sofan nagoen bitartean, batzuetan telebistari begira, besteetan haurra aldamenean lo daukadala, eta kolpetik sutan daude... Orduan esnatu egiten naiz... -begiak zabaldu zituen eta tente jarri zen sofan-. Isiltzera noa, niri ez

zait eta besteen ametsak entzutea gustatzen, seko aspertzen nau. Zuri?

- Ez dakit, ez dut inoiz horretan pentsatu.
- Gorroto ditut besteen ametsak.
- Niri besteen oporraldiekin gertatzen zait hori.

Barre egin zuen.

- Berriro jaio zineten. Meritu handia daukazue.
- Bai, baina gauza bat esango dizut: ez digu ezertarako balio. Normala denetik aparte bizi gara, arauz kanpo, eta jendeak ezin du disimulatu. Karitatea ez denean higuina da, eta badira beraien ontasuna gurekiko adeitasunarekin frogatzen dutenak ere, miserable asko dago munduan, ezin duzu imajinatu; jende ona ere bai, justuak izateko hori ere esan beharra dago, jende ona egon badago.

Ni talde horietako bakar batean sartuko ez banintz bezala hitz egin zidan, arraroa izan zen.

- Baina niri Claudiak ematen dit beldur gehien, nola moldatuko den aurrerantzean, eta hori zirujauak sorgin hatzak dituztela, ikusi behar zenuen... Begira zein polita zen... Eta da... niretzat behintzat.

Irribarre barkaberari eusten ahalegindu nintzen.

- Oso polita da. Baliabide asko dituen neskatxa dirudi gainera. Izadi txora-txora eginda dago berarekin.

Gustatu egin zitzaion hori entzutea.

- Bai, baditu.

- Eta alaia...

- Bestea ez dakit, baina hor bete-betea asmatu duzu.

Clementek txistu jo zuen etxeko atea ireki bezain pronto, eta Nievesi keinua aldatu zitzaion, sotilki, baina nik nabaritu egin nuen, irri ezdeus batek irten zion, lasaituzkoa edota pozezkoa iruditu zitzaidana. Pentsatu nuen agian ordura arte ez zela ongi egon nirekin, eta bat-batean traban sentitu nintzen.

Poltsaz kargaturik iritsi zen. Aurpegi osoa zuen erreta, eta kurioski, zati bat izateak baino inpresio guxtiago eragin zidan. Begi ertzak urtzeko prozesuan bezala zituen, baina gainontzean, erredura uniformea zen, testuraz eta kolore aldaketa leunez beterikoa. Bostekoa luzatu zidan. Eskua ere erreta zuen. Nievesi muxu luzea eman eta ilea atondu zion.

- Gonbidatuak gainera, hau poza -esan zuen askatu zenean-. Non dago gure aingerutxo?

- Goian, piraguako lagun berriarekin -erantzun zion Nievesek.

Senarra argazkian baino soilduagoa zegoen, motots batean zeraman bilduta urdindutako ilea. Beste

ezer esan gabe, jaka kendu zuen, pertxeroan ipini eta pianora eseri zen. Alkandoraren mahukak jaso, bi botoi askatu eta hatzak mugitu zituen airean. Eskorpioia sutatik libratu zela ikusi nuen.

Zorionak zuri-ren lehenengo notak jo bezain pronto jaitsi zen lasterka Claudia. Atzetik besarkatu zuen fuerte aita. Nieves zutik gelditu zen egongelaren erdian, harrotasunez begira. Izadi ere jaitsi eta nire ondoan eseri zen sofan; besoa pasatu nion sorbalda gaitetik eta nigana erakarri nuen. Kantua jotzen amaitu zuenean, Clementek galtzaren patrikatik oihalezko mukizapi bat atera eta aurpegia lehortu zuen. Nievesek garagardo fresko bat ipini zion teklatu gainean, deus galdetu gabe, eta trago luze bat eman ondoren teklatura itzuli zen.

- Is this the real life? Is this just fantasy? Caught in a landslide. No escape from reality... -kantatu zuen a capella eta falsetoa eginez-. Open your eyes. Look up to the skies and see... I'm just a poor boy. I need no sympathy, because I'm easy come, easy go...

Nievesek eta Claudiak elkarri begiratu zioten familia barruko koderen bati segika akaso.

Izadi eta biok ere hurbildu egin ginen.

Clementek *Bohemian rhapsody*-ren lehen akordeak jo zituen, burua batera eta bestera astinduz.

- Mamaaa... just killed a man... Put a gun against his head. Pulled my trigger, now he's dead.

Aurreikuspen guztien kontra ahots miresgarria zuen.

- Mamaaa... life had just begun... But now I've gone and thrown it all away...

Lehenengo ahapaldiaren ondoren gugana jiratu zuen burua, irribarre nekatu batekin. Ordurako bere inguruan geunden denok, sofaren kontra bermatuta, ama bakoitza bere alabarekin dantza txikian, isilik, hain izaten ari zen hauskorra eta ederra une hura.

Bukatu zuenean bertan egon zen eserita momentu batez, guri bizkarra emanda, geldirik. Gu ere hala-xe gelditu ginen, mugitu ezinda.

Jiratu zenean gaztetuta ikusi nuen, denok geunden gaztetuta eta arinduta.

Garagardoa bukatu zuen.

Nieves zigarro bat erretzera irten zen terrazara.

- Etorri, nahi baduzu -esan zidan lehenago.

- Ez, ongi nago hemen -erantzun nion. Gero Clementerengana jiratu nintzen-: Zuk ez al duzu erretzen?

- Vade retro -esan zidan, oinetakoa erortzen utzi eta txankletak jarri bitartean-. Garagardoa nahi beste, whiskiren bat ere tarteka bai, baina tabakoa! Zoaz hiri europarretara, benetako Europara, Parisera, Bruselara edo Bartzelonara, ea zenbat erretzaile ikusten duzun han; herrialde azpigaratuetan ordea bai, saldoka -diskurtso hura behin baino gehiagotan errepikatu izanaren traza hartu nion, berak ere aspertuta zirudien bere hitzekin-. Tripa-zorriak ditut -esan zuen, tonua aldatuz eta sabela ukituz-. Eta zuek, neskak?

Gero zimiko egin zion Izadiri gerrian.

- Ume honek bizikleta batek baino haragi gutxiago dauka-eta! Ez dizute jaten ematen ala?

Izadik eskapo egin zion, edukazioa galdu gabe, eta Claudiaren atzetik igo zen goiko pisura.

- Ahots ederra duzu -esan nion Clementeri-. Harrituta geratu naiz, egia esateko.

- Ez zenuen espero, e! -esan zidan pozik, eta begira-begira geratu zitzaidan nik nahi baino luzeago.

- Ederra eta berezia.

Irri-karkaila egin zuen, *ederra eta berezia* errepikatuz.

Begiradari eutsi nion, serio, benetan ari nintzela jakin behar zuen, garrantzitsua zen niretzat.

- Lastima ezkondata zaudela, bestela zure ezkontzan kantatuko nukeen...

- Ez nago ezkondata.

- Ez zaitez haserretu -esan zidan eskua luzatuz-. Ez dago haserretzeko motiborik. Ez dut nire burua serio hartzen, hobeto doakit horrela.

Esku leuna zuen, hatz lodiarekin esku-gaina laztandu nion ahal izan genuen luzeen. Nieves entzun genuenean askatu egin ginen.

Ordurako txinatar janari usainak egongela gainditua zuen. Nieves lorehun hule batekin sartu zen eta egongelako mahaitxoaren gainean zabaldu zuen. Gero, han jarri zituen poltsetatik ateratako ontziak eta sofako kuxinekin inguratu zuen mahaia.

Konturatu nintzen Clementeren etorrerarekin txikitu egin zela, hauspoa galdu izan balu bezala. Hala ere ez zirudien ez triste ez haserre, lasai baizik.

Claudia eta Izadi arduratu ziren estalkiak kentzeaz eta era guztietako jaki likatsuak agerian uzteaz. Clementek Moscatoa ekarri zuen. Lurrean eseri ginen denok, gu sardexkekin, haiek txinatar makilatxoekin. Nievesek begi bat kliskatu zidan topa egin aurretik. Gantxo batekin jaso zuen ilea, erredura agerian utzita. Berpiztuta zirudien berriro ere.

- Urte askoan, polit hori! -esan zion Clementek
Claudiari. Begiak beteta zituen, baita Nievesek ere.

Claudiak hatz puntak musukatu zituen eta putz
eginez bidali zizkien musuak gurasoei.

- Oso harro gaude zutaz -esan zion Nievesek, eta
musu bat bidali zion airez.

Izadi platerera begira zegoen. Kokotsetik heldu
nion burua altxa zezan. Masaila laztandu nion.

Jatekoa ez zen espero bezain dramatikoa izan.
Postrerako gure bizkotxo atera zuten eta denek ospa-
tu zuten. Familiako bat gehiago sentitu nintzen. Ongi
pasatu genuen. Uste dut beraiek ere ongi pasatu zu-
tela.

Agurtzerakoan besarkatu egin nituen.

- Mila esker, benetan -bihotza ukitu nuen.

- Eskerrak zuei -esan zuen Nievesek.

- Eta segi jotzen, zoragarria izan da -esan nion
Clementeri.

Ile adats bat belarri atzean jarri zidan, naturaltasu-
nez. Nievesek begiak itxi zituen, onarpena adieraziz
bezala.

Hesiraino etorri ziren. Clementek gerritik heltzen
zion Nievesi, eta honek bere sorbalda gainean jarri
zuen burua. Ez zen promesik egon, inoren partetik.

Kopilotuaren aulkian esertzeko eskatu nion Izadiri. Eskutik emanda egin genuen bidea. Arratsalde luze hartan oso berezia zen zerbait aurkitu uste izan nuen, hondartzan maskorrek biltzen sentitu izan dudan liluraren pareko zerbait, eta eutsi egin nahi izan nion, eskapo egin ez zezan, betiko nire barruan bizi zedin, aurkikuntza gunetik apartatu ahala, poliki-poliki, lilura de-segingo zela jakin arren.

Paisaiak

Iriart andreak erretreta hartu zuenez geroztik ez zinen itzuli, eta, oraindik eta zaharragoa iruditu zitzai-zun Pommadere andrea zen ordezkoa. Esertzeko eska-tu zizun. Erretxinan bildutako kakalardo bat zuen mahai gainean paperak hegaldak ez zitezen, nahiz eta gela hartan leihorik ez egon.

- Galderarik egin nahi al duzu?

- Dena ongi dagoen jakin nahi dut, besterik ez; hi-ruzpalau urte dira ez dudala errebisiorik egin.

- Badaezpada berriro esango dizut: egin nahi ote zenidake galderaren bat?

Goxoa izan zen, eta hala ere haserretu egin zinen.

- Orduan arropak erantzi eta hasi egingo gara.

Baina utzidazu gauza bat esaten: ez erabakitzea era-bakitzea da.

Adin ertaineko andre kanonikoaren rola jokatu ze-nuen soinekoa eta mediak aulkiaren bizkarrean zintzi-likatuz, bularretakoa bi tolesetan plegatuz eta tirak ahurrean gordez, kuleroekin karratu txiki bat eginez. Inoren aurrean kentzen zenituen aldiro bezala, zaha-

rregiak begitandu zitzaizkizun botak, eta soinekoaren atzean ezkutatu zenituen.

Ohatilan etzan orduko dardarka ari zinen. Esku hezurtsuak zure belaunetan jarrita barre txikia egin zuen Pommaderek, urteek gasoildutako begiak ñarrotuz. Lotsatzen zarenean umetu egiten zara, beti.

- Gustatu egiten al zaizu zure lana?
- Egunaren arabera.
- Pazientearen arabera, ez?
- Egunaren arabera. Jaso besoak, mesedez.
- Haur asko izango dituzu.
- Ez.
- Bi?
- Bat ere ez.

Besapeak eta bularrak zanpatu zizkizun hatz mami-
miez zirkunferentzia erdiak marraztuz. Ondoren, zure
parean jarrita, preserbatiboaren zorroa hortzekin ta-
rratatu eta zundari ipini zion. Pommadere andreak
hankak zabal zenitzan presioa egin zuen zure belau-
netan, baina oraindik belaunburuak laztandu behar
izan zizkizun, bizpahiru segundoz lepoa alde batera
erortzen utzita begiratu behar izan zizun kolabora ze-
nezan.

- Ez zait nire gorputz barruan begiratzea gustatzen, batez ere ni bertan ez banago. Barkatu.

Begiak gogor ixten dituzunean gertatzen zaizu: zure barnean pauma lumak ikusten dituzu. Hirugarren saialdian lortu zuen sartzea.

- Barkatu.

Ilun zegoen han, monitoreak apenas erakusten zuen ezer. Bat-batean elur moduko bat hasi zuen, elur dardara zundak zure barru hormen kontra tupust egin bakoitzean, behin eta berriz, tematurik zirudien Pom-maderek. Barrutik nolakoa zaren jakin nahi zenuke.

Betaurrekoen gaineratik begiratu zintuen, begiak diz-diz:

- Ez duzu ezer sentitzen?

- Deus ez.

- Hilerokoak normalak dira edo sarriak?

Monitorea zukanago jiratu zuen. Beltzaren ertz batean, puntu zuri urduriz osatutako masa bat seinalatu zuen, tramankulua batera eta bestera dantzatzeari utzi gabe, eta kolpetik ederra iruditu zitzaizun galaxia hura, hari begira geratu nahi zenuke, zu bakarrik.

- Mioma bat duzu, handi samarra. Hamar-hamaika zentimetro artekoa.

Eskularruak erantzi zituen eta janzteko eskatu zizun. Beste norbaiten arropak janzten ari zinela iruditu zitzaizun. Zure dosierra errebisatzen ari zen bere aurrean eseri zinenean.

- Hogeita hemeretzi urte dituzu, ez dakit zer asmo duzun baina kentzea komeni, ez dagokion toki bat okupatzen ari da. Bikotean zaude?

- Ez dakit.

- Kendu nahi ote duzun?

- Bikotean ote nagoen.

- Begira, kendu egingo dugu, laparoskopio bat egingo dizute, gauza sinplea da -kakalardoaren gainean ipini zuen eskua.

Azkenetan egon arte haien gaixotasuna sekretuan gorde eta maitasuna zabaltzen bizi diren andre horien tankera izatea desio izan zenuen. Zure buruari eskatu zenion Urkori ezer ez esateko, baina tratua itxi aurretik deika ari zintzaizkion.

- Ez dirudi larria -esan zenion.

- Gaur gauerako planik bai? -erantzun zizun.

Ez zenuten inoiz haur bat izatearen aukerari buruz hitz egin, arruntegia iruditu zitzaizuen. Eta zuek ezberdinak zineten, edo horretan ahalegintzen zineten. Ez zeundeten aurrez programatuta, eta aldiro berri-

tzen zenituzten botoak, nahiz eta bi botoek balio bera ez izan.

Konposatu nahian zenbiltzan kantuarekin maitakeriatan eman zenituen Urko etxera joan aurreko azken orduak, gitarra eta koadernoak agerian utzi ahal izateko aitzakiagatik gehiago kantuarekiko sinesmenagatik baino. Lehorrekoa izan arren marinelez jantzita joaten zen. Zure ondoan distira egin zezan apaltzen zinen jendaurrean, jendea desagertzeko zure sakrifizioaren etekinak neurtzen lukurreriak jota.

Hilabetez hilabete merkeagoa zen ohiko ardo botilarekin agertu zen, eta debaluazioa zuri, berari edo harremanari zegokion zalantzak zeharkatu zintuen. Edonola ere, oraindik muxuak baziren eta gorputz guztiarekin ematen zenituzten.

Ez zizun gitarragatik galdetu, eskola jantokietan lanean hasi zinenez geroztik inork galdetu ez zizun bezala.

- Haurrik izan nahi al zenuke?

- Egia esan ez dut horri buruz sobera pentsatu -erantzun zenion, eta arindu handiagoa hartuko zuela uste izan zenuen, sekretuki zutaz harro sentitzeko moduko erantzuna eman zeniolakoan.

Cat Powerren *Jukebox* ipini eta ogiaz eta gaztaz lagunduta ardo botila hustu zenuten sofan. Lehenengo aldiz zure magalean hartu zuen lo. Arraro sentitu zinen, baina era berean probetxuzko, eta horrela sentitzeagatik lotsatu egin zinen. Han goitik ikusita ez zen hain ikaragarria. Jende isil askoren antzera, benetan zena baino interesgarriago ematen zuen. Ilea orraztu zenion herri iruditeriako andre emankorrek nola, eta zure sabelaren kontra estutu zen. Gero bularrak ukitu zizkizun norekin zegoen gogoratzeko bezala.

Ebakuntza egin aurretik zirujauari esan zenion zeuretzat nahi zenukeela hondakin galaktikoa.

- Zer?

- Mioma.

- Zeurea da. Zatitxo bat kenduko diot zure baime-narekin, biopsia egiteko, protokoloak hala eskatzen du. Landatu-edo egin nahi duzu?

- Nola?

- Selaunarekin egiten da eta, horregatik galdetu dizut.

“Edo” horren bitartez jan egin nahi zenuen galdetu zizun ezbairik gabe, eta zergatik hartu behar ze-

nuen zuk zure gain berezi izate hutsagatik jende zoro-aren nahasmena. Gero maskaratxoak jarri zizuten eta beste nonbaitera joan zinen, zaratarik entzuten ez zen, temperatura perfektua zuen, grabitate indarrak gabeko toki batera. Bakarrik egin nahi izan zenuen guztia, ez zinen gai sentitzen zure amaren larriduraren, zure ahizparen negazionismoaren, lagunaren presaren edo Urkoren mututasunaren kargu egiteko.

Egunean bertan itzuli zinen etxera. Min ematen zizun zure barru tarratatuak, baina poza eman zizun hala ere minari gain hartu eta estiloa galdu gabe autoraino iritsi ahal izateak. Potea aldameneko eserlekuan jarri eta uhalarekin lotu zenuen.

Zure, bere edo harremanaren metafora ote zen inoiz jakingo ez zenuen eta janari gehiegi emateagatik hil zenuen Urkok oparitutako arrainaren etxea ongi garbitu eta bertan hustu zenuen potea. Ehun-mataza koloretsua isuri zen behinola harri zuriz eta koralez betetako hondora, eta oihal beltz batekin estali aurretik, arretatsu begiratu zenion zure buruaren irudia begitandu zitzaizun erretratu espresionista hari.

Bakarrik eta estaldura prekarioarekin, kontu guztietatik aparte Hendaiako aldirietan bizitzeak horrelakoxe sariak zeuzkan: bakardadearen errua koordena-

da geografikoei egotz zeniezaiokeen, inongo amildegiren kontra borrokatu behar izan gabe. Bakarrik zaude, bizi zaren tokiko bizi estiloa delako. Bizi zaren tokian bizi zara zure prekarietate ekonomikoak ez dizulako beste inon bakarrik bizitzeko aukera ematen.

Ohean eman zenituen hurrengo bi egunak, tea edaten eta gurinezko galletak jaten, lohasman eta, tarteka, latza eta basatia izan nahi zuen eta melenga eta otzana zen kantu baterako letra zirriborratzen. Ez zinen *euria* eta *laino piltzarrak* aipatu gabe girotzeko gai. Euli mando bat uxatzen bezala ari zinen kantua konposatu nahian. Azkenaldian ez zenekien nondik kantatu, ezta nori ere. Hirugarren egunean Urko etorri zen txokolate eta karameluzko pasteltxo birekin. Ordua arte jaiki gabe egon zinen eta zeure ahuldadeaz jabetu zinen.

- Aurpegi txarra duzu -esan zizun.

Zu haserretu egin zinen, eta plazera hartu zenuen hanka-sartzea konpentsatzeko ahaleginetan ikusi eta zeure burua amore eman gabe mantentzeko gai izan zinelako.

- Gor batekin maitemindu nahi nuke -esan zenion azkenean-, zuk ez?

- Zertarako baina?

- Maitemindu eta larrutan egin, esan nahi dut. Ez dakit azaltzen, baina gure gorputzek bakarrik hitz egingo lukete, tranparik gabe -esan zenion, zeinu hizkuntza imitatuz.

- Betiko gormutuez ari zara? -esan zizun, hagine-tako pastel zatitxoak azazkalarekin liberatuz.

- Ez dira mutuak. Ez duzu ulertzen.

- Bat ezagutu nuen, gure etxe azpiko tindategiko semea, tatuaiak eta guzti zeuzkan.

- Zer esan nahi duzu "eta guzti"rekin?

Ezin zineten haserretu, hori ere bazegoen. Ez zenuen horrela formulatu, baina gustu txarrekoa iruditzen zitzaizuen. Edonola ere, bata bestea baino gehiago ez-haserretzen zen.

Lehen aldia izango zen zeure etxera etorri eta gaua pasatzera geldituko ez zena. Agurtzerakoan gogortuta zeukan.

Oihala kendu zenionean, haragi korapilo hura arrainontziaren hormari itsatsita aurkitu zenuen, hondoa garbi-garbi. Azalpen fisikoren bat izango zuelakotan, flexoaren argipean aztertu zenuen ospitaletik

bueltan presaka eta ganorarik gabe hara botatako zure luzapen intimo hura. Gorri, arrosa, more eta zuri gama osoaz gain, askotariko ehundurak aurkitu zenizkion, likatsuenetatik hasi eta giza azal itxurakoetara, eta hasieran mordoiloa iruditu zitzaizunaren forma estilizatu eta orekatua estimatzen hasi zinen.

Barruak hala aginduta, begirunez, oihalarekin estali zenuen bueltan eta sabaiak eta lurrak bat egiten zuten etxeko txokoan jarri.

Zerbait galdetu nahi izanez gero oraintxe zenukake abagunea.

Biharamunean lantokira deitu zenuen, senda-ageria astelehenera arte luzatu zizutela esanez. Arrainontzira hurbildu zinen, sabela laztandu zenion, oihala txukundu zenuen. Hondartzara joan zinen artilezko txanoa eta mendiko berokia jantzita. Oraindik min ematen zizun arren ibiltzeko beharra zenuen, ibiltzeak zure barne mekanika lerrokatzeko gaitasuna zuen. Hotza sentitzeak zure buruaren alde borrokatzeko grina eman zizun. Jende gutxi zebilen hondartzan, euri fina ari zuen, grisak hartua zuen dena. Kasino zahararren atzealdean, itsas bazterrean, zortzi-hamar gizon-

emakume zeuden, itsasoari begira, eta hondartzara jaitsi zinen zeu ere. Kasik multzoarekin bat eginda egon arte ez zenuen asmatu zer ikusi zuten: hondar-tutako izurde bat zen, isats kolpeka ari zen, eta lagundu nahian laborari itxurako bikote musugorri bat, gal-tzak belaunetaraino jasota izanagatik ere gerritik be-hera blai eginda. Ikusmiran zeuden gainontzekoak, tartean bera baino zatiaz gazteagoa zen gizonezko bati besotik helduta zegoen Pommadere andrea, olatuekin jolasean bezala ari ziren, izurdearengandik biz-pahiru metrora, bikoteari begira baina ez bustitzeko kontu emanek. Izurdeak irri eginez bezala begiratzen zuen, bere zerri begiekin. Senar-emazte ziruditenek “bat, bi eta hiru” esan eta izurdeari bultza egiten zio-ten, baina bazihoala zirudienean korronteak berriz ere itsasertzera ekartzen zuen, eta besteek, zuk barne, aieneka erantzun zenuten koroan. Azkenean lortu zuten. Bultzakada sendo batek eta aldeko korronteak joaten lagundu zioten. Metrotik metrora artezagoa zen hegatsari begira ikusi zenuten urruntzen. Senar-emaz-teak uretatik irten ziren, lehenago lortu ez izanaren errua bata besteari egozten. Txalo jo zenuten eta sa-kabanatu egin zineten gero eta gogorrago ari zuen

auri artean. Agur egin zenion Pommadere andreari eskuaz, baina bera ez zen ohartu.

Indarberriturik itzuli zinen etxera. Leiho ondoan jarri zenuen arrainontzia eta oihala kendu zenion. Toki berean jarraitzen zuen, eta apur bat uzkurto zela iruditu zitzaizun, lurrari kendutako erremolatxen antzera, pentsatu zenuen. Egun argiz oraindik eta ederragoak iruditu zitzaizkizun koloreak, urdinkaragoak. Bere txokora itzuli zenuen harro. Beste hizkuntza batean baleude bezala irakurri zenituen ordubeteko tartearekin bidalitako Urkoren hiru mezu zenituen, “Maitatzen utz zaitez non sartzen zaren jakin ez arren”, zioen azkenak. Zertaz ari zen arrastorik txikiena ere ez zenuen.

Bizpahiru ordutik behin arrainontzira hurbiltzen zinen: ez zegoen dudarik, txikitzen ari zen, eta masa haren epizentroan beste zerbait zegoen, ilunagoa zen zerbait. Oraindik ez zenekien ba ote zenekien edo itxurak egiten ari zinen.

Astehenean lantokira deitu zenuen gaixotasun agiria luzatu zizutela esateko, eta behinola paralizatuta utziko zintuzketen baina momentuan ezdeusak iruditu zitzaizkizun traba praktikoak gezurño pare batekin gainditu zenituen aise. Armairu zokoetan gordeta zenezkan kontserbak eta laboreak jaten igaro zeni-

tzake hilabete bat edo bi. Afalostean auzotik pasea-tzera irteten hasiko zinen. Farolarik ez zegoen, zure burua ez ikusteko bezain beltz zegoen, baina ilunpe-tan bakarrik ibiltzeko bezain libre sentitzen zinen.

Mintz garden batek estaltzen zuen, tartean ur zurix-ka moduko bat, beste ezer ez. Jabetu zinen, gutxi bazen ere mugitu egiten zela, eta mintz hark ezingo ziola luzaroan pitzatu gabe eutsi. Pommadereren idaz-kariaren deiak ezustean harrapatu zintuen. Errebisio-rako hitzordua zenuela eta inguruan ote zenbiltzan galdetzeko hots egin zizun. Hamar minutuan han izan-go zinela agindu zenion, eta zure ahotsa entzutean ohartu zinen egun asko zeneramatzala inorekin hitz egin gabe.

Bostekoa luzatu zizun, dena ongi zegoen galde-tzeaz batera. Galderak bigarren zentzurik ote zuen ezin asmatuz erantzun zenuen baietz, eta ilea motots garai batean bildu zenuen ahalik eta txukunen.

- Minik?
- Batere ez.
- Odol galerarik?
- Ezta ere.

- Orduan goazen hori ikustera.

- Hondartzan ikusi zintudan -esan zenion erantzi bitartean.

- A, bai? Askotan joaten gara, ahal dugun guztietan, egia esateko; udan izan ezik, horriblea da.

- Izurdearen egunean.

- Han zeunden? Gizajoa. Etzan zaitez.

Arnasa sakon hartu eta ezpainen artean lasto bat bazenu bezala askatu zenuen. Zunda zure kontra olandatu zen, eta sartzea lortu zuenean garaipen izpi bat ikusi uste izan zenuen Pommadereren begitartean.

- Lagunak esan zidan bere buruaz beste egin nahi dutenean hondartzen direla, suizidatzen dakien animalia espezie bakarra omen da -eskumuturrarekin betaurrekoak sudurrerantz igo zituen goiko hortzoiak agerian utziz-. Bitxia da.

Eta zuk monitoreari begiratu zenion barre txikiarekin.

- Biologoa al da?

- Ez, hamazazpi urte gazteagoa da.

Elur erauntsi bat. Supernova bat. Infragorriekin filmatutako sumendi bat.

- Hemengo paretan itsatsita zeneukan, eta orain garbi dago. Baina ikusi hemen... Aurrekoan ez zegoen

ezer, baina begira orain... beste bat duzu, ez dut ulertzen nola den posible. Ez da aurrekoa bezain handia baina txiki-txikia ere ez da.

- Ez daukat galderarik.
- Hainbat hobe, ez baitaukat erantzunik.

EZ zeneukan dudarik, gau hartan izango zen. Eta mugara joan zinen Remelluri botila baten bila. Bol bat anakardoz bete eta salako mahai gainean ipini zenuen arrainontzia, gaueko zaintza egiteko gertu.

Hasierakoaren laurdena zen. Ez zegoen apenas likidorik beltzaren eta mintzaren artean, eta lehen aldiz iluna zehazten joan zen. Mugimendua gero eta gogorragoa zen, eta gauerdia pasatxoan mintza tarratatu egin zuen. Urradura txiki bat zen, eta bertatik atera zen beltzaren adar bat, bizpahiru zentimetro inguruko luzapen hezurtsu bat, zabaldua bere halako hiru bilakatzen zen hegala. Handik gutxira, txilio labur eta metaliko bat eginez, zuloa zabaldu zuen burutxo iletsuak, hiruki formako bi belarri agerian utziz. Muturrarekin launduta mintza gainetik kendu zuen, eta atzapar txiekiekin arrainontziaren ahoari helduta, nagiak kendu zituen. Ondoren hegalak arin astindu zituen eta zure

aurpegi parean sostengatu zen airean, segundo batez. Begiak beteta begiratu zenion ikuskizun hari, partekatu ezin diren zorionak badaudela ulertuta.

Burua laztandu zenion hatz erakusleaz, joateko baimena emanaz. Tximiniatik irten zen, eta leihotik ikusi zenuen, euri artean eta laino piltzarren azpitik hegan egiten.

Niregandik espero zena

1988

Urteak dira alde egin nuela, baina han irauten dut. Ile motza eta eguzkiak belzutako azala.

Ez dakit zer egin ikastolatik kanpo. Ikasi, besterik ez didate eskatzen. Haiek langile jendea dira, eta ez dute ni langile kastakoa izaterik nahi, zintzoa, apala, leiala.

Buruz behera nago sofan, Olinpiar Jokoak telebistan. Sofa barnetik datorren hezetasuna usain dezaket, hankaz gora dauden objektuak begiratzen ditut ez ulertu arte, nire gorputzak ateratzen dituen karraskak entzuten ditut, buruz behera egoteak sortzen didan itolarria bilatzen dut, zerbait, asperdura ez den edozer.

Horrela gauzak beste modu batera ikusten dira behintzat: buruz behera dagoen neska bat errauts koloretan arrosarioa eskuetan, ni orduan nintzenaren adin bueltakoa; buruz behera dagoen mutil bat marinez jantzita, ertz koskadunak dituen argazki batean

berrogei urtez bederen mantendu duen begirada tris-tearekin; eta markoen kantoietan karnet tamainako argazki bana, batean ni, bekozko ilunarekin, bestean ahizpa, txupetearen bi aldeetara irribarre zati bat. Sergei Bubkak jauzi egin du. Bi-hiru zigarrokin dituzten hautsontziz beterik dago etxea. Zentzurik gabe pilaturiko objektuak horma eta apaletan, osaba mutilzaharrek bidaia exotikoetatik ekarritakoak gurasoek ezkontzan jasotako oparien ondoan. Beti egon dira. Etxea pintatu eta gero ere, altzariak eta espazioen antolake-ta aldatu eta gero ere toki berera itzultzen dira, kondena bat bezala.

Aurpegia gorrituta dudan arren, arnasa biriketara kostata iristen zaidan arren, nire burua pixka bat gehiago bortxatzen dut sofaren ehuna osatzen duen hari-egitura konplexua aztertzeraz, orbanen perimet-roa laztantzen dut eta haien jatorriari buruzko asma-keriatan galtzen naiz. Horrelakoa da nire asperdura: denboraren hiperkontzientzia, depresio iragankor bat, hiltzeko gogo. Mutiko gorputza duen andre nekatu bat naiz. Horrela esnatzen naiz, egunero. Eta luzea da uda egunero horrela esnatzeko. Jolas zaitez zerbaitera esaten didate, zertarako oparitzen dizkizugu jokoak jolasteko ez bada. "Bi jokalaria edo gehiagorentzat"

ziren opari haiek iseka dira, etxekoen perbertsio bat alaba zaharrena halako atakan jartzeko. Bizilagunak kalera irten eta jolastu egiten dira, beste sofistikaziorik gabe.

Nire gurasoek ere ez daukate lagunik. Gu jende heldua gara, ez dugu horren beharrik, etxetik lanera eta lanetik etxera, zertarako gehiago, zorte txarra izan dugu guk lagunekin, ez zaitez haiez sekula fio. Amarentzat zigorra eta garaipena da etxetik kanpo lan egitea, ez dakit bakoitzaren neurria. Burdindegi batean lan egiten du, mantal urdin batekin. Ez zaitez hazi, hori ere esaten dit, horrela, tonurik gabe, ikasi egin behar duzu ni bezalako ez izateko. Bortxaz esandako hitzak, apaltasunik gabeak.

Sergei Bubkak munduko errekorra gainditu du, hantxe nire begien aurrean. Gutxienez norbaitek ahaztezina den zerbait egin dezala nire begien aurrean, izan nadin ahaztezina den zerbaiten lekukoa. Domina zintzilikatu diotenean negar egin dut. Tuntuna esaten didate, eta ez dut maite etxekoek negarrez harrapatzea, ez dut nahi etxekoek asperdura ez den beste sentimendurik daukadala jakitea. Zoriona lotsagarria zait eta tristura moldatu gabeen kontutzat daukat, galtzaileen aldartea da. Nik ezin dut galdu.

Inozoak dira plazan jolasean dabiltzan haurrak. Haien inozotasuna behatzera irten naiz balkoira. Azulejoen gainean eserita nago, bonbonari besarkatuta. Asperdura adieraztea, modu sinesgarrian adieraztea, asperdura den egoera emozionalaren parte da. Bonbonak guraso baten gerriaren tamaina eta metal usaina dauka. Udak metal eta gas usaina dauka. Plazan jolasean dabiltzan haurrak erdaldunak dira, desinhibitua eta alaiak. Ez dira haien dotorezia faltaz jabetzen. Gurasoek etxetik oihu egiten diete askari bila igotzeko. Miguel!, Adonay!, Sonia! Beti ari dira oihuka eta bazterrak nahasten, eta halako batean desagertu egiten dira, Herrira joango dira, *al pueblo* misteriotsu hartara, eta uda amaieran bueltatuko dira autoa lukainkaz, olio eta auskalo zerez lepo. Gu ez gara haiek bezalakoak, ez haiek gu bezalakoak: desberdin orrazten eta janzten gara, desberdin jaten eta hitz egiten dugu. Amak esaten dit tonbolako gauzak haiei bakarrik tokatzen zaizkiela eta guri ez, saiatu ere ez egiteko esaten dit, tonbolarako kultura bat behar da, eta hori haiek dute. Amak esaten dit beti besteren kontura lortzen dituztela gauzak, geuk ez bezala. Desberdintasun horren aldarria egiten dugu, gure familiaren estandarte da. Beranduago jakingo nuen nik ere ba-

nuela *pueblo* bat; beranduegi, ezagutu nuenerako apenas existitzen baitzen.

Miguel!, Adonay!, Sonia! Amak beraiez barre egiten erakusten dit, haien ahoskeraz, haien pentsaeraz, haiez barre egiteko manera guztiak seinalatzen dizkit, eta hain daukat hurbil horrela jartzen denean... Aspal-di bilakatu da iseka gure arteko komunikazioaren muina. Miguelen ama begira daukat eta heldu egiten diot begiradari. Begiratzeak askatasuna ematen dit, nahi dudana nahi bezain luzaz begiratu ahal izateak. Orain zaila da. Desioa libre uzten dudanean soilik gertatzen zait. Baina orduan, zer zen festa hura, nahi nuena nahi bezain luzaz begiratu ahal izatea! Begira daukat baina nik begirago daukat bera, eta ilea lotzeko erabiltzen duen plastikozko pintza gaitzesten dut, permanente kizkur beltzak eta urrezko eraztunez kargaturiko hatzek nire kasta sistema propioan azkeneko mailetara eramaten dute emakume on-puska hura, eta bazkalostean balkoian jaten duen Frigopie-aren ikuskizunak eduki niezaiokeen begirune apurra akabatu du. Gas eta metal usainak okitu egiten naute. Hark lorez beterik dauka balkoia, gurean hamsterrena izandako kaiola bat dago. Bonbona askatu dut eta gainean jarri naiz. Miguelen amak "*iNiña!*" oihu egin dit eta ez

entzunarena egin diot. Miguelen ama zalapartaka hasi da, hain ozen ez baitut esaten duenaren zentzua ulertzen. Gorputz erdia airean daukat, beste erdia bonbonaren heldulekuei atxikita. Zerbait sentitu nahi dut, besteen beldurra besterik ez bada, edozer, denbora ez den edozer. Bizilagun gehiago irten dira leihoetara, denak ari zaizkit keinuka eta garrasika, baina ni nire-ra, nire azal beltzaranduari begiratzen diot harro, bilo horixkek sakonune bat uzten dute hazten diren azal zatian, eta arreta galtzen ez badut nire gorputz barneko hotsak entzun ditzaket. Nire mutiko gorputza maite dut baina ezin dut nire andre nekatua jasan. Bakarren batek nire amaren izena oihukatu du, inork bere izenik zekienik ere, leihotik leihora. Miguelen ama ikusi dut txabusina erantzi gabe kalea zeharkatzen, leihoan dauden bizilagunek azkarrago joateko eskatzen diote, baina irten egiten zaizkio txapinak. Gure etxeko txirrina jo du, eta amak erantzun arte ez du hatza askatu. Balkoitik entzuten dut, gramatika galdu izan balu bezala: *“¡Tu hija! ¡El balcón! ¡Rápido!”*.

Ziztu bizian etorri da. Irineztaturik dauzka eskuak. Nire izena oihukatu du, ez du beste ezer behar ni handik jaisteko. Ez da nigana hurbildu, ni ere ez harenga-

na. Larridura antzezten ari dela pentsatu dut, bizilagunen mailan egon nahi duela, berak, haurraren amak.

Jolasten ari nintzela esan diot. *Suizidatu* hitza aipatu du berak. Ea suizidatzea zen nire asmoa. Behin eta berriz egin dit galdera. Eta ni, jolasten ari nintzela. Amak nire suizidioaren aukeran pentsatu izanak aldatu egingo nau. Haurrak ez dira suizidatzen, horixe pentsatzen dut. Nire buruaz beste egin ahal izatearen ideiak baino gehiago, nire amak nik nire buruaz beste egin dezakedala uste izateak halako botere bat eman dit, dibertimendurako aukera bat. Hamaika urte ditut eta prest nago bi jokalaria edo gehiagorekin jokatzeko.

1990 (negua)

Zerbait eraisten ari den galera sentsazioa, baina ez dut asmatzen zer. Kosta egiten zait gauez loak hartzea, nahiz eta entrenatzen etorri eta leher eginda egon. Gauez iritsi naiz eta ama leihotik begira dago. Atletismotik heltzen naizen bakoitzean dago leihotik begira. Jonkiak jendea erasotzen ari dira xiringekin, argi ibili. Eta leihotik dagoen ikusmen angelu urria gorabehera, babestua sentitzen naiz. Bere kezka ba-

bestu egiten nau. Hiruzpalau ikusi ditut entrenamendutik etxerako bidean, esango diot.

Oparu afaldu dut, Coca-Cola lata batekin. Ez dut ohera sartu nahi, baina ama sobornaezina da.

Ukitu egiten naiz, hatzak zimurtuta gelditu arte, baina aldiro pixka bat tristeagoa da. Batzuetan, hala ere, esna segitzen dut hori eta gero ere.

1990 (uda)

Orain bi akuri ditugu etxean, korridorean dagoen kaiolan. Kantatu egiten dute. Ahizpari bat erosi zioten aurrena eta ondoren beste bat, eskolara erakusteko eraman eta andereñoak konpainiarik gabe hil egingo zela esan zionean. Bietako bat kantuan ari da, usoen moduan. Logelatik entzuten dut. Lasterka txikiak eta kurrixkak. Zarata lehor baten ondoren harrapatu duela badakit. Arrak emea estali du. Space invaderseko tiro hotsak ateratzen dituzte. Isildu direnean korridorerara irten naiz eta argia piztu dut. Kantoi batean dago emea, ile luzeak nahasita, bere baitara bilduta, otoitz egiten ari dela dirudi. Arra kaiolaren barroteen artean dagoen azenarioetako bat karraskatzen ari da

begi nekatuekin. Zoaz ohera, bihar ezingo duzu-eta jaiki. Ebatzi gabeko enigmen saio bat ikusten ari da ama telebistan, aitak gaueko turnoan lan egiten du. Goizean sarreran aurkituko ditut larruzko bere zapata belkrodunak eta txalekoa. Umiliagarria iruditzen zitzaidan hala jantzi behar izatea. Amari hankak baka-rik ikusten dizkiot, besaulkitik zintzilik, luzeak, distiratsuak, leunak, argi pirrinta urdinkaren pean. Goizalde-
ra arte egongo da telebistaren aurrean. Horrelako saioak eta Bigarren Mundu Gerrari buruzko pelikulak maite ditu gehien. Batzuetan berarekin ikusten dut film baten erdia eta gosaritan beste erdia kontatzen dit. Sofan ikustea baino hobea da bere ahotik entzunda ikustea. “Y le dice”, esaten du etengabe. Aktore guztiak biltzen dira bere gorputzean.

Berriro hasi da usain kontuarekin. Entrenamendutik etorri naizenean. Ez dira inoiz txapelketa batera etorri, ez diet utzi. Lotsa emango lidake haien aurrean ez irabazteak. Bainu paretik pasatzean gisa horretan begiratu nau. Ahizpari ilea lehortzen ari zaio, eta sumatu nauenean lehorgailua itzali eta nire logelara etorri da. Sartu eta logelako atea itxi du, ez da ohikoa berarengan. Ongi pentsatuta ez dut uste beste inoiz egin duenik. Ilea orrazten ari naiz, luzea uzteko erabakia

hartu dut, bizitza aldatuko didala sinetsita. Baldarra da nire gorputza, eta ez da nabari egunero entrena-tzen dudala. Ez dakit zer ibili zaren, zuk dakizu nik baino hobeto, baina nazkagarria da. Afaldu aurretik konpondu. Lanera joan aurretik leihoak zabalik utzi ditut, orain arte, eta ezta hala ere. Ez dut jakin nahi zer den, desagertzea besterik ez dut nahi, esan dit. Entrenamenduko poltsa zabaldu du gero, esku-oihala atera eta korridorera jaurti du, ondoren elastikoa us-natu du besapeetan egoskortuta bereziki. Arropa ziki-narekin bola bat eginez joan da. Bakarrik gelditu naiz gelan. Tom Cruiseren poster bat daukat ohe-buruan, *Cocktail* neoizko argiz idatzia, Michael J. Fox, Europe eta Samantha Foxenak atean, denak *Super Pop*-etik hartuak. Ohe azpia arakatu dut eta ez dut ezer aurkitu. Baina jasanezina da, arrazoi du. Kasurik ez egitea erabaki dudan arren, ez dut lortu nire erabakiari eus-tea. Aipatu arte deus sumatu ez dudan arren, orain kolpeka datorkit. Bizirik egon zen zerbaiten usaina da, dudarik ez dago.

Lau hankatan jarrita usnatu dut logela. Armairua miatu dut, beroki eta galtzetako patrika guztiak. Koltxoia altxatu dut eta galleta papurrak eta txikle pape-ren bat baizik ez ditut aurkitu. Liburuak atera ditut, ai-

rean zabaldu ditut, *Drácula*-renetik Espainiako txapelketan Castellonen ezagututako mutil baten gutuna atera da, gustatu ez zitzaidan arren desiragarri izan nintekeenaren froga gisa gordetzen nuena. Erreserbista sentimental bat naiz.

Apalategia hormatik aldendu dut, tiraderak arakatu ditut, ezer ez. Argiarekin lotzea otu zait, argia piztu eta itzaltzearekin. Bonbillak zeramika berotzen duenean egiten duen erreakzioren bat. Aulkira igota lanpara usaindu dut, ondoren bonbilla, eta iruditu zait badagoela senidetasunen bat botatzen duen usainaren eta gelakoaren artean. Oldeka dator, sarkor, gutxien espero dudanean. Ongi bizia egon zen zerbaitek baino ezin du horrela usaindu, baina ez dakit zer den. Itsasoa, fruitu galdua eta haragia. Lotsatuta eseri naiz afaltzera. Ama mahaitik altxatu da, nire logelara joan da eta Hau nazka esaten entzun dut. Sukaldera itzuli da, serio. Coca-Cola heren bat ahizpari emateko agindu dit. Eta jan zerbait hezurretan gelditzen ari zara eta, esan dit zerbitzatu dudana tomate entsaladaren aldamenean tortilla erdia jarriz. Konfusio handia eragiten dit nire gorputzak: ispiluak, etxeak eta gizarteak itzultzen dizkidaten irudiak ez datoz bat. Edonola ere,

nigandik at dagoen zerbait da oraindik gorputza, ez naiz han barruan bizi.

Denbora gutxian akuria hiru aldiz ernaldtu da aldiko bizpahiru kume ekarriz. Aitak kartoizko kutxa batean sartzen ditu eta etxe ondoko parke batean utzi, "Opari. Zaintzeko dira" errotulagailuz idatzita. Akuri amak ez du jasan hirugarren ernaldia eta azken kumea botatzearekin batera lehertu da. Amak trapu batean bildu eta niri emango dit, ahizpak ikusi ez dezan. Komunean gordeko naiz, gorpu hura eskuetan. Jasanezinena, duen karga. Konketa barruan utzi eta hil-oihala zabalduko dut. Errape puztuak, likido likitsa sabelean, hortz luze pareta bistan. Kumeetako bat gordeko dugu arra delakoan, baina jaio eta hilabete gutxira akabatuko du bere aitak.

1991

Badira aste batzuk entrenatzailea nigana etortzen den bakoitzean burua alde batera eta bestera mugituz egiten duela, auto batzuetako atzeko apalean doazen jostailuzko txakurrek nola. Zapatilak aska ez daitezen korapilo bat ikasi berri du eta erakutsi egin nahi dit.

Kontrako zentzuan egin behar da laxoa. Oina aurreratu dut eta eskuak aldaketan jarri. Ingurura begiratu dut baina denak ari dira luzaketak egiten, inor ez dago niri begira. Ez dauka zentzurik ingurura begiratzeko jarraitzeak. Orain bestea esan dit, eta ezkerreko hanka aurreratu dut. Korapiloaren urrats bakoitzaren ondotik nigana igotzen du begirada eta esker oneko agertzen natzaio. Begi berdeak ditu. Bibote sarri beltza izanagatik ere itxura nahiko onekoa da. Nire adin inguruko alaba duen arren, ez da beste aitak bezalakoa. Gihartsua eta alaia da, eta ez du edaten.

Nire gorputzak bizitza propioa hartu du, hanketatik eta besoetatik tira egin izan balidate bezala gerriaren jaiotza ekarriz, eta bularretan pilatuz sobranuen haragia eta grasa, baina ez dakit zer egin atal berri horiekin. Ileak gantz usaina hartzen du dutxatu eta gutxira, baina ez dut asmatzen xarma pixka batekin jasotzen. Espainiarako minima lortu dut eta Euskadiko txapelketatik domina pareka ekarriko dut, baina inori ez zaio inporta, ezta niri ere. Ez zinen drogekin hasiko, galdetu dit amak. Lotsarazi egiten nau. Hain nago nire ustez hortik urrun. Erne gero horrekin, muturra haustea nahi ez baduzu. Gauzak gaizki egiteak ematen duen boterearen kontzientzia hartu dut.

Espainiarako sailkatu garen bi neskak eta hiru mutilek entrenamendu saio gehigarria egiten dugu larunbat goizetan. Entrenatzailearen furgonetan joan eta etortzen gara. Berezi sentiarazten gaitu, *altzari* esaten dien gainontzeko taldekideen gainera. Hondartzan amaitu dugu entrenamendua, hondar gainean egin dugu lasterka eta gero volley partida bat jokatu dugu, entrenatzailea eta neskak mutilen kontra. Izerdia kentzeko uretan sartu gara, bera ere bai. Udaberria da eta txakur-paseatzaileez gain ez dago beste inor hondartzan. Ni izan naiz uretatik irteten lehena eta ondoren bera. Lasterka joan gara gure gauzak ditugun lekura. Fresko dago eta oihalak bizkar gainean jarrita arropa erantzi dugu. Itsas belar gorritzak dauzkat gorputzean, hanketan, aluko biloan. Berak ile mataza beltz-beltza dauka, eta ezerez horretatik zakila adar bat baltz bezala ateratzen zaio. Ilea astindu dut eta toalla buruan lotu. Zakilarekin begiratu dit bularretara. Gero jiratu eta esku-oihalarekin igurtzi du gorputza, bizi, eta niri bizkarra emanda jantzi da.

Sara lehenago etorri da. Pijama jantzita nago, ohe gainean etzanda walkmanarekin. Alde batean Nirvana eta bestean, hutsik gelditutako zinta zatian, Hertzainak. Amak kolpetik zabaldu du logelako atea, orain beti egiten du, baina gero ez da barrura begiratzera ausartzen. Sarak barruko elastiko zuria eta Levi's moztuak daramatza, patrikak ikusten zaizkio gehiegi moztu dituelako. Gerrian lotuta alkandora koadrodun bat. Ile luze kirruak halako aura bat ematen dio, bere burua munduan gertatzen diren gauzez babestuta balebego bezala. Gominolaz beteriko poltsa bat darama. Aspaldi bukatu dugu bazkaltzen eta ez nekien zer egin etxean. Larunbatero egiten dugu hitzordua, larunbatero ordu berean. Sara gure etxe aldamenen bizi da eta berak jartzen du martxan katea: nire bila pasatzen da, gu biok apartexeago bizi den Ainhoarenera joaten gara, eta azken geldialdia Joneren etxean egiten dugu. Bainu bat hartuko dut. Zurekin noa, esan dit. Eta bainera bete bitartean larunbata ezberdin egiteko moduez hitz egin dugu. Nagia ematen digu asfalto gainera irteteak, kalea oraindik ez da gurea, hirugarren mailako hiritarrak gara. Udala disko-festak antolatzen

hasi da, baina gizajoentzat dela uste dugu, eta gaur ere ez joatea erabaki dugu. Sarak kontzertua dauka igandean. Biolina jotzen du.

Aitak amari oparitutako gatz pote usaintsutik eskukada bat bota dut uretara. Berak ez du inoiz erabili-ko. Baineran sartu garenean oraindik ez dira harriak desegin. Sarak ume gorputza dauka, baina aktore porno baten bularrak. Bi sumendiren moduan urazaleratzen dira. Nireak ere igerian daude. Baineraren alde banatan jarrita, burua lozaren kontra, hankak bestea- ren gorputz gainetik pasa behar ditugu biok kabitzeko. Ura hoztu arte egongo gara horrela. Urak bultza nazan uzten dut, alua bistan geratu arte utzi naiz, urak eta xaboiak kizkurrak harrotu arte. Txandaka, ertzak li- zunduta dituen esponja urez blaitu eta aurpegi gai- nean marruskatuko dugu. Gurasoen etxean egonaga- tik ere beste dimentsio batean nago, denboraren eta grabitatearen zama gainetik kenduta. Begiak itxita di- tugu eta asteleheneko azterketaz ari gara hizketan.

Aitak atea jo du. Merienda prestatu digula. Oso ar- duratuta daude asko argaldu naizelako, eta komunera joaten naizenetan zelatan egoten dira botaka egingo dudala sinetsita. Luzea eta argala naiz, kolpetik hasi diren beso-zangoekin ez dakit zer egin, ilearekin aur-

pegia gordez eta besoekin gorputz erdian sortu zaidan karga berria estaliz kapsula bat eraikitzea lortu dut. Ez dakit nire zenbatgarren gorputza den hau. Bainugelako atea zabaldu dugunean Errealaren azpila aurkitu dugu ate ondoan: Nocilla sandwichak eta bi Kas lata.

Ilea lehortu bitartean Sara egongelara joan da nire gurasoekin. Baten batek telebistaren bolumena jaitsi du. Kontserbatorioaz eta udako planez hitz egiten entzun ditud, Sara nerabe arduratsuaren plantak egiten, ama eta aita bikote arretatsuarena jokutzen. Lotsa emango lidake apaindu naizela ikusteak, eta poltsan gorde ditud rimmela eta begietako arkatza. Bostehun pezeta eman didate. Amak dagoeneko ez nau leihotik begiratzen joaten edo etortzen naizenean. Etxetik irten aurretik kontuz ibiltzeko esan digu, istiluak egongo dira.

Ainhoak esan digu gelako mutil batzuk Zubiren urteak ospatzekoak direla eta gonbidatuta gaudela. Zirikatzera joatea erabaki dugu. Ez gintuzten espero. Zubiz gain bere lehengusua eta gelako beste bi daude Denverren urtebetetzeetarako erreserbatzen duten gelako leihoan zigarroak erretzen. Lehengusuak berea eskaini digu eta denok erre dugu. Raul du izena, eskola erdaldun batera joaten da eta dena da ezberdina

berarengan, beste hirurak batera baino bizkorragoa da askoz. Belarrira hitz egiten dio lehengusuari, eta gero honek mele bat eginez beste biei kontatzen die lehengusuak esandakoa. Asaldatuta daude. Bat-batean argiak itzali dituzte eta atearen kontra jarri dira. Gu gelaren erdian gaude, gertatuko dena asmatu gabe. Mutiletako bat argiak pizten eta itzaltzen hasi da, diskoteka batean bageunde bezala. Aurre egin diegu atea blokeatzen dutenei pasatzen uzteko eskatuz, baina ez dira mugitu. Lehengusuak Dale primo esan duenean, mahai gainera igo da Zubi, zakil txiki bat atera du, eta sua pizten ariko balitz bezala hasi da eragiten. Tamaina bikoiztu duenean, esku bakarrarekin heldu eta gora eta behera astindu du. Gu laurok garrasika ari gara, elkarrengana bilduta kantoï batean hormaren kontra, izua gorabehera izututa jarraitzeko gogoz. Lehengusua eta beste biak aho zabalik daude, barre algaraka ari balira bezala, nahiz eta beste zerbait den beraien begiradek adierazten dutena. Zubi sabaira begira dago, begiak erdi itxita, beheko ezpainari kosk egiten dio itzali eta pizten den argiaren erritmoan. Eiakulatu duenean txalo jo diote. Raulek, piztutako zigarro bat jarri dio ezpain artean. Zubik, ezkur itxura hartu duen zakilaren lerdea garbitu du paperez-

ko esku-zapiekin. Ez da gur begiratzera ausartzen eta gu ez gara begirada berarengandik apartatzeko gai. Galtzak oraindik jaitsita, eta guztiz erori ez dakizkion hankak zabaldua, komunera noa esanez irten da, eta guk ihes egin dugu lasterka. Kea darien edukiontzien ondotik pasatu gara. Plastikoen errearen usaina dago. Jende gehiago dabil lasterka, kale bazterretik. Arna-
sestuka eta sirena hotsen artean iritsi gara Joneren atarira: Ainhoa negarrez ari da, Sara zoro baten moduan barrez, eta besteok lehertu beharrean taupaka ari diren gure aluei helduta.

1993

Haririk gabeko telefono bat jartzea lortu dut etxean. Nire diruarekin erosi dut. Orduak eta orduak ematen ditut nire logelan sartuta, Sararekin eta Jonerekin edo-zeri buruz hizketan. Etxe barruan beste norbait izateko dudan aukera bakarrenetako bat da, nire gurasoen begiradak itzultzen didanaren bestelako norbait. Ipini eta gutxira linea moztuko dutela mehatxu egiten ditamak. Aita fakturarekin etorri da, azpimarratuta dauka guztizkoa: familia honek uretan gastatu duena-

ren halako hiru gastatu duzu telefonoan, esan dit, eta alde egin du, lotsatuta. Egia da, haiek ez dute apenas deitzen. Ez nekien hain beharrezkoa nuenik. Lotsatu egin naiz ni ere.

Kalean, eguna joan eta eguna etorri, poliziek motxilak zabaltzeko eskatzen digute. Oihal bustia eta arropa izerdituak aurkitzen dituzte, aldiro. Kale kantoietan egoten dira, eta herria zeharkatzeko haien aurretik pasa beharra dago entrenamendutik bueltan. Identifikatzeko eskatzen digute, eta beti eraman behar izaten dugu karneta aldean.

Haien begiradapean itxuratzen goaz, haien miazteetan aurkitzen dugu gure burua, haien mesfidantzak ematen digu identitatea. Egunetik egunera, suntsituta dagoen geure burua berreraikiko dugu haiekiko dialogo isilean, jakin gabe egiten dizkiguten galderei jakin gabe erantzunez, arriskugarriak izan gaitezkeela sinesteraino.

Ez zaitez jende kaltegarriarekin nahas, esan dit poliziak, eta ez utzi kirola. Kirola egitea garrantzitsua da. Nik taekwondoa egiten dut. Begiak bakarrik ikusten dizkiot. Hitz egiten duenean kaputxaren zuloatik ir-teten zaizkio ezpainak. Mailatuta dauka pilota jaurti-

gailuaren ahoa. Hamasei urte, bai adin polita. Ez zenuke erre behar.

1994

Nobio moduko bat daukadan arren, neskekin bakarrik egon nahi dut gaur. Galtzaileak bakarrik ibiltzen dira mutil usainean. Gu ez gaituzte maitasunerako hezi. Gerta daiteke, eta orduan ongi kudeatzen jakin beharko dugu, baina bilatu, sekula ez.

Sara ingelesa ikastera joango da Londresera, hila-bete. Despedida moduan azido bana jan nahi dugu Sarak, Jonek eta hirurok, eta hark lortu digu. Pontxo mexikar bat darama soinean tabernan bero egiten duen arren, eta saltoka ari da Rage Against the Machinerekin. Denok denon kontra ari gara saltoka. Giza mordoilo hartan elkar topo egin dugunean musu eman diot. Ahoa lehorra dauka drogengatik, baina ez zait axola, nesken aurrean bereziki gustatzen zait bera musukatzea. Ni baino lau urte zaharragoa da, ez du asko hitz egiten, eta ume hortzeria dauka. Nik ilea buru arras moztuta daramat, kokozko belarritakoak, Martens beltzak, bakeroak, tiradun kamixeta txuria.

Kashbad jarri dute. Jendea oraindik eta gorago etorri da Sorkunen ahotsari heldu nahian. Nobioa eta biok komunera sartu gara. Han, bularrak ukitu dizkit ez oso konbentziturik. Komuneko hormak heze daude. Gustatzen zait nire kontra igurztea, gustatzen zait burua kamixeta azpitik sartuta bularrak ahoan sartzea, gustatzen zait beroaldiaren erdian biok planto egitea, ez okitzeko tamainan jan beharreko postrea baikinena bata bestearentzat. Mingain luze-luzea du. Speeda hartu du berak eta azidoak eman dizkit niri. Jane's Addiction entzuten hasi denean irten eta bereizi gara. Tripiak mingain puntan jarri ditugu hirurok. Jendaurrean egin dugu, nolabaiteko aldarria ere bada, munduak ikus gaitzan nahi dugu, nor garen eta nora goazen jakin dezatela.

Jonek lehenago botaka egin du, esanez tripa hutsarekin gehiago jotzen duela. Denok dakigu ez duela jaten eta edozein aitzakia ona dela botaka egiteko. Tabernetan baino kalean ibili nahi dugu, eta paper fabrika pareko orubera joan gara tabernetatik eskapatzen den iskanbilatik ihesi. Han, lurrean etzan gara eskua emanda. Hala egon nahi dugu jo bitartean, gau izarratuari begira.

Inguruan jende pixka bat dabil, baina dagoeneko ez gaude ez han ez orduan, denbora desagertu egin da ordu batzuetan. Jonek, izututa, paper fabrika guregana datorren mamut bat dela esanez lurretik altxarazi gaitu, ibaia zeharkatuko duen mamutarengandik ihes egin behar dugu. Barreak erasan gaitu Sara eta biok, baina bere atzetik egin dugu korrika, Ez dezagun ibaia zeharkatu, mamut zuriak uraren beldur dira. Korri dezente egin dugu, nahikoa akuriaren gurpilaren karranka entzuteari uzteko. Ibai bazterrera jaitsi gara, eta harri artean hartu dugu lur. Kontuz xiringekin, esan diet erdi txantxetan edo serio, ez dakit. Jonek bi eskuekin estali du burua. Zisne bat agertu da gure parean. Jone begiratzera behartu dugu, burua heldu diogu eta begiak zabaldu dizkiogu. Begira zer bilakatu den mamuta, esan diogu, zisne. Pozik jarri da. Hura laztandu nahi du. Laztantzen ahalegindu nahi du. Uretan sartzen hasi da eta Sarari eta bioi kosta egin zaigu geldiaraztea. Busti egin gara eta harrien gainera bota gara bata bestearen gainera. Zisnea alde egiten ikusi dugu bere galdera ikurrarekin. Ez dakit nor naizen, esan du Sarak estasiaturik, eta bere erdi ballet dantzari erdi prostituta gorputzarekin dantzan hasi da, bereak ez diren mugimenduekin hasi ere, eta esaten ari

zena ulertzea lortu dudanean (hitzak gomazko bilakatu baitira eta oso erne egon behar baita hots batetik besterako saltoan ez galtzeko) izutu egin naiz, ez bakarrik arratoiek inguratu gaituztelako, neuk ere ez dakidalako nor naizen, eta denbora zulo hartatik ateratzeko karraskan hasi naiz, hankekin eta eskuekin hartxintzarretan, honek ez baitu inolako graziarik, nire burua haztatzen hasi naiz, atximurkatzen, hor barruan dagoena ni ote naizen jakin nahi dut, besterik ez, Eo, norbait ba al dago?, ni al naiz hor dagoena?, nor gehiago bizi da azal honen azpian? Ilaran jarri!

1995

Astean zehar ikasle pisu batean bizi naiz, Gasteizen, beste hiru neskekin. Sararekin eta Jonerekin bezain ni sentitzen naiz haiekin, edo gehiago, baina Sara eta Jonerengana itzultzen naizenean ez naiz nintzen pertsona bera. Hotzarengatik gandututa daude beti leihoak. Inor ez da eguerdia baino lehen ohetik jaikitzen, gurasoen etxean bizi izan garen urte hauetan guztietan lorik egin izan ez bagenu bezala. Pijama erantzi gabe ibiltzen gara etxean, zombien modura, kaxetan

datorren janaria bakarrik jaten eta iluntzean kalera ir-
teten. Atletismoa utzi nuenetik, gorputzak lasterka
egiten jarraitu nahi balu bezala nago, baina nik ezin
diot segitu; bertan trabatuta nago, nire gorputzean.
Begizulo belaunaldi berri bat jaio zait aurpegian, gaixo
itxura daukat eta eduki nahi dut, nire bandera da. Far-
mazia ikasten ari dela esan didan tipo bat ezagutu dut
taberna batean. Etxera eraman dut. Korridorean, nes-
ketako baten txirula aurkitu du eta *Bridge over trou-
bled water* jo du sudurrarekin. Oheratu egin gara,
azala behar dut larrua baino gehiago, gainontzekoak
ez du asko inporta. Goizean esnatu egin naute neskek.
Bakarrik nago logelan. Mesanotxearen gainean dago
txirula. Orduan konturatu naiz joaten sumatu dudala
eta aurreneko aldiz begietara begiratu zidanean bel-
durra sentitu nuela. Ez dut berehala ahaztuko begira-
tu hura. Etxean sartu dira, esan didate, Zamarrak falta
zaizkigu, karterak, compact-disca, haxixa. Ez dut deus
aipatu, ez kontatzea izango da nire penitentzia. Las-
terka egiteko plaiarak dira niri falta zaizkidanak, eta
lentillen likidoa. Salaketa jarri behar genukeela adostu
bezain pronto damutu zaigu, alferkeriak jota, eta rega-
lizak jaten bukatu dugu eguna, laurok nire ohe ba-
rruan.

Etxera itzultzen naiz asteburuetan. Denak beldur-garriki berdin jarraitzen du. Zigarro bat eskaini dit amak lehenengo aldiz. Hartu eta balkoian erre dezagun eskatu diot, ez nuke nahi aitak ikusterik, ez erretzen, baizik eta amarekin erretzen. Ez dirudi axola zaionik, areago, alaba erretzailea izatea gustatzen zaiola dirudi. Kea botatzen ari gara, pareko eraikinak ezkututzen ez duen zeru puska bakarrari begira. Zokotan, zentinela bat dirudi butano bonbonak.

Ez duzu ezer arraroa antzematen?

Barandiaran tabernan egin genuen hitzordua amak eta biok. Opariak erostera elkarrekin joateko aitzakian, Joanesi erosi nahi nion alkandora *berezia* aukeratzen laguntzea nahi nuen. Telefonoz nabaritu uste izan nuen zerbait ez zebilela ongi. Espero bezala, ama ez dago terrazako mahai batera eserita, eta espero bezala, haserretu egin naiz zutik itxaron nauelako, ziur bainago aurreikusten duen atzerapena aurpegiratzeko egiten duela. Begien urdina eta horia nabarmentzen dituen goroldio koloreko beroki batean bilduta dago, eztarri-zuloa hegalekin estaliz saguzar bat dirudi eta bob estiloko orrazkerarekin oreka perfektua lortzen duten New Orleansko musikari batenak izan zitezkeen zapata zuri-beltzak daramatza. Presaka erretzen du.

- Zergatik ez zara eseri?

- Zure zain nengoen.

- Eserita hobe, ezta? Tximista batek jota hiltzeko arriskua biderkatzen ari zara.

- Ongi nengoen horrela, zure zain, ez du inporta. Ez du euririk ari. Imajinatu dut berandu etorriko zine-la, hain lanpetuta zaude beti.

- Arratsalde on eta kontu horiek. Sentitzen dut. Terrazako mahai batean jarri gara, parez pare.

- Sentitu zer?

Horrelakoa zen: bikaina. Gaizki sentiaraziko zintuen, gaizki sentiarazi zintuelako haserretuko zinen, haserretu zinelako zakarkeria bat esango zenion, zakarkeria bat esan zeniolako barkamena eskatuko zenion eta berak ezustea erakutsiko zuen barka-eskea zeri lotu ez zekielako, txiribuelta emozional hirukoitz baten bidez adieraziz pitzatuta egon arren maitatua izateko eskubidea zenuela berea bezalako bihotz bakanengatik.

Tristura eragiten didate Gabonetako argi piztu ga-beek, oholtza gaineratik atrezzoak ikusten duzunean bezala. Halaxe zegoen Donostia egun hartan: Boulevardeko zumarretan gora naturarekin nahastu asmotan sortutako kableek eta anpulu itxurako argitxoek behin-lakoko bonbilla koloretsuak ordezkatu zituzten. Seinale bat zen agian. Telefonoz nabaritu uste izan nuen zerbait ez zebilela ongi.

Ezpainak uzkur-uzkur eginda nigana jiratu ditu eta zulo txoko hartatik esan dit:

- Erreparatu al diozu zerbitzariari? -seinalatu didan norabidera begiratu dut. Trabeska dagoen gizon bat katiluak jasotzen ari da ondoko mahaian-. Iguana bat dirudi!

Algara batek irten dit. Begi batekin zerura eta bestearekin lurrera begiratzen du.

- Gizajoa -jarraitu du amak serio-. Ez genioke barrerik egin behar, baina zaila da. Ikaskide bat izan nuen horrelako begiak zituena, uste dut katu baten erruz izan zela, zenbat barre egiten zioten eskolan koi-taduari.

- Gauza asko erosi behar al dituzu?

- Aitari pijama bat eta diru-zorro on bat, daukanak higuina ematen du; amonari betikoa, lurrin kofre bat, badakizu zenbat gustatzen zaizkion nahiz eta usaime-na aspaldi galdu duen...; eta zure anaiari ez dakit, agian Loreak Mendiareko arroparen bat... eta kaktus bat, hori seguru, sekulako elektrizitate estatikoa dute-eta etxean. Bide batez, gaur berarekin hitz egin dut eta neskatoari gauza bakarra erosteko, halaxe esan dietela senide guztiei, opari bana etxeko eta ahal dela

txikia eta plastikorik gabea; zer iruditzen zaizu?, zuri ez dizu ezer aipatu?

- Niri ez. Baina belarritako batzuk ez lirateke opari txarra.

- Ezta pentsatu ere. Bera ere haurra izan zela ahaztu duela dirudi. Tren hura erosi genionean ez zuen ba hainbesteko kexarik izan! Zure koinataren kontua behar du izan, bestela ez dut ulertzen... Zortzi solairuko garaje harekin akordatzen? Sekulako matratza eman zuen eta azkenean lortu, eta orain hau...

- Mozorro bat?

- Ez, ez. Nik badakit neskatoak zer nahi duen. Eta horixe erosiko diot. Besterik ez genuen behar.

- Zer duzu buruan?

- Lehengo hilabetean, zure anaia-eta asteburu pasa joan zirenean, Donostiara etorri nintzen umearekin. Ahateei jaten ematera joan ginela, han agertu ziren bere adin bueltako bi ahizpa, biak goitik bera berdin jantzita, igandez, eskuindar itxurakoak, baina ongi, elegante, buruan laxoarekin eta belaurerainoko galtzerdiekin. Haietariko bakoitzak garai bateko Arrue estiloko jostailuzko kapotadun kotxea zeraman, urdin-ilun haiek, gogoratzen?, parpailez beteriko tapakiak eta barruan beren panpinatxoa... Kattalin ikusi behar

zenuen, begiak irten beharrean... Ez zuen beste konturik izan arratsalde osoan, ez ahate, ez txokolate, ez txurro, ez ezer. Nik uste horrelako gauzak badirenik ere ez zekiela... gaixoa... Ze bizkorra eta sentibera den gure neskato polita!

- Kapota bat ez da txiki-txikia, ama.

- Dena ezin da. Behintzat ez da plastikozkoa izango. Eta panpinarik ere ez diogu erosiko, bestela haserretu egingo zaizkigu eta -esan du ahots sudurkariz kea botatzean-. Nahi baduzu har iezaiozu zuk panpinatxo bat ez oso garestia, ala? Kapota dagoeneko enkargatuta daukat herrian.

Bizitzako egunik tristeena Eguberritan erabilitako lurrin pote bat jaso zueneko eta etorri da ondoren, bere buruaz errukitzen zenean ohi zuenez, eta niri beti iruditzen zitzaidan trauma izateko adinako entitaterik ez zuen pasadizoa, areago hirurogeiko hamarkadan gertatua izateko etorkin familia baten baitan. Baina hark beti amaitzen zuen kontakizuna halako moduz non ezinezkoa baitzen sentitu zuen abandonua zeure ez egitea: "Oraindik ez dut jakin norena izan zen nirea izan baino lehenago, baina gertuko norbaitena behar zuen".

Bi kafe eskatu ditu, zerbitzariari hots egiteak sortzen dion barregura ezkutatu ezinik. Serio jarri da:

- Badago kontatu nahi dizudan zerbait -esan dit, eta hautsontziaren kontra zapaldu du zigarroa, aukera baliatuz niri oraindik ez begiratzeko-. Pentsatuko duzu erotu egin naizela.

Ez dut pentsatu nahi erotuta dagoenik, beraz ez ekitea erabaki dut. Bera ere urduri dago. Eskuak sartu ditu patriketan eta tabako pakete berria eta su-piztekoa atera ditu. Gero mahai gainean jarri ditu eskuak: handiak, zakarrak, astunak. Azkazal ongi moztuak ditu.

- Begira.

- Zer?

- Ez duzu ezer arraroa antzematen?

- Ez.

- Erreparatu ongi.

Betazal ertzak presa bilakatu zaizkio.

Eskuak hartu eta ahurrez gora jarri dizkiot. Hatz potoloekin sakatu ditut.

- Zer?

- Ez dira nireak.

- Zer.

- Eskuak.

- Zer?

- Ez dira nireak. Aitari ez diot oraindik ezer esan; lehengo astean gertatu zen, horrela esnatu nintzen. Badakit zaila dela sinesten, baina hala da, ez esan ez duzunik nabaritzen.

Ernegatzen ari da. Eskuak erretiratu eta tabako paketea hartu du. Hortzekin lagunduta kendu du zela-fana. Sendoak ditu, eta hemezortzi urtetatik erretzen duen arren, itxura onekoak.

- Joan al zara medikuarengana?

- Ez esan txorakeriarik. Ez naiz ohitzen. Esku berriekin erretzera, esan nahi dut. Dena da ezberdina, baina batez ere erretzea.

Kosta egin zaio zigarroa piztea. Orain arraroa zait zigarroa heltzeko bere manera, hatzak eskutik irteten diren lekuan jarri du, eta ezpainetara eramaten duen bakoitzean erakuslea eta erdiko hatza aurpegiaren alde batean kakotzen zaizkio, aurpegiaren herena estaliz. Erdiraino erre eta itzali egin du.

- Ez naiz ohitzen. Badakit zer pentsatzen ari zaren, zure amak burua galdu duela. Niri ere hala iruditzen zait, zer uste duzu ba, tuntuna naizela?

Kosta egiten zaio kikara platertxoaren erdian ipintzea, eta hurrupa bakoitzean okertuta utzi du.

Sei hilabete ez ziren igaro erretiratu zenetik, hogeita bost urtetik gora sukaldean jardun ondoren Groseko Loretxu tabernan. Bere kalkuluen arabera berrehun mila kroketa egin zituen berak bakarrik, banan-banan, “eta ez nolanhikoak”. Egia zioen. Tabernako kantoi batean prentsan argitaraturiko losintxak zituzten ikusgai eta, eskaintzan zegoen pintxo samalda gorabehera, ez zegoen kroketak nabarmentzen ez zituen artikulurik. Baina bere lorpen handiena ez zen hurria izan, aldagela eta dutxak jartzeko nagusia konbentzitu izana baizik, eta hala, koipe arteko lanegunetatik usain oneko ez ezik koktel baterako gertu irten ohi zen.

Eskutarako krema zurrusta bat ipini du eskugai-
nean. Biribilak marrastuz zabaldu du. Adi-adi behatu
dut esku haiek bereak beste inorenak ezin dutela izan
agerian utziko duen argudio baten bila, alferrik.

- Atzamar bakoitza zentimetro luzeagoa daukat,
eta begira diametro hau -erdiko hatza nire begien pa-
rean jarri du ni begiak okertzera behartuz-. Normala
iruditzen al zaizu? Goazen, hemendik gutxira ezingo
da-eta dendetan sartu.

Ez nuen jakin zer egin. Amaren atzetik abiatu nin-
tzen. Artean ez zebilen jende gehiegi, egia zen. Hotz

zegoen. Zuhaitz guztiak gorri zeuden, kale garbitzailleen makinak tripetan egongo ziren falta zitzaizkien hosto guztiak, lurrian ez baitzegoen bakar bat ere.

Behin ere sartu gabeko denda txikietara eraman ninduen. Oihalak haztatzen zituen zebra betaurrekoak sudur puntan jarrita, tiraldiak eragiten zizkien. Jantzi pare bat begiz joz gero berehala ebazten zuen bieta-tik zein erosi eztaba daezinak ziren arrazoiak aletuz. Amak beti izan du nik baino gustu hobea. Nor bere jatorrizko klasetik ihes egiten ahalegintzen ginen, hura estiloaren bidez eta ni intelektuaren bidez; irrigarriak ginen urrutitik begiratuta.

Joanesen oparia bukaerarako utzi genuen. Nik ez nekien non bilatu. Kolpetik, kale erdian geratu zen ama:

- *Berezi* esaten duzunean zer esan nahi duzu? -gogaituta zirudien.

- Egunero erabiltzekoa ez dena, baina ez okasio berezietan jartzekoa delako, baizik eta agian berari ez litzaiokeelako bururatuko erosterik, nik erosita ordea gustura jantziko lukeena.

- Bai konplikatua zaretela oraingo gazteak. *Polita*, ez? Eta ezin ordainduzkoa izan gabe, ona.

Nire belarrietara dimentsio mistikoa hartzen zuen on hitzak berak esanda.

- Horrelako zerbait.

- Joanesen alde ona da, dena gustatzen zaiola.

Edo hori edo oso zuria da.

- Hala iruditzen zaizu?

- Ez, ez zait iruditzen. Ongi zaudete?

- Egia esan, bai, bolada ona daramagu. Orain ogia egiten hasi gara etxean, mundu bat da hori ere.

- Biak zarete jenio bizikoak, ez da erraza izango.

- Begira zer oparitu didan... -ahultasun une bat izan zen, bihotza zabaldu nion zintzilik neraman lepokoia erakutsiz: urrezko zitara bat, Emausen merke-zurrean erositakoa.

- Badakit non -esan zuen pozik, lepokoari jaramonik egin gabe, eta bere gorputza zen emozioen eroale xelebreak zapata dantzan jarri zion, gora eta behera, puzgailu bati eragiten ariko balitz bezala-. Ez dakit nolatan ez zaidan orain arte bururatu.

Egindako bidea desibiltzen hasi ginen, pozik zirudien.

- Eta orain baduzu lanik? Ordaindutakoa, esan nahi dut -galdetu zidan aurrera begiratzeari utzi gabe.

- Pasa den astean Legebiltzarretik deitu zidaten ordezkapen baterako eta etzi aldibereko itzulpena egin behar dut hizkuntza gutxituen inguruan egin behar duten kongresu batean.

- Eta Nobel sariaren itzulpena?

- Ez da Nobel saria, azken urteotako hautagaietako bat baizik.

- Zenbat ordainduko dizute?

- Plazeragatik egiten dut, zenbat aldiz esan behar dizut? Bestea nahiko txukun ordaintzen dute.

- Funtzionario sartu behar zenuke. Opor onak eta soldata hobe, Eneritz bezala. Eta etxea garbituko dizuen norbait hartu, astean behin, buhame amets horiek baztertu, ikusten duzue ez direla bideragarriak.

- Buhametasunak behintzat koartada ematen ditxerri izaten jarraitzeko, bada zerbait. Ez dakizu zenbat emakumek nahi luketen eurentzat horrelako aitza-kia bat.

- Neuk ez.

- Hori badakigu.

- Konplexu gehiegi dituzu. Beti izan zara...

- Kontuz esango duzunarekin.

- Zure bizitza da, hori ere hala da.

- Nire txerri bizitza -amaren parean ispilu deformatzaile baten aurrean bezala ikusten nuen nire burua.

- Ez dut horrelakorik esan. Bizitza interesgarria duzu, ez nirea bezalakoa: bexamela prestatzen joan zait.

- Ez da hainbesterako.

- Berrero jaioko banintz...

- Turismoa ikasiko zenuke, bai. Baina humanitateari mesede handiagoa egin diozu jateko goxoa ematen, herrialde txiroetara aberaskiloak bidalita baino.

Ohartu nintzen poltsen heldulekuak eskumuturretik zintzilik zeramatzala, ukabilak zerura begira. Bere besotik oratuta joateko nahikoa adore bildu izan banu sikiera... Ez nekien noiz hasi zitzaidan zail egiten bera-rengana hurbiltzea, baina urrutiratze agindu bat banauka bezala jokutzen nuen, ez dakit mina eragin nie-zaiokeelako edo berak niri. Txarrantxaren gainetik jauzi egiteko bulkadaren bila aritu nintzen, bertigoa sentitzera ere iritsi gabe. Gainera, txera gehiegi adieraziz gero erotzat hartu eta poltsaz joko ninduke.

Portu inguruko kalekka bateraino eraman ninduen. Umetan, libre zuen igande batzuetan, handik pasatzen ginen izkirak erosteko, eta beldurgarriak irudi-

tzen zitzaizkidan horma heze haiek. Denda txiki bat zen, egurra eta harria, kolore gutxiko arropa, oso neurritsua guztia. Amak labur azaldu zion dendariari nahi genuena, eta berak, han zituen dozenaka alkandoretatik hiru atera zizkigun. Cowboy mozkerak, petrolio kolorea eta loredun bazterkiak. Amaren bedeinkapena bilatu nuen zeharka. Pertxa kirtenetik helduta hegaldatu zuen, buruarekin baiezkoa eginez.

Dendatik irten ginenerako Alde Zaharreko argiak pizturik zeuden. Alai nengoen loteria iragarkietan nola. Erosketa guztiak amaituta, karga-karga eginda gindoazen.

- Itxaron segundo bat -esan nion eta, korrika batean, anaia eta biok eraman izan gintuen gozo-dendatik paperean bildutako bi merengerekin irten nintzen-. Autobusaren zain gauden bitartean jateko.

Aurrez hala hitz eginda balego bezala jokatu zuen, harridurarik gabe, nahiz eta nigan ez zen ohikoa horrelakoak egitea. Geltokirantz abiatu ginen. Ni baino pare bat pauso aurrerago ibiltzen zen beti, oinak lurretik gehiegi altxa gabe.

Añil koloreko zerua zegoen eta ilargiaren barruan hemorragia bat zirudien hodei bat. Markesinara iritsi ginenean sokatxoak askatzen ahalegindu zen ama. Ze-

haztasuna eskatzen zuen mugimendua zen, bere hatz ordurako trauskilek nekez lor zezaketena. Hortzekin lagundu nion eta berak erakutsi bezala jan nuen: ginga lehendabizi eta hostopil xaflak pasteletik bana-ka askatuz ondoren.

- Munduko onenak dira -esan zidan-, ez zait komeni baina!

Ni segituan okitzen ninduen, baita txikitan ere; aldiz, orduan bezala, gozamena erakutsi nuen hutsik ez egiteko. Kleenex mutur batekin garbitu nion ezpain ertza, keinu hura egitera ausartu izanagatik hunkituta.

Poltsak zangoen artean jarrita eta eskuak patrikan sartuta egin zuen autobusaren ibilbidea, isilik. Bere geltokian agurtu ninduen, ezagutuko ez banindu bezala, eta haserre ote zegoen ideia burutik kendu ezinda joan nintzen etxera, noiz egin ote nion min.

Frisiarren ordezkariaren itzultzaile izendatu ninduten. Iceberg zahar baten koloreko begiak zituen neska eder-eder bat zen. Bere aldamenean eserita egin nintuen interpretari lanak. Gorbatadun gizon gizenen esanak aldi berean itzultzeak eskatzen duen nolabaiteko transformazioarekin gozatu ohi dudan arren,

atsegin hartu nuen ni egitera sekula ausartuko ez nintzatekeen eta ordura arteko ponentzien tonu zurruna puskatzen zuten gazte haren ateraldiak antzezten. Are gozagarriagoa izan zen, bazkالاurretik eta bitartean akonpainante lanetan jarraitu eta euliak ez tira bezala hurbildu eta ez ingelesez ez frisieraz zekiten hizkuntza gutxituzaleen zirto, laudorio eta orotariko hurbilpen estrategiak ingelesera ekartzea, Annari ahopean esan, erantzuna jaso eta, berari ikasitako zakarkeria neurtuz, bere gorputza zuen baina nire ahotsez mintzatzen zen kreatura haren barrunbeetatik bueltan itzultzea.

- Ez pentsa, nekagarria da naizen bezalakoa izatea -esan zidan oraindik ulertzea lortu ez dudan modu batez-. Ibiltzeko beharra daukat.

Gertukoan urrunekoa zen. Jatetxetik atera ginean txano bat jantzi zuen eta hondartzarako bidea hartuta agurtu ninduen. Galera txiki bat sentitu nuen egun erdiz okupaturako gorputz hura aldentzen ikus-tean.

Arratsaldeko saioan trajez jantzitako bibote luzeko tartariar baten interpretaria izatea egokitu zitzaidan. Saio hark ere kitzikatzen ninduen, ez bainintzen hain itxura bitxia zuen inoren parte inoiz izan, baina tar-

tean heldu zitzaizkidan amaren mezuek ez ninduten nire baitara behar bezala biltzen utzi: “Eedtorriko xz-ree5eter?!”, “Eetorriko xar5etten??” eta jarraian bi audio mezu, lehena ez tul batena eta bigarrena internet ez zebilela eta gauean haien etxetik pasa gintezkeen galdezka. Hitzaldiaren ostean inor gutxi inguratu zitzaigunez, goiz amaitu genuen. Irteeran tartariarrak aitortu zidan nahiago zuela bere kabuz ibili, ez zuela kongresuko afaritara joateko asmorik, euskaldunok gehiegi jaten genuela eta digestio horiek adimena ez ezik arima ere kaltetuko zigutela. Azal beltzaran finfina zuen, masailetan laranja, eta irri egitean urrezko letagina ikusten zitzaion. Boulevarderaino lagundunon, eta han ortopedia denda batera sartu zen, niri bostekoa estutu eta gero.

Joanesen bila joan nintzen. Gure etxe atarian zegoen zain. Askotan bezala orduan ere kontrako norabideetan genbiltzan, eta oraindik ez nion ezer aipatu, batetik, gaiari buruz fribolizatu gabe hitz egiteko kapaz ez nintzelako sentitzen, baina, batez ere, kontatzeak erreal bilakatuko zuelako behin betiko. Autoz joateko tentatu nuen, hartara ez nuen berarekin patxadaz hitz egiteko astirik izango, baina ez zuen nahi izan, gurasoen auzoan aparkatzen zaila izango zela

argudiatuz. Berritsu zegoen. Enkarguz berriztaten ari zen ohe-buruaren istorioa kontatu zidan. Altzariez pertsonenez bezala hitz egiteko artea zuen: gaitzak sendatzen zizkien, puskatutako hankak konpontzen edo urratutako azala leuntzen. Haien iragana ezagutu nahi izaten zuen. Aukera berri bat ematen zien inguru ezberdin batean. Ohe-buruaren istorioa amaitu zuenerako gurasoen etxepean geunden. Ur putzuetan hostoak eta zigarrokinak nahasten ziren.

Kapsula itxurako etxe orratz hartako hamaikagarenean hazi eta bizi izan nintzen hogeita bi urte izan arte. Gogoan dut Joanes lehenengo aldiz eraman nuenean lotsa sentitu nuela, benetan *nor* nintzen jakingo zuelako *azkenean*.

Joanesen paparrera erorita iritsi ginen zazpigarren solairura. Ezin saihestuzkoa zen: igogailuan sartzen nintzen aldiro umetu egiten nintzen.

Denak normal itxura zuen. Amak trastez beteta zeukan sukaldeko mahai-gaina: lapikoak, erretiluak, puregailua, sagarrak kiribil luze bat osatuz mozteko tramankulua, piperbeltza xehatzeko gailu erraldoi bat... Su guztiak piztuta eta saltsak borborka, sukaldeak lokomotora bat zirudien. Mahaiaren ertz batean gaztainak zuritzen ari zen aita, kapoia urtero legez

prestatzeko. Labanarekin lapak arroketatik erauzi eta gordinik jaten zituen heroi haren arrastorik ez nuen aurkitzen konkortuta eta betaurrekoak jarrita ikusten nuen figura harengan. Garai batean aita eta biok elkarrekin joaten ginen mendira gaztainak biltzera. Gero ganbaran egunkari orrien gainean zabaltzen genituen.

- Jakizu Galiziako gaztainak direla hauek -bi hatzekin jaso zuen bat argi aldera, begi bat kliskatuz-. Kalibre ederrekoak, halakoxea dute prezioa ere.

- Ordenagailua gure logelan dago, nire mesanotxean. Atzotik ez dabil -esan zigun amak, txipiroi bat garroetatik heltzen zuen bitartean.

Azken hogeita hamar urteetan ez zen gela hura aldatu. Edredoia bai, mordoxka bat ezagutu nizkien, baina hormetako zuritiesuna, altzari ilun pisuak, zeramika eta letoizko lanpara... telesail zahar bateko set-iruditu zitzaidan.

Amak bazekien logela hura ez zegoela bere estiloaren mailan, baina krediturik inoiz eskatu ez izanaz harrotzen zen, eta hala jarraituko zuen hil artean, "Jainko potzoloak hala nahi izatera". Joanesek ohe gainera bultzatu ninduen eta nire gainean etzan zen esku-muturretatik harrapatuta nindukala. Korridoretik zetozen urratsek ohe ertzean eserarazi gintuzten.

- Ba al dakizue nola pizten den -galdetu zigu aitak, eta nire aldamenean jarri zen.

Joanes pasahitzaren bila joan zenean, historialera jo nuen: “wifia mantso dabil”, “Zalando”, “Ray Ban eskaintzak”, “katu gizenak”, “gabonetarako menuak”, “karramarro pastela”, “erorketa barregarriak”, “adimen handiko haurren ezaugarriak”, “bost urteko neska+hankak okertzen ditu ibiltzean”, “Egipto”, “Egipto+gerra”, “Egipto + hegaldia + hotela +Bilbao + Eroski bidaiak”, “limoi ura edatea ona da?”, “limoi uraren kalteak”, “serenditi” (sic), “nola tapizatu besaulki bat”...

“Esku hauek ez dira nireak”en arrastorik ez zegoen. Aita begira-begira neukan. Kokots azpiko haragiak mugimendu propioa zeukan, nolakoa ote zen belarri zulotik irteten zitzaion iletxo sorta laztantzea?, magnolia kimuak ziruditen.

- Zer?

- Ezer ez. Zuek dakizue honetaz. Zure ama da, badirudi orain ezin duela bizi hau gabe. Halakorik!, emakume hau aurreraka beharrean atzeraka doa.

- Gazte jendea bezala, aita.

Joanes pasahitzarekin itzuli zen. Gustatu egiten zitzaidan bere prestutasuna, batzuetan pentsatzen

nuen niregatik baino jendearengatik egiten zuenagatik nengoela berarekin. Amari ez zitzaion inoiz gustatu, ezagutu zuen egunean, naufrago bat zirudiela esan zidan, "Arropa zahar eta ilaje horiekin", baina bera konturatu ez arren on egiten zion harekin ego-teak, beste inorekin baino gehiago baretzen zen bere amorrua. Maratza izan arren nortasun handikoa, plazer hartzen nuen amari niri buruzko gauza txarren bat esaten zionean adibidez, narrats hutsa nintzela etxean edo ezin zuela nirekin kontatu inora garaiz eta txukun ailegatzeko, baita nik emandako iritzi baten kontra altxatzen zenean ere. Amaren begietara umiliazioak ziren haiek barne poz hedakorra eragiten zidaten, oraindik ez naiz gai zergatia xuxen azaltzeko, baina izan daiteke adierazpen haiek amarengandik urruntzen nindutelako, hark nirekin sortu izan nahi zuen golema ukatzen zutelako. Eta izan daiteke, baita ere, erakusten zutelako nik ez neukala Joanes zikiratuta, amak aita bezala. Kastratu gabeko gizon batekin egoteko bezain indartsua nintzela erakutsi nahi nion akaso.

Nire izena oihu bilakatuta entzun nuen. Ama zen, sukaldetik. Sei urteko umea bilakatuta joan nintzen beregana, gaizki egindakoa konpontzeko asmoz. Es-

kuak distiratsu zituen arrain tripengatik. Ahopeka hitz egin zidan:

- Kontutxo bat: ez zenuten ordenagailuaren kame-
ratik tirita kenduko, ezta?

- Tirita? Zergatik diozu?

- Aizu, ez pentsa nire burutazio bat denik, CIAko agente ohi batek esan zuen, eta horrelakoak salatzea-
gatik Errusian bizi da orain. Hortik zelatatzen gaituzte,
eta gero informazio hori salerosketarako erabiltzen
dute.

- Eta zer ikusiko lukete?

- Xantaia egiteko erabil dezaketen edozer, zer
uste duzu bada, jende famatuarekin bakarrik egiten
dutela, ala? Inuzentea!

Garai batean nik ere estalita izan nuela gogoratu
nintzen, Joanesek barre egin zidan arte.

- Ez dugu kendu, zaude lasai.

Aita eta Joanes gurekin bildu ziren sukaldean.
Amak txipiroiak guraizeekin mozteari ekin zion, eba-
kien erdiak airean emanaz.

- Konponduta -esan zuen Joanesek-. Garbiketa
egin dizut, zabor pila zenuen.

- Mila esker, gazte -esan zion amak-. Zenbat zor
dizut?

- Garagardo batekin bakean, etxeoandre.

Aitak garagardo latak atera zituen. Gero ardi gazta eta urdaiazpiko zatiak ipini zituen plater batean. Gu sukaldeko mahaira eserita geunden bitartean bera zutik egon zen, platera gugana gerturatzen eta urrun-tzen.

- Zein esku-lan egingo ote digu aurten Eneritzek? Jakin-minez nago -ama sasoiko ote zegoen jakin nahi nuen, jakinda, baiezkoan, ezingo nuela gelditu.

- Kafe kapsulak bukatuko ahal zitzaizkion behintzat! -esan zuen amak, berpiztuta.

Joanesez eta biok barre egin genuen.

Gogoratu, ama, trikotatzen ere badakiela...

- Dirurik ez gastatzeagatik, horrek edozer.

- Patuko batzuk gaizki, ala?

- Gero bera ez da ba hain zarpaila... Eta oporretan furgonetan, bai, baina tokirik chic-enetara... Pobre plantak egin nahi badituzte zergatik ez dira joaten Errioxako camping batera...? Ez, Kopenhagera...

- Alde ederra Errioxan! -esan zuen aitak.

- Bere alde esan behar dut plastikozko poltsekin egin zigun diru-zorroak joko handia eman didala... -esan zuen Joanesez patrikatik kartera aterata.

- Baina nahiago dituzula nik oparitu nizkizun Ni-keak? Esan egia! Lukurrerua! Irakasleek irabazten du-tenarekin! Eta gure Aitor hain apalduta ikustea... Beti izan da inuzente xamarra, baina...

- Ama, joan beharra dugu.

- Bere gurasoak ikusi besterik ez dago... Ikusi izan dut bere ama arrandegian hamar bokarta erosten, hamar! Bukaeran -txo jarrita dena konpontzen duten santujale horietako bat da...

- Zer ikustekorik dauka batak bestearekin, ama?

- Handia, ikusi nahi duenarentzat.

- Bagoaz.

- Ez al duzue beste garagardo bat nahi?

Aitak atera lagundu zigun:

- Eta afaritara garaiz etorri. Seguru al zaudete ez duzuela beste bat nahi? -galdetu zuen atea itxi aurretik.

Igogailuan sartu bezain pronto, Joanesek erradio-aktibitate neurgailu imaginario bat pasa zuen nire gorputzetik. Pi-pi-pi ozenak egin zituen pasaera bakoitzean, baina ernegatuegi nengoen barre egiteko.

Gabon egunean, ilundu arte aritu nintzen itzulpenarekin lanean. “I am your soul mate, not all those others” esaldian katramilatu nintzen. “Ni naiz zure *arma* bikia, eta ez beste horiek guztiak” idatzi nuen, eta nik eragindako istripuari begira gelditu nintzen Joanes gelara presa sartuz etorri zen arte. Nire espezialitatea ziren.

Joanes bereziki dotore zegoen, esker oneko gorpuzkera zuen eta guztiak ongi ematen zion niri ez bezala. Amak zioen *gu* ez geundela Zaran jantziak izateko sortuak. Esaten zuen bakoitzean inarrosi egiten nintzen, nire munstrokeria zein ote zen gogora ekarri ezinda. Ikaskide baten ezkontzarako erosi nuen alkan-dora erakutsi nionean urrats bat egin zuen atzera: “Ez zait gustatzen eta kolore honek gaizki ematen dizu, baina nire iritzia besterik ez da” esan zidan atsekabertuta. Handik bizpahiru egunetara nik behin ere hautatuko ez nukeen blusa bat bidali zidan aitarekin, beharpenetan erositakoa, nirea baino zatiaz merkeagoa, eszeptizismoz probatu nuena eta jantzi orduko garaiezina zena. Bere morroia nintzen. Harrezkero behin baino gehiagotan egin dut nik erositakoa jartzeko saiakera, baina ispiluan begiratzean hondoratu egiten naiz.

- Zein konbinazio arraroa egin duzun, ezta? -esan zidan Joanesek jantzi nuen gona luzeari begira.

- Arraro-originala edo arraro-ingresa-nazazue-nire-ama-laurdenkatu-eta-hozkailuan-gorde-aurretik?

- Lehena.

- Gezurretan ari zara.

- Arraro-epaitua-sentitzen-naiz.

- Arraro-deprimituta-nago.

EZ ginen oso berandu iritsi. Aita eta anaia komodaren kaxoi bat konpontzen ari ziren korridorearen erdian. Ama sukaldean zegoen Kattalinekin eta Eneritzekin. Eneritz zorrotxoko miso salda prestatzen ari zen haurrarentzat, eta Kattalin amonak eskatutako gabon kanta abesten, horregatik amonak emango zion bost euroko billeteari begira.

- Bai guapa zaudela -esan zidan amak nire harri-durarako. Begiek diz-diz egiten zioten.

- Guk hegaluzea ekarri dugu -esan zuen Eneritzek poltsatik kristalezko pote bat aterata.

- Ez zegoen premiarik, neska, honek daukan lanarekin, hobe egingo zenuten denak zuentzat gordeta,

ene! -espantu egin zuen amak-. Zenbat kilo egin zenituzten? Zergatik ez duzue afaria nire esku uzten?

Ez zen inoiz iaioa izan afektua erakusten: hegaluzerik ere ez zuen, eta plater gainean eta haurren antzera sardexkaren kirtenaren inguruan eskua kiribilduta harrapazka jan zuen, egoste eta gatz puntua laudatuz eta Eneritzen esku ona azpimarratuz.

Ospakizunetan egongelako atea itxita izaten zen denok elkartu arte, eta inor hara hurbilduz gero atearen jagolea zen aita agertu ohi zen, zerbait behar ote genuen galdezka. Bitartean sukaldean egoten ginen zutik. Joanes zen gure arteko ur-irina, Eneritzi ikasle musulmanen integrazioaz, Aitorri mendi xendra batez, aitari TAOko langileen grebaz, Kattalini bere panpinaren biografiaz eta amari borborka ari zen saltsaren osagaiez galdetuko ziona; ni akotazioen parte nintzen, parte inportante bat.

Ordua iritsita, amak eskuak garbitu, mantala hiru tolesetara errenditu eta labearen heldulekuan zintzilikatu ondoren egongelako atea zabalduko zuen. Jarreraian, akaso hotzak egongo ginela esango zuen, beraiek ez zutela hotzik, baina gu ez hozteko berogailua piztuko zutela, eta berogailua piztuko zuen.

- Aurten ere gosea pasako dugu! -esan zuen Aitorrek mahai gainean zeuden jakiei begira.

Gu denok eseri bezain pronto, aita bieirez beteriko azpil batekin etorri zen. Atzetik ama: Kattalinentzat arrautza egosiz, oliba beltzez eta azenarioz egindako bi pinguino zekartzan plater batean.

- Hau baino osasuntsuagorik ez zait deus okurritu -esan zuen, Aitorri eta Eneritzi begiratu gabe, baina haientzat.

- Zuek etorri aurretik txinoetara bidali nau horren bila -esan zuen aitak pinguinoek bizkarrean zeramatzaten paperezko aterkiak seinalatuz.

Kattalinek berehala utzi zuen agerian pinguinoaren txotxezko eskeletoa eta sofan eseri zen.

Aitorri begiratu nion, bera ere isildutako telebista ikusten ari zen. Hain urruti ikusten nuen gu guztion-gandik, ez zuen gure familiakoa ematen, areago ez zuen ematen inoiz gure familiakoa izan zenik. Urruntze hartan nik izandako erantzukizuna neurtu nuen, nik onartu ez arren, amarekiko leialtasunez nire anaia, bere semea, gutxiestera jolastu nintzen aldiez.

Ogi-mamiz egindako pilotatxo bat bota nion sudurrean joz. Barre nekatu bat egin zidan, gero nagiak atera zituen eta Eneritzi izterra laztandu zion. Parte ez

hartzeko bezain libre sentitzen zen. Umetan futbolak eta ondoren mendiak babestu zuten gugandik, etxetik. Pilotatxoa itzuli zidan koilara katapultatuta gisa erabili. Beste pilota bat bota nion, baina segidan antzeman nuen gehiegi behartzen ari nintzela. Telebista begiratu nahi zuen.

- Erne gero nirekin! Gaiztotutakoan oso gaiztoa naiz -esan zidan hatza altxatuz.

Amak magalean gordeta zituen eskuak, aho-zapiaren azpian, eta katakume bat ezkutatzen ari balitz bezala begiratzen zituen tarteka. Irribarrez segitu zituen hasi eta mamitzen ez ziren gu guztion arteko elkarrizketak. Inor ez zen jabetu, antza, ongi egonez gero nekez utziko liokeenik isiltasunari mahai hartan bere kasa ibiltzen.

Gelditzen zen azken kroketa hartu nuen, eta tentuz dastatu nire amaren barruan gertatzen ari zena antzeman asmoz, baina ez nuen lekuz kanpoko ezer sumatu.

- Kapoia ekarri, Txomin -esan zion bat-batean amak aitari, ameskeriatik esnatuta-. Lehortu egingo da bestela.

Gainezka zegoen erretilua eskuetan etorri zen aita. Zatikatzerat egin zuenean, biraoka hasi zen: keak

betaurrekoak lanbrotzen zizkion eta ez zuen asmatzen labanaren muturra non sartu.

- Egizu zuk, axola ez badizu, Joanes; gizon honek animalia izorratuko du bestela -esan zuen amak-. Edo zuk, Aitor -saiatu zen konpontzen.

Joanesez egin zuen, konposizio ederreko anoak zerbitzatuz gutariko bakoitzari.

- Kapoia, Oiartzungo baserri batekoa. Gaztainak, Galiziakoak. Eta esku-lana, etxekoa -esan zuen aitak.

- Esan beharra daukat lasaitu ederra hartu dudala aurten ez dagoelako foierik afaltzeko, ba al dakizue ahateei zirrosia eragiten dietela gibela gizentzeko? -esan zuen Eneritzek.

- Ez omen da guztiz horrela -egin zion aurre Joanesez-. Mitotik asko dauka.

- Komeni zaizuna bakarrik sinesten duzu -esan nion.

- Humanitatearen historia horixe besterik ez da -erantzun zidan Joanesez.

Platerekoa lardaskatuta, egongelatik irten zen ama, edalontzia eskuetan. Erori egin zitziola entzun nuen, baina beste inork ez zion erreparatu. Handik gutxira bere bila abiatu nintzen. Bainugelan zegoen, atea bilduta. Eskuak konketari tinko helduta, bere aur-

pegia gertutik behatzen ari zen ispiluan. Hasieran iruditu zitzaidan aho ertzeko zimurrei behatzen ari zela, baina ez: matrailezurra behin eta berriz tenkatzen zuen eta begi ertz-ertzetik begiratzen zion bere buruari.

- Dena ongi?

Niregana jiratu zenerako puskatuta zegoen.

Atea itxi zuen eta eskumuturretik helduta bere ondoan mantendu ninduen, ispilu aurrean keinu hura egiteari utzi gabe.

- Ez al zara konturatu?

Negarrarekin begiak berdatzen zitzaizkion.

- Ez dut deus antzematen, ama.

- Belarriak.

- Zer.

- Orain belarriak.

- Belarriak zer?

- Ez duzu ikusten?

- Ez.

- Ez dira nireak.

- Nola ez dira ba zureak izango? Horixe badirela.

Hirurogei urte bete zenituenean oparitu genizkizun belarritakoak daramatzazu, begira.

- Belarritakoak bai, neska; belarriak dira nireak ez direnak! -destainaz esan zidan, ez dakit nondik ateratzen zuen indar hura-. Begiratu, baina begiratu ongi!

Orduantxe izutu nintzen benetan lehenengo aldiz. Keinuka hasi zen ispilu aurrean: kopeta zimurtzen, begiak ñarrotzen, sudur zuloak zabaltzen eta sudur punta estutzen, ezpainak uzurtzen eta lasaitzen.

- Lehen mugitu egiten nituen eta begira orain, hortxe daude kierto. Eta zein handiak diren, mesedez. Ez dizut esango printzesa belarriak nituenik, baina arrunkeria hau! Kartilago honekin tropa oso batentzako zopa egin nezake-eta, faborez!

Kokotsetik helduta burua niregana jirarazi nion. Pare-parean neukala, bi belarriak aztertu nizkion, ez bakarrik begiradarekin baizik eta baita hatzekin ere. Haragitsuak ziren, eta epelak.

- Eta ba al dakizu zer den okerrena? Nireak ez diren esku hauekin ukitu beharra!

- Lehen txikiagoak zenituela esango nuke. Eta gingila horiek...

- Ez esan nik horrelako gingilak nituenik, faborez!

- Ez zait iruditzen, ez.

- Eskerrak bakarren bat konturatu den. Eskerrak. Baina orain mahaira joango gara eta dena normal ba-

Ilego bezala jokatuko dugu, aditzen? Eta batez ere ez aipatu deus aitari, badakizu zenbat larritzen den, eta gero nik kontsolatu behar izaten dut bera -aurpegia ur hotzarekin busti eta toalla mutur batekin lehortu zuen-. Ni joango naiz lehena eta minutu barru-edo zu etorri, susmorik ez pizteko.

Agindutakoa bete nuen.

Egongelara iritsi nintzenean, eskuetan zeukan landarearen atzetik hizketan ari zen Eneritz, mahaiaren aldamenean zutik.

- Esaten ari nintzen, landare hau ekarri dudala berez Urte Zahar gauean egin behar litzatekeen erritu baterako, baina guk egun hori borda batean igaroko dugunez... iruditu zaigu kosmosari ez zaiola inporta izango astebete aurreratzea...

Ausarta zen, sobera baitzekien familia haren nihilismo basatiari erronka jotzen ari zitzaiola. Joanesek ostiko txikiak eman zizkidan mahai azpitik, baina nik zangoa erretiratu nuen.

- Baldin eta denok parte hartu nahi baduzue. Ez dadila inor behartuta sentitu -jarraitu zuen-. Aitorri eta bioi polita iruditu zaigu hau zuekin konpartitzea.

- Jolas bat besterik ez da -desenkusatu zen Aitor-. Egin nahi ez baduzue, ez egin.

- Kattalinek, gainera, ikasi du idazten eta berak ere egin nahi du.

Joanes nire belauna estutzen ari zen oin puntarekin.

- Egia al da hori, Kattalin? Zure ideia izan al da? -esan zuen amak munduko ideia onenaren aurrean balego bezala.

Eneritzek kolorezko errotulagailuak, sokatxoak eta kartulina zatiak banatu zituen. Bakoitzak bana hartu genuen. Urte berrirako desioak idatzi behar genituen, eta gero zintzilikatu. Aita arduratuko zen landarearen zaintzaz. Urtero-urtero egingo omen genuen.

- Urtero-urtero -errepikatu zuen Kattalinek.

Nor bere kartulinara bildu zen.

Duelu batean bezala, ama eta biok elkarri begira geratu ginen errotulagailuak eskuetan. Bera izan zen estalkia kentzen lehena. Zerbait idatzi zuelako itxurak egin zituen. Nik ere berdin egin nuen, eta adar berean zintzilikatu nituen biak.

- Ongi zaude? -galdetu nion beste inork ez entzuteko moduan.

Hatz lodia tentetu zuen ezkutuan eta begi bat kliskatu zidan.

Desioen errituala bukatu bitartean leihora atera nintzen. Hotza sentitu nahi nuen gutxienez, nengoen egoeratik ateraraziko ninduen edozer. Zerua beltz zegoen eta saretutako hodeiez inguratuta odoletan ageri zen ilargia.

Mahaira bueltatu nintzenean, Eneritz gainontzekoen kartulinak zintzilikatzen ari zen eta Kattalin nire amaren gainean zangalatrau eserita zegoen. Elkarri kontuak esaten ari ziren. Amak hatz batean kiribiltzen eta askatzen zituen neskatilaren adatsak, Kattalinek aurpegia eta belarriak ferekatzen zizkion nire amari.

- Zenbat maite dut nik ume hau?, zenbat?, zenbat?, zenbat? -esan zion begirada umetuta.

- Askok, askok, askok! -erantzun zion Kattalinek.

Gero, hatza ahoan sartu eta nire amaren bularren gainean etzan zuen burua. Andre hura betiko galtzera nindoala ohartu nintzen, betiko, betiko, betiko.